Euskara zabaldu, beraz, eta zabalago heda dadin eta sustrai iraunkorra-goak luza ditzan, baturik zabaldu, batura ahal daitekeen neurrian. Horrelako zerbaiten bila, zenbat aldiz ez gara bildu, Aresti zena lagun, aditzaren batasunerako batzordean, Altuna genuela idazkari, sesio bizia zerigula batzuetan eta arrazoi baketsuetan iheri beste zenbaitetan, eta haraindiko ertzearaino inoiz igaroko ez ginelako beldurrez gehienetan. Eta, halaz guztiz, jo genuen jomuga eta heldu ginen helburu nagusira, aspaldi heldu ere, nahiz orro eta makakorroka maizegi ibili. Beharrak eragiten duenean, guztion ondasuna galbidean ageri zaigunean, oihuak oihu eta sesioak sesio, utzi eta baztertu egiten dira, azken finean bederen, norberekoikeriak eta eskualdekeriak.

Orduan, bada, baturakoa erdi batu bihurturik eta batasunaren berria bazterretan zabaldu ondoan, bazirudien Aita Altunak ere atsedean har zeza-keela, lan larrien ekoizpena ederki biribildurik inguruan zuela. Ez da horrela izan, inondik ere, eta euskararen onerako ez da horrelakorik gertatu. Gogoan baitzuen lehengo asmo hura, presak eta premiak berandazia bazuten ere, *Altertumswissenschaft* delakoaren ziztadak sortua eta ernatua zeramana: hori inoiz erraietan sumatu dugunok ez baitugu aise berdinduko Filologiaren egarria. Gurea ez da, bistan dago, Filologia klasikoa, bai, halarik ere, Filologia, eta elkarren senide dira hango eta hemengo Filologia guztiak, harako beste hura gidari eta eragile dutelarik, guztiz ere.

Ez da miresteko lanerako gogoak bulkatzen duen norbait zalantzan luzaroan egotea, zeri ekingo. Dudamudak utziak ditu Altunak, berak aitortzen digunez, bai ahozko eta bai izkribuzko jardunean, eta begiz jo eta hautesi duen sailari, berari entzun diozute, Euskal filologia deritza: "Nik neure aldetik hitz ematen eta zin egiten dizuet, Jainkoak osasun eta indar eman

nahiko didaino, eginahalean saiatuko naizela zuekin batean egiteko hori burutan ateratzen. Ez, ordea, eska neri, otoi, egin dezakedan eta ahal dudan baino goragoko lanik. Nere arloa ez da, dakizuenetz, goi mailako Linguistikaren katramila zail eta ilunak argitzea; nere esparrua Filologia da, autore zaharren hizkera aztertzea eta horrek Linguistikarekin zerrikusirik duen heinean murgilduko naiz ere Linguistikaren eremuko zoko nahasietan”.

Eta oraindik orain, esate baterako, hasia baldin badugu ere, ez zaigu, ez urrik eman ere, esku hutsik azaltzen. Hor dugu hiru liburu lodi eta aberatsen (tesia barne dela) lekukotasuna, lekukorik behar bagenu, bata bestearen lehian bezala plazaratuak: *Versificación de Dechepare: métrica y pronunciación*, eta *Etchepareren hiztegia: lexicon dechepareano* eta, beste guztien buru, gure lehenbiziko poema-liburuaren edizio kritikoa. Honi eskerrak ikasiko du zenbaitek, nik uste, bestetan gauza ongi jakina dena: *fac-simile*-ak, nahiz berez eta bere arloan probetxugarriak izan, ez direla sekula izan ez izango edizio kritiko onaren ordain zuzen.

Zuen baimenarekin, hitz bi sartu nahi nituzke hemen eskupeko Filologiaren izena eta edukia zertxobait mugatzeko, aski nahasiak baitabiltza gure artean —eta ez gure artean bakarrik— aspaldixkodanik. Urkixo, don Julio, ez nuen zoritxarrez behar adinbat tratatu, gaitz hilgarriak joa ageri baitzen eza-gutu nueneko. Izan genituen, halaz guztiz, zenbait elkar-hizketa eta, halako batean, hauxe esan zidan, bere burua zuritu nahiz bezala: “Yo no soy filólogo”. Eta ez nion ezer esan, sobra eta gehiegi banekielako zertaz ari zen eta adierazi nahi zidana beste hau zela: “Yo no soy lingüista”. Izan ere, egiazko filologorik izan baldin bada gure artean eta gure arteko, don Julio izan da hori, beste edozein baino areago. Eta, inor izendatzekotan, bera izendatu beharko genuke etxekoan artean filologo guztien patroia.

Ez diot deus berririk erakusten Altunari. Badaki honek, nik bezain ongi, nola Filologia, Gramatikaren altzoan hazia izanik, luzatu gabe abiatu zela bere bidetik, gramatikarenetarik, hori bai, behar baino gehiago aldendu gabe. Gero, XIX. mendean guztiz ere, hizkuntzalariak harro-harro burua nabarmentzen hasi zirenean, sortu zen gora-behera eta tirabirarik. Baina, hau gogoan eduki behar da, hizkuntzalariak izan ziren, filologo ere gehienbat zirelarik, bere nortasuna ezaguterazi eta bere buruaren jabe zirela, eta ez inoren mendeko, agertu nahi izan zutenak.

Aspaldiko gauzak dira horiek, damurik. Oraindik ere badira batzu batean zein bestean, bi sailetan, maisukiro jokatzten dutenak; gehienek, ordea, nahiago (eta erosoago, noski) dute nor bere bidetik ibiltzea. Nolanahi ere den, nahiz eta hizkuntzalaririk sonatuenetako frankok erabat arbuatua badauka ere filologia, ez dugu horrenbestez esan, ez da esango ere, andre linguistikaren mirabe umila baizik ez dela filologia.

Aitzitik, zeharo bestela litzateke. Lanbidea lanbide, askozaz ere zabala-goia da filologiarena linguistikarena baino. Hizkuntzalariearen eremua, gaiaren

muina hitzez-hitzez hartzen badugu, hizkuntzak mugatzen du. Badakigu, egia, hizkuntzaren muga oro-inguratzaileak mundu osoarenak direla (izan daitezkeen mundu guztienak, nolazpait esan); hizkuntza bera du, halere, bere soilean, dagokion eta egotzi zaion lanbide bakarra, gainerako guztia (zenbaiten ustez bederen) delako zorioneko "inmanentzia"-ren hesitik ihes ibiltzea bailtzeateke. Filologiak, berriz, testua (ahozkoa nahiz izkribuzkoa) du eremu eta, testua landuko baldin bada, hori bere araztasunean argitaratzeko eta ulertarazteko edonolako tresnak erabili beharko ditu. Nagusi da, beraz, eginkizunez, hizkuntzalaritzaren aldean eta ni behintzat, horrexegatik beragatik, ez naiz sekula ausartu, oraintsu arte, sail horretako gaiak lardaskatzen, esku trebeagoren premian zirelakoan.

Halaz guztiz, eta ezinbestean bederik, nik ere igaro ditut ateak eta oinak lur sakratuan, begiramenez ikara, ipini. Horra bada non egin dugun topo Altunak eta biok, alor berbera lantzeko asmoaren eraginez. Ez gaude bakarrik, zorionean, ezta alderatzeko ere. Etorkizunerako ere, orainaldia baino hobeagoa izango delakoan, baditugu ametsak. Guk ere esan dezakegu, bidazti-olerkariaren antzera:

Ibilgo-buru

.....
aur begi-argirik anitz bekargu

Etorkizunaren mendean daude, bada, alde zure ahaleginak: eta alde zure mendean. Bakarrik ez ibiltzeak ez du, honelako gaietan, onura baizik ekartzen. Edozein jakite sailetan, baita euskal filologian ere, elkarren lehia lantza behar dugu, norgehiagoka bortitza. Lehiak, ordea, probetxurako izango baldin bada, leiala behar du izan. Hizkuntza eta, hizkuntza ez ezik, Euskal herriaren jakintza jaso nahian jaioa eta hazia delarik, ez da baten ez besteren, pertsona nahiz taldeen, izena eta omena goratu beharrean dabilena. Elkarrekin jasoko dugu burua, elkarrekin lehiatzeko bihotza badugu; eta elkarrekin lur joko dugu, elkarrekin amildu ondoan, geure irudia besterengan ezagutze-ko gauza ez bagara.

Euskararen lekukoak deritzan bildumarako eskainia digu Altunak Etxeberri Ziburukoaren *Manual devotioenezcoa*-ren lehen zatia, 3.814 bertso omen dituen, eta 1627 urtean agertu omen zena. Agertu omen zena diot horrela aipatzen baitugu aho batez, nahiz zinetan eta benetan esku artean darabilguna XVII. mendearen azkenetakoa izan.

Altuna, lehenbizi eta behin, elizgizonen alde agertzen zaigu, liburuari eta egileari dagokienez. Ziburutarra, dakigunez, horietakoa genuen eta, gure arteko gehienak ez bezala, dotore-erramuz koroatua. Eta, izan ere, arrazoi osoa du, gure gaitzen azterketa zorrotz horretan. Elizgizonek ez dute maiteegi izan euskara; besteok izan dugu, zenbait mende zehar, nardatuegi. Laikoen hutsartean, beraz, eta hutsarte horren argira agertzen da betetasun osoan elizgi-

zonen euskal lana, ez ordea berez beteegia zelako. Bat ez da bitan banatzen, zuri eta beltzetan, askotan baizik, ezin konta ahal diren grisen graduetan.

Gertakariak zergatik horrela gertatu ziren ere, erraz uler daiteke. Ez gara arte-lanean, bertso nahiz liburugintzan (eta are bestelakoetan), bihotz-isuri hutsez aritzen, inoiz edo behin izan ezik. Hasi, behar bada, hasiko gara, baina, haziak ernatzeko lur heze-emankorra behar duen bezalaxe, gure joerak eta jaierak ere beharko du izan, irauteko eta lanari jarraitzeko, premiazko duen giroa. Arte-lana, arras bakanka izan ezik, ez da basamortuetan sortzen.

XVI-XVII. mende haietan bazuten elizgizonek, Trento aurretik protestanteek, Trento ondoren guztiz ere katolikoek, euskal lanaren zertarakoa: ez zen hau beren apaiz-lanaren noraezkoa baizik. Besteek, berriz, beste maila beherago batean gelditzen dira. Etxeberriren hitzak erabiliko ditut, *Man.* I, 31:

*Aphez gobernatçailleen eguia duc bilkhua,
Deitcen dugula Eliça batçuetan Saindua,
Parte principalenari guztiaren icena,
Ematen çaiola ceren den señalatuen.*

Hauek ere bazuten beren literatura: kopia zaharrak, bat-bateko bertsoak, ipuinak, esaerak, eta nahi duzuen. Nabarmenena, noski, bertso-lana zuten, bai jaietan eta bai hiletetan. Idaztea falta zitzaien, ordea, gehienetan, elizgizon eta eskribauen eskuetan batez ere zegoen idazkera eta idazten ez dena, dakigunez, maizegi doa hegaz. Dena den, elizgizonek eta letratuak erabat ez bazebiltzan gure artean, Oihenart eta Oihenarteren antzekoren bat salbu, Antzinate urrutiko ereduaren atzetik, nekez aurki zitekeen horrelakorik herri-neurtitzetan.

Elizgizonak ez ezik, Etxeberri bera ere defenditzen du Altunak, idazle zen aldetik. Eta Oihenarteren erasoan kontra defenditzen du hain zuzen, Altunak ederki ezagutzen duen xuberotar hau baitugu bai euskal literaturaren kondairaren oinarriarik sendoenak landatu dituen eta baita ere, berebat, gure kritikak izan duen lehenbiziko giltzarria.

Nik ere ez dut uste, eta bat nator Altunarekin, Etxeberri inolaz ere merezi duenik Oihenartek bizkarraren gainean erabiltzen dion zigorra, Bestetan esana daukat, gainera, honako Oihenarteren hitz hauek hobeki dagozkio-lari Oihenarteri berari Etxeberri bano: “Il est dommage que cet esprit aye mieux aimé s'appliquer à la poésie (pour laquelle il n'avoit point de naturel) qu'à la prose”. Oihenartek ez zuen, egia esan, prosazko euskal zatirik, labur baino laburrago ez bada, utzi, baina latinez eta frantsesez eman zituenak ederki darakuste benetan trebea zela hitz lauz edo lainoz, argitasunaren aldetik, batez ere. Neurtitzetan, berriz, hotz agertzen zaigu maizenik, antzinakoek esan ohi zuten ez edo nahiago baduzue epel. Ez da beste horrenbeste gertatzen, ordea, Etxeberriarekin. Pasarte ahulak, hitz-jarioa darienak baditu.

Horien aldamenean, haatik, aurki daitezke, gailurrik garaieten (zenbait erakutsi dizkigu Altunak behatz zorrotzez), Orixek arnasa deitzen zuen haren kutsua, poemagintzan, kristau nahiz jentilengan, egiazko garrez dizekanean, goitar dena, goitik omen datorrena. Ezinezko baitirudi gizakume soila horrela hegaldatzea *éntheos* ez baldin badago. Horrela izendatu zuen Heguy adiskideak, oroituko zarete, Etxeberri bertso-lanera bultzatu zuen garra (*ardor*). Eta pasarte horiek, nik uste, lehen partean aurkitu ohi dira maizago, Altunak aurki eskainiko digunean.

Agertuko denaren esperoan egon gabe, hona non hemen bertan eskaintzen dizkigun Altunak bere lanaren estreinak. Aspaldidanik uste dut *Manual*-ak daramatzan atarikoak ematen digutela argirik aski Etxeberri Ziburukoaren bizitzaz eta eginez. Ederki dio Altunak horiek, latin bertsoetan datozenez ari naiz, ez direla nolanahikoak: direlako distikoak dotore bezain hutsik gabeak direla. Ia hutsik gabeak, behinik-behin, Gipuzkoako Dipatazioko alean. Hordagok argitara duenean (hots, guztion esku artean dabilenean), bat ageri baita, irakurleren batek zuzendua. Heguyren azken neurtitzean hor dakuskezue eskuz erantsia dagoen *oh* hori, makulu hori gabe neurtitza motz gelditzen zelakoan (*diceris*, itxuraz, orainaldikoa baita):

Diceris (oh) patriae gloria prima tuae?
 – U U | – U U | – || – U U | – U U | –

Lapurtar hauen aldean, Larramendi ez zen hurrengo mendean horren kontuz eta taxuz ibiltzen latin neurkeran. Belarrira edo begira eder bazitzaion ongi zegoen neurtitza, latin silaben luze-laburra gora-behera: *et quod tentabam dicere uersus erat*, esan zezakeeen andoaindarrak ere. Hitz batean, eta hitz neurtua izan dadila hemen neurri, ikasiak ziren orduko zenbait lapurtar, ez bat edo bi gero, eta bikainki ikasiak gainera, lehen letren nekea urruti utzia zutelarik. Bazen han, zabal nahiz mehar, *élite* argi bat. Galdatzekoa ere da ea orainago beste horrenbestekorik sortu ote den, Azkoitiko zalduntxoez kanpora, Euskal herriko lurralde guztian. Giputz hauek, gainera, ez ziren lapurtar haiek bezanbat euskararen alde ahalegindu.

Atarikoei eskerrak erakutsi ere digu Altunak bazela Etxeberri arras gogozko ez zutenen samaldaren bat, urriagoa nahiz ugariagoa, inoiz *bekaizkoa gibel-jalearen* atzaparretan eroria. Ikusi dugu Oihenartek ez zuela haren bertsogintza atsegin, hura hil ondoan ere. Hori aski ez balitz, Heguyk eta batez ere Hirigoytik, baita Etxeberrik berak ere, maizegi darabilte ahotan bekaiztien eztena, hori guziori *topos* hutsetan gelditi dadin.

Metrika aldeko kitzikak ez zaizkio, nik uste, gogorregi hartu behar Oihenarteri. Etxeberri, eta beste horrenbeste, ohitura zaharrei atxikiak ageri zaizkigu gai honetan. Oihenartek, berriz (ehunka urtez berandago Arana Goirik egin zuen gisan), bere legeak sartu nahi ditu, nahiz lege horiek atzerrietako bertsogintzan maiz onartuak izan. Berberak aitortzen du, Musekin ari dela:

*Nic suen asturac et' atunac,
Gu baitan oraino es ensunac,
Arguitaratu' tut ilhumbeti,
Et' ateraric herrazeti
Guretu, et' eman hec Euscara
Cobla honsalen escuetara.*

Vulgares versificatores zirelakoan artean eduki behar zuen Etxeberri, baina maxiaketa horrek ez dio honi deus kentzen ez eransten. Aitzitik, badi-rudi Altunak azpimarkatzen duen Heguyren *primus* horrek Etxeberriren berritasuna eta are lehentasuna adierazi nahi duela, Elizakoetan erabiltzen duen bertso-lanari legokionez bederen. Ezin ahaz daiteke Materre-ren bi edizioak *Manual*-arena baino lehenagokoak direla, hau beste maila umilago batean —hitz lauz gainera— ari bazen ere. Badirudi, bestalde, Etxeberri bera ere “primutasun” horren jakile zela, ez baitzituzkeen bestela honako neurtitz hauek bezalakoak idatziko:

*Hasteac gaitçac direla errana duc communqui
Hunen gañean eguiñen dic cembait berçec hobequi.*

Captatio beneuolentia-ri tokatzen zaion partea kendurik ere, badirudi zerbaitetan aitzindari eta aurren-esku ikusten zuela bere burua Ziburutarrak.

Altuna, atarikoetan eta besteetan, gauzarik aski saiatzen da argitzen, eta ez da deus lortzen saiatu gaberik. Nik ere egingo nuke saiotxoren bat edo beste neure aldetik. Pentsa daiteke, eta irudipen gisa azaltzen dut hemen, Hiri-goytiren lehen lerroak (*Nuper eras uiridi redimitus tempora lauro*) eta hor aipatzen den erramu edo ereinotzak ez ote dezakeen adierazi dotoretzaren ohorea (dotoreak, dakidanez, bonetazaleagoak badira ere). Eskaintzaileen hitzetan bada, halere (niri horrela iruditzen zait bederen), arruntzia ez den gogoeta: olerkaritzak, jakiteak, badu bere merezimendua, baina merezimendu hori hutsaran hurrena da Lapurdiko marinelei, itsaso hondargabearen axalean dantza irristakorrean dabiltzanei, eman dien ibilgailu seguruagoaren aldean. Eta ontzien hobekuntza horretarik ez zuten probetxu itsastariak baka-rrik ateratzen; ateratzen ere zuten lurretik, zertan lehorretik, mugitu gabe irabaziak bil zitzakeen burjesak, merkatariak eta ofizialeak. Horrela delarik, eta Altunaren itzulpenari natzeko, horra non duzuen aitor garbia nola, besteak beste, gizonak lanaren, arriskuaren eta jakitearen podorioz eskura ditzakeen etekinak. Jakitea ez da hor jakite soil, apaingarri eder bezain hutsal: hortaz gainera ere bada, ordutik aurrera ederki ikusi zenez, inguruko mundua menderatzeko gizonak erabil dezakeen lagunik indartsuena.

Bukatu behar eta, hitz bi esango nituzke Axular Etxeberriren parean jartzeko. Ez dut dudarik egiten, lehen esan bezala, honen kantu-lana eder-lana ere badela zatirik egokienetan, eta ez dira horrelakoak eskas. Badirudi, halaz guztiz, badela alde larri *Manual*-aren lehenbizikotik bigarren partera:

hemen, bigarren honetan datoz, egileak berak dioenez (*Guiristiño commun batec*) *errateco lituquen halaber othoitiz guehienac*.

Hemen azaldu nahi nukeen arrazoibidea, laburki baino laburkiago, haxe litzateke. Axularrek, hitzez-hitz hartzen badugu dioena, ez zuen “liburutto haur, letratu handientcat eguiten. Eta ez choil deus eztaquitenentcat ere”. Horien artean, ordea, *euscariric baicic etciaquitenac* zituen begiz joak. Eta hona ondorioa: Axularrek irakurtzaileentzat idatzi zuen, irakurtzen zekitenentzat (holako egia biribilak ergelkeria badirudi ere), beren ahoz ez bestereenez irakurtzen. Eta irakurtzaile horien artean baziren, bat baino gehiago, erdararik ez zekitenak. Bestalde, eta oro har egingo genuke aski ugari aurkitzen zela horrelako jendea XVII. mendeko Lapurdin, batez ere lurrian bizi ziren laikoen artean. Begien bistan dagoela iruditzen baitzait ez zela Axular lehenbizikoz behintzat beretarrekin ari, otsoak eta otsokiak duten ezinikusi ezagun hargatik, behar bada.



Koldo Mitxelena, Patxi Altuna jaunaren Euskaltzaindian Sartze hitzaldiari erantzunez (Azpeitia, 1981-I-24)

Etxeberri, berriz, bigarren partean batez ere, ez da bertsotan ari (hori dio Oihenartek ere) atseginago zaiolako mintzamolde hori. Berak aitortzen duenez *jakiara* mintzatu da horrela, deliberatuki:

*Hartaracotz iaquiara diat versus eçarri
Lasterrago ikhas eta maizago aipha garri,*

eta aurreraxeago:

*Nola cantac maiz baitire munducoen ahoan,
Hala cantez orhaituric, maiz cituzten gogoan.*

Bestela esan, letrarik ezagutu gabe, irakurtzen jakin gabe, *buruz* ikas ditezke otoitzak, are errazago otoitz horiek bertsutan ezarriak daudenean.

Filologia gora eta filologia behera aritu garenez gero, badirudi, azken lore-xorta gisa, filologizale eta ez hain filologizale direnen arteko eztabaidaz nik ere neure iritzia agertzea. Idazle eta euskaltzain ezagun batek aspaldi ez duela esan digu, Euskaltzaindian, beste Akademietan ez bezala, filologoak ageri direla (garela?) nagusi literaturan, hitz lauz nahiz neurtuz, kreatzaile direnen aldean.

Horrelako gauzak ez dira ongi eta zehazki ez neurtzen ez pisatzen. Esango nuke, hala ere, istilu hori ez dela lehen aldiz (ai, hor sortu balitz!) Euskaltzaindian sortu. Horrelakorik entzuten da Real Academia Española-ri buruz ere eta Frantzian, zakurrak oinhutsik dabiltzanez, lelo hori entzuna dute.

Altunarena, jomuga aldatuz, berrituko nuke hemen. Euskaltzaindian ez da filologo uholderik izango berehalakoan: guttiegi daude, izatekotan ere. Ez dut ere uste kreatzaile gehiegirik erakuts dezakegunik. Euskaltzaindiko eta Euskaltzaindi inguruko guztiok kreatzaile *ala* filologo bagina, gaitz erdi. Zer egin, ordea, horrenbeste kreatzaile *eta* filologo bezala agertzen direlarik? Ez dakit, gainera —nik baietz esango nuke—, ez ote den orain eta ez ote den lehen izan Euskaltzaindiaren inguruan ez kreatzaile eta ez filologo denik ez izan nahi duenik. Ametsak, Homerok zioenez, bi ate ditu; zeruak, berriz, eta Xenpelar hartzen dut lagun, hamabi omen. Hain gauza erabakia ote da Euskaltzaindiaren atarian zabalik dauden ateak bi bakarrik direla?

**FRANCISCO ONDARRA JAUNAREN
EUSKALTZAINDIAN SARTZEA**

FRANCISCO ONDARRAREN EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Altsasuko Kaputxinoen Ikastetxean

Altsasu, 1981, Martxoak 22

Fr. Luis Villasante

Euskaltzainburuaren hitzak:

1. Euskaltzaindiko Jaunak
2. Aita Rufino Grandes, Fraide Kaputxinoen Probintziala
3. José Miguel Ondarra Bakaikuko Alkatejauna
4. Jaun-Andreak:

Gaur Euskaltzaindiak batzarre agiria eta ospetsua egiten du hemen, Altsasuko Aita Kaputxinoen Ikastetxe honetan.

Zergatik eta zertarako den batzarrea guztiok dakizute. Aita Frantzisko Ondarrak bere Euskaltzaindian sartzea ospatzen duelako.

Aita Frantzisko Ondarra Euskaltzaindian hutsarte bat betetzera dator: Aita Polikarpo Iraizozkoak utzitako hutsartea betetzera. Ongi etorri amoltsua eta zorionik beroena eman nahi dizkiot. Ikerlari trebea da Aita Ondarra. Beronen etorrerak esperantza handi bat pizten du Euskaltzaindian.

Bai Aita Iraizoz eta bai Aita Ondarra, bi-biak Kaputxinoak izanik, eta biak nafarrak, zilegi izan bekit hizño bana esatea Aita Kaputxinoek euskal arloan egin duten lana eskertzeko eta Nafarroak euskal harrobi den aldetik guretzat duen aparteko garrantziaz.

Kaputxinoak eta euskara

Nola hitz labur batean adierazi, ordea, Aita Kaputxinoek euskararen alde burutu duten lana? Badakit izen asko eta asko utziko ditudala aipatu gabe. Barka. Baina dena esatetik deus ez esatera bada tarte bat, eta zerbait esan behar da inolaz ere. Eta zerbait hori esateko gaur da une egokia.

Guztiok dakite Kaputxino nafar bat dela gaur Euskaltzaindian dugun Euskaltzaindi zaharreko testigu bakarra: Aita Intza'r Damaso.

Gaur hemen egiten den bezalako festa edo ospaketa egin zen Elizondoko udaletxean 1921. urtean, Urtarrilaren 27an. Bai. Orduan egin zuen Aita Intzak bere Euskaltzaindian sartzea. Haren sarrera hitzaldirako gaia haxe izan zen: “Nafarroako aditz laguntzailea”.

Ordutik hona ur handiak eta baita uholdeak ere pasatu dira zubi azpitik. Aita Intzaren bizitzeak gora-behera asko ezagutu ditu geroztik, baina bera beti egon da leial, orduan hartutako bokazioari beti erantzun dio zintzo. Haren lan guztiak ez noa aipatzera, baina bai batzuk: *Nafarroako euskal esaera zarrak*, “Larraun eta bere euskalkia”, “Burundako euskalkia”, *Kristau Ikasbidearen Azalpena*, etab. Gainera, zenbat lan ez ditu agertu *Euskeran*, *Riev-en*, *Zeruko Argian*, *Euskal Esnalean*, *Irugarrengo Prantziskotarra*-n, etab. Eskerrik asko, Aita Intza!

Euskal-Herria Iparraldean eta Hegoaldean bizi da, eta Kaputxinoek bietan izan dituzte euskaltzale sutsuak. Iparraldean gogoangarriak dira Aita Eusebio Larresorokoa, *San Frantses* aldizkariaren sortzailea, eta Aita Blas Mendiandokoa.

Hegoaldean, berriz, izen mordo luzea aipatu beharko genuke. Eskoria-tzar Aita Meltxior, Aita Elizondo, Arrigarai, Lezo, Ayengiz, Eusebio Etxalar-koa, Oyeregi, Larrañaga Aldabako Apezpikua, Loramendi, Aita Bera, Aita Donostia, Diego Altzakoa, Ataño Txantxangorri kantaria. *Zeruko Argia* aldizkaria, euskara hutsez hemen Hegoaldean ateratzen ziren aldizkarietan zaharrenetakoa, zaharrena ez bada, Aita Kaputxinoek sortua da, eta, esan nahiko balu, zerbait esateko luke hortaz Aita Intzak.

Gaur bizi direnen artean, berriz, hor dira Aita Jurgi Riezu, Aita Yurre, Ataun, Gaztelu, etab.

Gaur berriz ere Euskaltzaindian Kaputxino bat sartzen delarik, hortik aitzakia hartuz eskerrak eman nahi dizkiot Kaputxinoen Ordenari. Euskaltzaindiko izendapenetan jartzen den esaldia gogoratuko nuke: Izan daitezela hitz hauek orain arte egindako lanan pozgarri, eta etorkizunean egingo direnen pizgarri...

Nafarroa, euskal harrobi

Aipatu ditudan jaun horietarik asko eta asko nafarrak dira. *Nafarroa*, *euskal harrobi*. Oker ez banaiz, horrela du izena hortik dabilen liburu batek.

Eta bai, halaxe da. Gauza hauetan zerbait dakien bati entzun diogu behin baino gehiagotan Nafarroa dela euskal lurretan gutien aztertutik den eskualdea, anitz euskara moeta desberdin dituen, eta hizkera berezi horien ondasunak jasorik gabe eta ongi ikertu gabe dauzkana. Eta larriago dena: hizkera horiek ardura hil zorian daude. Hemen du Euskaltzaindiak egiteko bat guztiz premiatsua, geroko luza ezin daitekeena.

Egia da orain baino lehen ere egin dela zer bait. Bonaparte Printzeak eta haren lankideek Nafarroako euskararen ikerketari ekin zioten. Berdin Kanpionek ere. Ateraberri ditu Pello Salaburuk Bonparteren aginduz Etxenikek Elizondoko euskararen burutu zituen lanak, baina beste asko eta asko argitara gabe daude oraindik Iruñeko Diputazioan. Azkue handiak ere lan galanta burutu zuen Erronkariko euskalkia, Aezkera etab. aztertzen. Gure egunotan Aita Kandido Izagirrek bilketak egin zituen Erronkarin, Ultzaman eta hemen Altsasun. Apezetxea jaunak ere Elkanoko Lizarragaren edizioa eskeini digu, hegoaldeko goi nafar euskalkia ezagutzeko guztiz interesgarria.

Gaur Euskaltzaindian hartzen dugun euskaltzain nafarra, Aita Ondarra, trebea eta aditua dugu Nafarroako euskarari dagozkion gaietan. Eta berdin Satrustegi, Izeta, Ana Mari Etxaide, Oskillaso etab. Atzerritar euskalariak ere Nafarroa ez daukate ahazturik: Geneviève N'Diaye, Bretschneider, Holmer eta beste, hemen ibiliak dira.

Baina oraindik asko dagoela egiteko, esan behar.

Langile berriak eta ongi prestatuak behar ditugu. Hain zuzen, langile berriak prestatu eta eskolatzeko egingo da heldu den hilean Dialektologi ikastaro bat, Euskaltzaindiak antolatua; gainera, gaiotan espezialista diren irakasleek emango dute ikastaroa.

Herriko hizkerak, tokian tokiko hizkerak, diren bezala, zehatz-mehatz jaso nahi dituztenen zerbitzutan antolatzen da ikastaro hau. Herriko hizkera ongi jasotzea ez da uste ohi den bezain gauza erraza. Prestaera bat, oinarriko eskola bat behar du horretan ibiliko denak, eta, hain zuzen, horretarako izango da ikastaroa. Gainera, saio honek beste xede bat ere badu azken helburutzat: Euskararen Atlasa martxan jartzeko bidea urratzea. Euskararen Atlasa! Horra amets bat haundia eta zaharra, orain arte, baliabide eta laguntzen eskasiaz, Euskaltzaindiak sekula burutu ezin izan duena. Orain zorionean badirudi ordua heldu dela asmo hau ere mamitu eta egia bihurtzeko.

Guztiona eta tokian tokikoa

Euskaltzaindiari maiz aurpegira bota izan zaio euskalkien eta herriko euskararen aurka dagoela. Euskara batuaren alde denez gero, herriko euskarari gibela eman diola, etab. Baina hori ez da hala. Euskaltzaindiak uste du bata ez duela bestea kentzen. Izan ere, guztion euskara eta tokian tokikoa ez dira elkarren etsai. Aitzitik, bata bestearen eske eta elkarri deika daudela esan genezake. Euskaltzaindiak badaki, euskara salbatuko baldin bada, batu antzeko euskara molde bat beharrezkoa dela, batez ere irakaskuntza eta idatzizko zeregin batzuetarako. Baina badaki, baita ere, ondasun baliozkorik anitz dela herriko euskaretan eta euskalki literarioetan, eta ondasun horiek, ahal dela, jaso, bildu eta baliatu behar direla. Bi ekintza hauek ez doaz bata bes-

tearen kontra, alde baizik; eta biak euskararen onerako izango dira, gauzak behar bezala eramaten badira, behintzat.

Esan dezadan, bukatzeko, gaur Euskaltzaindian sartzen den euskaltzain berriak bultzada handia egin diezaiokeela Nafarroako euskararen ikerketari. Hala izan dadila!

* * *

En atención a los que ingnoran el euskara diremos dos palabras en castellano para explicar el sentido del acto que estamos celebrando.

El P. Francisco Ondarra, Capuchino, natural de Bacaicoa, pronuncia hoy su discurso de recepción en la Real Academia de la Lengua Vasca "Euskaltzaindia". Con este motivo la Academia celebra hoy sesión pública en este colegio de los PP. Capuchinos de Alsasua. Al recipiendario contestará el Sr. Académico D. José M.^a Satrústegui, Secretario de la Academia y académico de número por Navarra.

El P. Ondarra sucede en la Academia al académico fallecido P. Policarpo Iraizoz. Por ser ambos Capuchinos y ambos navarros, en las palabras que hemos pronunciado en euskara hemos recordado brevemente la labor que los PP. Capuchinos han realizado en pro del euskara y de la cultura vasca y nos hemos referido también a la riqueza singular que atesora el euskara de Navarra, riqueza que no ha sido aún debidamente explorada, a falta de investigadores (aunque no han faltado precursores, como el Príncipe Bonaparte, Campión, Azkue, etc.)

Nos hemos referido también al interés que tiene la Academia por preparar personal adecuado y capacitado para estos trabajos de Dialectología.

Finalmente, hemos dicho una palabra en respuesta a una objeción o reproche que frecuentemente se le dirige a la Academia diciendo que ésta, preocupada por la formación de un euskara común para la enseñanza y para ciertos usos escritos, descuida la causa de las hablas populares, de los dialectos, etc. Hemos respondido a esta objeción diciendo que, al contrario, estas dos preocupaciones —la de la lengua común y la de los dialectos y hablas locales— no se excluyen mutuamente, sino que se atraen entre sí y se complementan, y que la Academia propicia la creación de un euskara común pero no por eso deja de prestar su atención al estudio y cultivo de los dialectos y hablas locales. Como dijo Jesús en cierta ocasión, "Había que hacer lo uno y no omitir lo otro".

POLIKARPO AITAK ZITUEN EUSKAL ESKU-IDATZI ZAHARREN AURKEZPENA

Altsasu, 1981-III-22

Francisco Ondarra

Aita Villasante Euskaltzainburu jauna!

Euskaltzainkideok!

Jaun-andere guztiok!

Agur!

Egoaldeko Nafarroa-k, azkeneko denbora hauetan, lau euskaltzain oso izan ohi ditu. Orain urtebete hauek ziren bertako euskaltzainak: Intzar Damaso A., kaputxinoa, Anjel Irigarai Jauna, sendagilea, Jose Maria Satrustegi, Apaiz Jauna eta Iraizoz-ko Polikarpo A., kaputxinoa. Azkenekoa bitarte honetan hil eta hemen hitz egiten ari zaizuen hau autatu zuen Euskaltzaindiak, San Inazio egunean Bidasoa ondoko Bera-n, hutsune hori betetzeko.

Polikarpo Aitari buruz zerbait esan nahi nuke lehenbizi. Orain bildurik gauden etxe honetan asi zen kaputxino-gai bezala prestatzen; eta urteak joan ala, euskara aztutzen joan zitzaion, Hondarribi-ko ikastetxean berriz ikasteko. Hemeretzi urte zituela agertu ziren bere lehenbiziko bertsoak —1916. urtean— *Irugarrengo Prantziskotarra* izeneko aldizkarian, hortik aurrera bertso eta ipuin asko egingo zuela, eta libururen bat ere bai. Gainera, gauza asko utzi du argitaratu gabe.

Bainan ba-dago beste alderdi bat Polikarpo Aitarengan. Bere bizitza luzean eta berak ez zekiela ez noiz, ez nundik eta ez nork emanak, bildu zuen sermoi pilo haundi bat, hemezortzi eta hemeretzigarren mendeetako predikuak, bai bizkaieraz, bai gipuzkoeraz eta bai Bidasoa aldeko ta Lapurdiko euskaraz ere. Berari esker, ailegatu zaizkigu baita ere Damaso Aitak Goñibar-en aurkitu zituen predikuak eta Elkano-n aurkitutako Joakin Lizarraga-ren bi liburu.

Polikarpo Aitak zituen euskal esku-idatzi zaharren aurkezpena izango da gaurko hitzaldi honen egitekoa.

Bizkaieraz 76 prediku edo sermoi eta *Peru Abarka*-ren zati bat utzi dizkigu; gipuzkoeraz, 19 sermoi eta *Zegama-ko Dotrina* bat; Bidasoa aldeko euskaraz eta lapurdieraz, 49 prediku edo dotrina; Goñibar-en aurkitutako sermoi eta beste 55 dira. Aipatuko ditugu, baita ere, Lizarraga-ren bi liburuak. Eras-kin bezala, eta lanaren osagarri, emango dugu Jorge Aitak bildutako agirien berri ere, eta Lekaroz-ko Liburutegian dauden esku-izkribuena.

A. Bizkaierazko agiriak

a) Aita Añibarro-renak.

Hogei-ta-lau (24) dotrina dira eta “Egempluac” izeneko orrialde batzuk, dotrinen artean ipiniak. Erabili duten paperaren luzera-zabalera hau da: 220/224 luze eta 160/165 zabal. Lehenbiziko hogei dotrinak XX. mendeko esku batek aldatuak dira, eta s ta z nahasten ditu; azkenekoak hemeretzigarren mendeko asieran, Añibarro oraindik bizi zela, hala uste dugu, izan ziren idatziak eta s ta z jatorki daude. Bestalde, Aita Añibarro dela beren egilea hemezortzigarren dotrinan ageri da, laugarren orrialdean; eta Añibarro Aitak bere eskuz idatziak Arantzatzu-n gordetzen dira.

Hona hemen dotrinen izenburuak:

1. “Dotrinea / Pecatuen circunstanciac, edo lagungarriac, eta beste jaquin bearrac”.
2. “Dotrinea / Jaungoicoaren legueco lenengo Mandamentua / Jaung.^a maite izatea gausa gustien ganean”.
3. “Dotrinea / Fede santuaren ganean”.
4. “Dotrinea / Esperanzaren ganean”.
5. “Dotrinea / Caridadearen ganean”.
6. “Dotrinea / Juramentuaren ganean”.
7. “Dotrinea / Beste bat: Juramentuaren jarraia”.
8. “Dotrinea / Birao, ta madaricaciñoaren ganian”.
9. “Dotrinea / Beste bat: Biraoaren ganean”.
10. “Dotrinea / Beste bat: Biraoaren ganean”.
11. “Dotrinea / Boto edo Promesaren ganean”.
12. “Dotrinea / Beste bat boto ta promesaren ganean”.
13. “Dotrinea / Jaung.ⁿ legueco irugarren mandamentua. / Cer dan, ta certan emon bear direan Domeca ta Jaiegunac”.
14. “Dotrinea / Jai eguneco gaistaqueriac: eta cer eguin bear dan jaiac ondo gordeteco”.
15. “Dotrinea / Jai eguneco bear eguitearen ganean”.
16. “Dotrinea / Jai eguneco meza entzutea”.
17. “Dotrinea / Ce gauza miragarria dan Meza Santea”.
18. “Dotrinea / Mezan esan ta eguiten diran gauceen iracasteac, ta adierantzac”.

19. "Dotrinea / Mezentzuteagaiti Jaung.^c eguin dituan mirariac".
20. "Seme alavac euren gurasuai zor deuten maitetasuna."
- 20 bis. "Laugarren mandamentua. / 46 Dotrinea. / Seme alabac euren gurasoi zor deuten maitetasuna". (Lehengoa bera da).
21. "47. DOTRINEA. / Semeac bere gurasoi zor deuten socorrua, ta lotsa".
22. "48. DOTRINEA. / Semeac euren gurasoi zor deuten obediencia."
23. "Egempluac" (Dotrinetan erabiltzeko dira).
24. "49. DOTRINEA. / Gurasoac semeai emon bear deutesen gorputz-aciera".
25. "50. DOTRINEA. / Gurasoac euren semeai emon bear deutesen aciera espirituala".

b) **Fr. Miguel de San Francisco** eta beste zenbaiten sermoiak 27 dira. Predikalari honek 19 platika utzi dizkigu, asi 1778. urtetik eta 1808. urterainoko tartean, Markina, Lekeitio, Gernika eta Mundaka-n predikatuak. Egia esan, ehun platika eta gehiago idatzi zuen. Paperaren luzera-zabalera 220 eta 150 mmkoa da gutxi gora bera.

Fr. Migel-ek euskara ona erabiltzen du. *Hiato* delakoa austeko joera agerian dago bere lanetan, eta horrela aurkitzen dugu *Magestadia, galdubac, andiyagaz* (*i* grekoarekin). Genitibo edutezkoa askotan laburtu egiten du: *Jangoicoen* eta *Jangoicoaren* ikus daitezkeela.

Frater Franciscus de Hormaechea, latinez izenpetzen du bere sermoi bakarra, dugu beste izen berri bat bizkaierazko idazleen artean. Euskara eta gaia interesgarriak; eta "hiato"-a austen honek ere, baita *s* eta *z* nahasten. Hemeretzigarren mendekoa da.

Sermoigileren izenik gabeko beste predikuetatik bat aipatuko dugu, 21a. Bertan, *u* ondoko *a* aldatu eta *e* bilakatzen da: *burube, desiertuben* etab.; hia-toa austen da eta *s/z* gaizki erabiltzen. Erantsi behar dugu, hia-toa denek austen dutela.

Atal honetan aipatuko dugu Moguel-ek idatzitako *Peru Abarka*-ren zati bat, eskuz idatzia. Cazalis, Markina-koak, egindako aldapena da, 2. elkarriketaren puska bateraino ailegatzen dela. Joan den mendekoa daiteke izan. Durango-ko argitaldian, 1881. urtean egina, 83. orrialderaino hartzen du.

Fr. Miguel eta besteen hitzaldien izenak:

1. "Miserere del año de 1778". Fr. Miguel de San Francisco: Markina, Lekeitio eta Mundaka-n, 1778-1807.
2. "Sermon de san Ramon. / año de 1781". Fr. Migel: Gernika, 1781.
3. "Platica del 6.^{to} Mandam.^{to} / año de 1786". Fr. Migel: Markina.

4/5. "Platicas 7.^a y 8.^a de los Articulos, Padeci6, y resucit6. / a6o de 1787". Fr. Migel: Markina, 1787-1801.

6/7/8. "Platicas: Que es Iglesia: La Comun,ⁿ de los SS.^{tos}, y Perdon de los Pec.^s / a6o de 1787". Fr. Migel: Markina, 1787-1801.

9/10. "Platicas 14. y 15. Resurrec.ⁿ Vida Perdur.^e Y Orac.ⁿ en comun. / a6o de 1787". Fr. Migel: Markina, 1787-1801.

11/12. "Platicas, Salve, y Madam.^{tos} en General Para Marquina / a6o de 1788". Fr. Migel: Markina, 1788-1793.

13/14. "Platicas 42. y 43. de las obligac.^s de criados; y casados. / a6o de 1789". Fr. Migel: Markina, 1789-1808 (eta Mujika, 1854).

15/16. "Platicas 50. y 51. del 6.^{to} mandam.^{to} Palabras, y Vistas &. / a6o de 1789." Fr. Migel: (?), 1789-1795.

17. "Platicas 60. y 61. Compendio de los 10. Mandamientos: y / el Primero de los cinco, del sacrificio de la Missa. / a6o de 1789". Lehenbiziko platikaren zati bat besterik ez dago. Fr. Migel.

18/19. "Platicas 110. y 111. de la 2.^{da} y 3.^{ra} Bienaventuranzas / a6o de 1782". Fr. Migel: Nun (?), 1792-1799.

20. "Pasio Dni nri Jesu Christi secundum quator Evangelia". Bekatuaz ari da. Aulestia, 1833.

21. "Para el primer Domingo de Quaresma 1838".

22. "Santa Agueda". 1852 inguruan, Mañaria-n (?).

23. "Dominica 7. post Pent.^m / De los padres". 1852 (?).

24. "Los Pecados que acarrea la Ociosidad". 1854 (?).

25. "Sermon del 1.^o Domingo de Cuaresma". XIX. mendekoa.

26. "Serm.ⁿ de la Cruz de Mayo". Frater Franciscus de Hormaechea. XIX. mendekoa.

27. "Sermon de S.^{ta} Agueda en / Bascuence". XIX. mendekoa.

28. (Peru Abarka-ren aldapena). Estalkian honela dio: "Esta copia es de Cazalis / el de Marquina".

c) Hirugarren pilo batean 25 sermoi daude, nork idatziak izan ziren ez dakigula. Hemezortzigarren mendeko bukaera edo hemeretzigarrengearen asierakoak izan daitezke. Horietako bat, laugarrena, Dima-n izan zen predikatua eta predikalaria karmeldarra da, honela bait dio: "Ea bada *Dimarrac* seuvecana viortuten dot, eta seuvecas dot neure converzacino gustija" —4. sermoi, 8. orrialde, 2. parrafu—, eta "*Neure Aita* S.ⁿ Eliasi" —4, 1, 1—. Beste bat dominikua daiteke izan, hau bait dio: "*Gure Aita* Santo Domingoc" —19, 12, 1—.

Euskara ona dute 3, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12 eta 25. sermoiak. Bigarren predikua interesgarria da bai hizkuntzaren eta bai oituren aldetik. Gehienetan *s* eta *z* nahasten dira. Lehenengo predikuan ez dago hiatoa austeko joerarik, beste guztietan bai ordea. Lehenengo horretan *i* ta *u*-ren ondoko *a* bokalea *e* bilakatzen da, eta genitibo edutezkoa laburtzen; bestalde, *j*-ren ordeztu *y* erabiltzen da: *yoan*, *yarraituco*, *Yente*, *yaquin*, etab.

Nork idatziak izan ziren ezin dugu esan. Bakarrik, bigarren eta hirugarrena esku batek eginak direla; beste guztiak, prediku ainbat eskuk idatziak.

Paperaren luzera-zabalera: 220 eta 150 gutxi gora bera.

Beren izenak hauek dira:

1. "Santiago Apostol".
2. "Bostgarren mandamentuan ganeco dotrinia".
3. "Pecatu venialen ganeco dotrinia, Purgatorioco / Animen Sermoia eguiten daneraco".
4. "S.^{us} Paulus".
5. "S. Martin Obispo".
6. "Sermon / Para el dia de la / Resurreccion".
7. "Sermon en bascuenze sobre el corto numero de los que se salvan".
8. "Platica para Dom. 5., de Cuaresma". Badaiteke 1847goa izatea.
9. (Ongi ala gaizki komekatzen denaz).
10. "Haec est victoria quae vincit mundum fides nostra". Fedez.
11. (Jesukristo Eukaristia sortzen).
12. "Sermon de la Dom.^{ca} 3 de Quaresma / en lengua Bascongada / vesperè / Sobre no dilatar la penitencia".
13. "Santiago Apostol".
14. "Sermon en Bascuence para la segunda Dominica de / adviento y para la quinta de quaresma / sobre embidia".
15. "Dom.^{ca} 2.^a de Adviento, sobre el = / Escandalo".
16. "Domingo seg.^{do} de Adviento. / De la envidia y sus frutos".
17. "Platica de la observ.^a del Domingo".
18. "Para la Domi. 4.^a, de Sept.^{bre}, sobre los muchos / q.^e se condenan por la lujuria; sobre las pa- / labras obscenas".
19. "Rosario".
20. "Sta. Agueda". Arkatzez dago idatizirik izen hau.

21. "Sermon sobre la Comunion".
22. (Heriotzeaz).
23. (Pekatu mortala).
24. (Purgatorioko arimak).
25. "Platica p.^a la Dom.^{ca} / 21. post Pentec.^{em} / Sobre / la Obligación de / perdonar / a / los enemigos".

B. Gipuzkoerazko agiriak

Hemeretzi sermoi, bainan azkeneko biak ez daude osoak, eta Kristau Ikasbide edo Dotrina bat ditugu sail honetan.

Sermoietan zaharrena 1806. urtekoa da, eta beste guztiak ere mende horretakoak dira, uste dugunez. Paperaren neurria: 220 eta 150 mm. gutxi gora bera. Sermoigileak hauek dira:

Mekoleta-k bi (?) prediku ditu; *Fr. Francisco de Orueta*-k bat; *Urdangarin*-ek beste bat, *Segura*-n predikatua; *Fr. Manuel Ignacio de Echeandia*-k (?) bost sermoi, *Aratz*-en (?); eta *Fr. Julianus a S. Josepho*-k prediku bakar bat. Egile ez-ezagunen sermoiak ere badira.

Honako herri hauetan izan ziren predikatuak: *Errenteria*, *Segura*, *Aratz* (?) —Itxaso eta Astigarreta aldeko parrokia— eta *Alegria*-n (?), etab.

Euskara ona dute *Mekoleta* eta *San Jose*-k, baita beste zenbait predikuk ere. Bi sermoigile horiek eta beste sermoiren batek ere *s* eta *z* gaizki erabiltzen dituzte. *San Jose*-k *hiatoa* ausi egiten du, bizkaieraz bezala *zorijona* —jotaz idatzia— egiten duela. Gehienek bizkaierazko kutsua dute, eta aipatu ditugun predikalarietan *Urdangarin*-ek ez beste guztiek.

Zegama-ko Kristau-Ikasbidea —*Doctrina Christiana*— oso interesgarria dela uste dugu. 1741. urtean egina da, bertan esaten den bezala, "Cegamaco Escolan (Gaztelinaz ostein) eracusten dan moduan milla, zazpireun, eta berroguey, eta batgarren vrtean". Bere neurria hau da: 200 eta 150 mm. gutxi gora bera; 136 orrialde ditu, baten bat falta dela bukaeran. Nork egina izan zen ez dakigu, bainan izan daiteke *Martin de Vrteaga* izeneko bat bere itzultzailea —Ik. 25. orrialdean izenpea—.

Bizkaierazko euskalkiaren kutsu aundia ageri da dotrina honetan morfologian: *Aitearen* —1. orrialdea—, *esperancea*; sintasian: "Sinistu Aitea dana" —5. or.—; hiztegian: *domeca*; eta aditz-jokuetan: *ceban*.

Hona hemen agiri guzti hauen izenak:

1. "Dominica quarta / de Adviento. 1806 / Mekoleta".
2. "Domingo tercero de Adviento".

3. "Pl.^a (Platica) Mentira 21". "Fr. Fran.^{co} de Orueta 1812".
4. "Asunc.ⁿ Rent.^a 1819". Rentería, 1819.
5. "Descendim.^{to} del Señor = predique en Segura / año de 1826. / Vrdangarin (eta errubrika)".
6. "Platica ——— 45 / Dotrina ur bedeincatu, candela ta ezquilla edo campaeñ gañean". Fray Manuel Ignacio de Echeandia, Arazko "Vic.^o Int.^{no}" 1837. urteko apirilaren hogeita-hirugarrenean. Ez nago seguru bera ote den egilea.
7. "Platicas o Sermon / Propositos". Lehengoa bera.
8. "Platica ——— 2.^a / Domingo 2 de Aviento (sic) sobre el Escandalo No". Lenengoa bera.
9. "Platica ——— 3.^a / Dom.^{ca} 3.^a del Adviento No". Lehengoa bera.
10. "Platica ——— 40 / Pensam.^s y Palab.^s feas O". Lehengoa bera.
11. ("Aingueruen gañean").
12. "Sermon de la eternidad". Fr. Julianus á S. Josepho.
13. "Sermon / del Corazon de Jesus". Arkatzez dago idatzirik titulua; barruan gauzarik frango bizkaierara aldaturik.
14. "Domingo de Resurreccion".
15. (Eukaristiaz). Ikusi urrengoak ere; denak batek eginak dira.
16. "Platica sobre la comunión / espiritual. / (errubrika)". Alegrian predikatua izan daiteke (Ik. 4. orrialdea). Ik. aurrekoa.
17. (Eukaristiaz). Ik. aurrekoak.
18. (Jaunartzeaz). Ik. aurrekoak. Ez dago osorik.
19. (Aitorpen edo "confesioa"-z). Ik. aurrekoak. Orrialde bat.

C. Bidasoa aldeko eta lapurdierazko agiriak

Agiri hauek 49 sermoi dira, horietatik 31 Bidasoa aldeko euskaraz delarik, eta beste 18 lapurdieraz. Paperaren luzera-zabalera 150 × 110 da guztietan. "Filigrana" delakoa mota askotakoa da: BAY, Ragueta, Bagneres Gior Magnani, TOLOSA DE G^A, P B (eta bi iduri), Al Masso Gior Magnani, Uranga (eta honen azpitik T G).

Noiz izan ziren predikatuak? Zaharrena 1831. urtekoa da, Irun-en predikatua; eta berriena, 1861. urtekoa edo.

Nun izan ziren predikatuak? Ageri diren herrien izenak hauek dira: Arizkun, Arrangoitze, Bera, Beronitz (?), Hendaia, Henuritze (?), Etxalar, Irun, Oiartzun eta Uztaritze-n eta ez dakigu nungo monjetan.

Nork idatziak izan ziren ezin dugu esan, baina uste dugu kaputxinoak izan daitezkeela. Horietako batean, Irun-en predikatzeko egindakoan, hau irakurtzen dugu (sartu han) sermoiaren ondotik dakarren NOTA luze batean: "Otras barias cosas se hallan en el archivo de nro convento de Fuenterrabia: Como milagros, ataq." —2. sermoia, 19. orrialdea—. Guztira, hamar bat euskal idazle ez-ezagun ditugu, pentsatzen dugu; eta esan daiteke mugaz alde honetakoak direla, euskaraz ez dauden gauzak gaztelaniaz bait daude. Gainera, honako hauek arkitzen ditugu: "Fue escrito en Francia y predicado á los Franceses en su Dialecta (sic) —4. sermoia—, eta "Estas doctrinas estan escritas en la Dialecta labortana" —44. sermoia—.

Idazkeraren aldetik, prediku askotan *-tt-* (*t* bikoitza) erabiltzen da frango, eta horietan beretan *-r-* bakuna *-rr-* bikoitzaren orde. Esakeraren aldetik, guztietan "hiato"-a austeko joera argi ageri da; baina azkeneko bietan oso gutxi.

Morfologiaren arloan hau esan dezakegu: genitibo edutezkoa pluralean (*h*)*oquin* 'hauen' izaten da askotan; eta irakurtzen dugu baita ere *Gizonequin-zat* 'gizonentzat' —1. sermoia, 4, 3—, *maldadiaquiña* 'maldadeena' —8. sermoia, 3, 3—, *Elicequin* 'elizeen' —12. sermoia, 13, 2—. Sintasiari gagozkiola, berriz, prediku guztietan *-a* mugatzailea gorde egiten da aipatuko dugun sintagma hau bezalakoetan: "templu sagraduba onetan" —2. sermoia, 1, 1—. Fenomenu hau, salbuespen bakanen bat ez beste guztietan, ondotik erakusleren bat datorrenean gertatzen da, salbuespen bezala honoko hau erakusten dugula: "arpeguiya ariñarequin" —3. predikua, 10, 1, 12—.

Esan dugun bezala, Bidasoa aldeko eta Lapurdiko euskaraz daude dotriak eta beste. Gerta daiteke sermoi bat Uztaritze-n eta Etxalar edo Oiartzunen erakutsia izatea. Bestalde, monjei predikatuetatik sei lapurdieraz daude eta bat Bidasoa aldeko euskaraz: 1859, 1860 eta 1861. urtetan emanak.

Nungo monjak ziren eta nun bizi ziren? Uste dugu Arizkungoak izan daitezkeela, "clarisas" direlakoak. Itzaldi horietako bat, 30a, "Santa Clara de Asis. Virgen" izenekoa da. Esan behar dugu ere, prediku hauek ez zirela egin monjei predikatzeko, baizik herriren batean, eta gero monjendako aprobeitatuak.

Buka dezagun atal hau Nafarroa-rekin zer ikusirik daukan berri batekin. Prediku baten izena hau da: "San Francisco Xavier", Oiartzun-en, 1834. urtean eta bertan ikusten dugu predikalariak badakiela Nafarroa Euskal-Herria dela, honela bait dio: "Jayo cela (San Frantzisko Xabier) gure Españian, vscal Errian, Nafarruan" —15. sermoia, 1, 15-16—.

Sermoi, prediku eta dotrinen izenak hauek dira:

a) **Bidasoa aldeko euskaraz.**

1. "Natividad de N. Señora". Irun, 1831.
2. "El Nacimiento de Maria". Irun, 1832 (?).
3. "Se muestra / La constancia de S. Vicente / Diacono". Hendaia, 1832.
4. "Mandato". 3. sermoiarena bezalakoa da bere idazkera.
5. "Pecado". 3. sermoiarena bezalakoa.
6. "Pecado mortal Dotrina 2.^a". Lehengokoak bezala.
7. "Alma". Etxalar (?), 1833. Lehengokoak bezala.
8. "Despedida". Berdin.
9. "El que calla pecado por vergüenza". Etxalar, 1836; Oiartzun, 1837 (?); Beronitz (?), 1848, eta Uztaritze, 1848. Idazkera bera 14. sermoia arte.
10. "De enemigos". Etxalar (?), 1841 (?) eta Oiartzun (?), 1844.
11. "La pasion del Señor segun San Juan Evang.^a". Etxalar (?).
12. "S. Mart.ⁿ Obispo / Dios".
13. "Basta uno para que Dios castigue a muchos".
14. "Desonestidad".
15. "San Francisco Xavier". Oiartzun, 1834. Idazkera bera 28a arte.
16. "La purisima Concepcion". Oiartzun, 1834.
17. "La Circuncision del Señor". Etxalar (?), 1836.
18. "Los dolos de Maria al pie de la Cruz". Etxalar (?), 1836 eta Uztaritze (?), 1846.
19. "Eternidad". Etxalar, 1836; Oiartzun (?), 1839 eta Uztaritze (?), 1842.
20. "Murmuracion". Etxalar, 1837.
21. "Comunion frecuente". Etxalar, 1837 eta Uztaritze (?), 1845.
22. "San Josef".
23. "Santificacion de las fiestas / (Dotrina 1.^a)". Oiartzun (?), Etxalar (?). *Oharpena:* Hau eta urrengo lau dotrinak "cuadernillo" batean daude.
24. "Santificacion de las fiestas / (Dotrina 2.^a)".
25. "Confesion anual / (Dotrina 3.^a)".
26. "Ayuno Ecclesiastico / (Dotrina 4.^a)".

- 27. "Diezmos / (Dotrina 5.^a)".
- 28. "Concepcion". 1854a baino lehenagokoa.
- 29. "Animas". "Vera 1836: 18 de Agosto. / Arizcun 1857. 25 de Mayo". Bere idazkera eta urrengo biena berdin (?) xamarra.
- 30. "Santa Clara de Asis. Virgen". "Monjas 12 de Agosto 1860" (?).
- 31. "S. Jose".

b) Lapurdieraz.

- 32 (1). "Materiales para el Sermon / de S. Vicente Martir sacados de / Hudri, y del P. Roche". Uztaritze, ca. 1847. Idazkera bat (?) urrengo biekien.
- 33 (2). "S. Vicente Martir". Uztaritze, 1847, eta "Predicado en Ustaritz (Francia) en / la Dialecta de alli el año 1849".
- 34 (3). "El numero delos (sic) que se salvan".
- 35 (4). "S. Juan Bautista". Uztaritze (?), 1848. "Fue escrito en Francia y / predicado á los Franceses en / su Dialecta". Idazkera bat 41a arte.
- 36 (5). "4.^{en} Mandamendua = Educacionea. / (Dotrina 1.^a)".
- 37 (6). "Amoriua. / (Dotrina 2.^a)".
- 38 (7). "Yatera emaitea. / (Dotrina 3.^a)".
- 39 (8). "Instruccionia / (Dotrina 4.^a)".
- 40 (9). "Sobre la educación de los hijos".
- 41 (10). "El Hijo Prodigio".
- 42 (11). "Muerte del Pecador". Arrangoitz (?), 1850 eta Uztaritze, 1850. Idazkera bat 47a. arte.
- 43 (12). "Pasion de Jesucristo". Etxalar (?), 1847 (?); Monjak, 1860.
- 44 (13). "1.^a Instruccion sobre la Eucharistia". Monjak, 1861. Estaliaren barruko orrialdean hau dio: "Estas Dotrinas estan escritas en la / Dialecta labortana". Dotrina hau eta urrengo hiruak esku batek idatziak dira eta laurak liburuxka bezalako batean daude josirik.
- 45 (14). "2.^a Instruccion sobre la Eucharistia. / Amor de Jesucristo, é ingratitud delos (sic) hombres".
- 46 (15). "3.^{ra} Instruccion sobe (sic) la Eucharistia. / Comunion *frente* (sic)".
- 47 (16). "4.^a Instruccion sobre la Eucharistia. / Las disposiciones necesarias para comulgar bien".

48 (17). “Ceniza”. *Henuritx* (?), 1842; *Uztaritze*, 1845 eta 1851; *Arrangoitze*, 1847; eta *Monjak*, 1859. Esku batenak hau eta urrengoa.

49 (18). “Etsaiyac”.

D. Goñibarko esku-idatziak

Goñibarko Munarriz-en arkitu ziren euskal agiriak 55 dira, bat ez beste guztiak sermoi edo predikuak. Horien berri beste lan batean eman genuen eta orain imprimategian dagon *Eusker*a-n azalduko da.

Orain hirurogei bat urte direla izan ziren arkituak eta Damaso Aitaren eskuetara ailegatuak. Gero Polikarpo Ak. gorde izan ditu.

Idatzirik dauden paperaren neurria hau da: 150 / 155 × ca. 210 mm.

Noiz izan ziren eginak? Oker ez bagaude, XVIII. mendean izan ziren eginak gehienak, zaharrena 1743. urtekoa delarik. Dudarik gabe, 23 izkribu mende hortakoak dira, eta zazpi XIX. mendekoak. Beste guztiak, 25 prediku etab., ezin esan noizkoak diren: hemezortzigarren ala hemeretzigarren mendekoak.

Jaun Jose Mogel onen eriotzaren urteurrena ospatu ez genduen ezkerro, betor orain beintzat aren jaiotzarena, eta ez bedi egun bateko oroitza utsetan gelditu. Egun bateko omenaldia aizeak eramango luke, utsa litzake.

Orain eun urte, jaio zanetik lenengoko eungarren urtean, ez zitzaion, nik dakidala, omenaldi izenekorik ezer egin. Ala ere, izenik gabeko, baiña izan aundiko omenaldia egin zitzaion. Urte-urren orren inguruan Mogel-ek idatzitako liburuak berriz argitaratu zituzten, bein eta berriz argitaratu ere batzuk, eta ez argitaratu bakarrik, bai zabaldu eta irakurri ere. Esaterako, *Eguneroko lan onak* luburuaren 5.000 ale argitaratu eta andik bigarren urterako, argitaldi osoa saldua eta agortua zegoen. Beste liburu bat, *Baserritar jakintsuaren* Eskolia G. Arrue, joan dan mende euskal-idalzerik ugarriena izan genduenak, Bizkaiko euskalkitik Gipuzkoakora itzulirik eman zigun. Urte-urren onen inguruak ikusi zuen, artean argitara gabea zen beste liburu baten argitaratzea ere. Orain eun urte Mogel-en izena eta Mogel-en euskal-lana Euskalerriaren agotan eta euskaldunen eskuetan zebillen, bere bizian baiño ezagunago eta biziago. Izenik gabeko omenaldi ederra, benetan!

Gaur, bigarren mende-urrenean, urrik emango ote diogu orduko omenaldiari? Nola nai ere, gaurko omenaldi onek zerbait esan nai du, ez degula beintzat ahaztu nai euskal-literaturaren alorreko langille on eta saiatu au. Egun onetan neri egokitu zait Mogel onen euskal-lanen berri ematea eta aiei, labur bada ere, begiratu bat egitea. Neri ezarri didate egiteko au. Ez dakit zergatik. Bear bada, Markiñan izena naizelako, eta idazle onen lan batzuk, argi-

tara gabeak eta, an ikusi eta ezagutzeko aukera izan dedalako, zerbait berri esateko gaitzat artu naute. Nik baietza eman nuen eta emen nauzute, emandako itzari erantzuten.

Eta asi nadin, Mogel-en egunetako giroari gain-begiratutxoa ematen. Juan Jose Mogel-i ez zitzaion, ez, egun gozo paketsuetan bizitzea egokitu. Irurogeita zortzi urte aietan, 1781-tik 1849-ra, zenbat gertakari bildurgarri, zenbat istillu eta zarraparra, zenbat arma-ots, zenbat gerrate, bai atzerritarren, eta bai anaiak anaiei aurka! Mogel mutil koskorra dala, or etorri dira frantzesak Bizkaiko bazterretaraño. Eta laster pakeak egiñik, Frantziatik etorritako arma-gizonak alde egin badute ere, emen gelditu dira beste asko, apaiz eta beste, Frantziatik iges etorrita. Emen bizi dira ostatuz. Mogel zarrak, Peru Abarkaren egileak, eta Mogel gazteak badakite orren berri. Euskaldunak ziran asko, Mogeltarrentzat bestaldeko anaiei euskera ezagutzeko aukera ona. Ordurik ona, bestaldeko euskal-deitura bat, Duralde, markina egiñik or daukagu bizi-bizirik gaurko egunetara.

Mogel apaiz egin daneko, orra or berriz frantzesak, eraingoan leengoan baiño bildurgarriago. Berriz ere arma-otsa, zarraparrak, sei urteko egoera beltza, apaizentzako beltzagoa. ¡Egun aietako egoera lazgarria naiko biziki jaso zuen orduko bertsolari kantari batek: “Frantzesaren mendean, / umil gaude emen, / ark Jesus dionean, / guk erantzun: amen”. Beti ez ziran, noski, Jesuska etortzen, eta erantzun gogorragorik eman bearko zitzaion.

Eta noizbaiten joan diranean, edo atzerritik etorriak atzerrira bota diranean, ez da bake onik sortu. Barruan dago gaitza. Cadiz-ko Konstituzioa dalakoak anaiei arteko borroka berriei atea zabaldu die. Euskaldunentzat txarrena, eskualde guzientzako berdintasun-legea ezarri nai du. Agur, beraz, euskaldunen legeak, agur foruak. Eta erregeak, frantzesak alde egin berritan, Konstituzio ori kendu badu ere, foruak kendu-naia, euskaldunak legeko alper-arri beraren azpian zapaldu eta berdindu naia bein eta berriz azalduko da, bein eta berriz erakutsiko du burua. Ala Riego-k piztutako matxinada ondoren, ala gero Isabelarren eta karlostarren arteko gerratean, ala berriz Espoterok agintea artzen duenean.

Gertakari guztiok ez dira gelditu Mogeltarren biotzean aztarnarik utzi gabe. Bilbon, urtero, eguberrietan kantatzen ziran kanta berrietan, eta Markinan Cadizko Konstituzioa erretzeko ospatu ziran jaietako bertsoetan foruzaletasuna, foruai eutsi bearra bizi-bizi agertzen da. Eta kanta oietako batzuk Mogeltarrek sortuak dirala badakigu /. Bat, Vicenta Mogel emakumea da, eta ene ustez, aietako batzuetatik ez zebillen urruti Juan Jose bera.

Eta bertso aietan, sendo agertzen da euskaldunen gogo.

Lenago ler egingo dozue guztijok,
guri ezarri baiño zuoen buztarrijok.

Euskaldun gazte sendo, prestu ta nobliak,
gorde gura ditubez asaben legiak...

Kinta ta miliziak lantzian ta sarri,
ez deusku euskaldunoi lan txarra ezarri.

Agur, gure Foruak, agur noblezia,
koldarturik balego emengo jentia...

Bizkaian ez da biar erbeste legerik,
geure Foru maitiak nai doguz bakarrik,

Aldendu bitez, bada, gaiztuen asmuak
eta gorde osoro Bizkaiko Forubak. (1)

Iñok gura badeusku Foruba lurpetu,
guztioz biar geunke esan: gu gara gu!

Asko zoritxarrian badira emetu,
Bizkaiak oraindiño gizonak baditu.

Bakia da guretzat doerik onena,
baiña balego iñor gura eztabena,
laster ikusiko dau buruban egurra,
eta gordeko dogu geure olla-lurra. (2)

Mutillak orretako armatara dira,
zarrak bere nai leuke, gaztiak balira.

Katalan ta Naparrak, baita arabarrak,
ditugu zorionez beti guretarak. (3)

Bertsook aski bitez, orduko giroa erakusteko. Euskaldunak euskaldun iraun nai zuten, beren euskaldun legeekin, eta beren euskerarekin ere bai. Etsaiak euskal-gogoa piztuago egin du eta euskalgogoak euskalzaletasuna, euskera lantzeko bultzada indartsuago egin.

Larramendiz gero, euskaldunen euskalduntasuna berotzen asia genuen. "Euskalerriaren adiskideak" ere su piska bat ezarri zioten berotzen asia zan giro orri. Mogel-ek urbildik ezagutu zuen Humboldt, eta aleman ori euskaldunen izkuntzaz ainbeste arduratzen ikusteak apaizgai gaztearen euskalzaletasun sendotu besterik ez zuen egin. Gero etxean zuen bere osaba, Mogel zaarra, euskera-maisurik onena eta zentzuzkoena. Zer geiago bear zuen euskalzale eta euskal-idazle ona ateratzeko? Gazterik galdu zuen, apaiz egin aurretik, osaba orren itzala, baiña ark ereindako aziak aleak emango ditu bere aldian.

(1) Constitucioeco Damiaren asmua zortzicuan (Ikus C.A.F. Mahn, Denkmäler der baskischen Sprache, Berlin, 1857).

(2) Gabonec Osaste edo Cantac Vizcaytarrentzat 1824 garren urtian.

(3) Constitucioeco Damiaren asmua...

Juan Jose ez da sartuko, bere osaba sartu zan bezela, jakintsuen ezeta-baidazko gaitetan. Ez, Mogel gaztea bere apaiztasunari, eta arimazaintzari lotuago agertuko da. Nork esan du, Eusebio Maria Azkueren bertsoetako Mogel, Mogel santua, Mogel zarra dala, *Peru Abarkaren* egilea dala? Nik uste, santu izena zeukana Juan Jose izan zala, eta ez bestea. Azkue orrek Mogel zaarra ez zuen ezagutu, Mogel bigarrena, zaarraren illoba, bai ezagutu zuen. Txaraka eskribauaa ere Juan Jose'ren egunetakoa zala entzun det nik Markiñan, Txaraka izeneko etxean bizi zana. Eta santu bezela, euskal-animen onari dagozkion liburuak idatziko ditu. Juan Jose onengan euskalzetasuna eta euskal animen ona billatu naia batera joango dira.

Eta gazterik aterako du bere lenengo liburua, 35 urte zituela, 1816garren urtean.

Bizkaiko euskalkiarentzat, urte au zorionezko urtea degu egiaz. Iru idazle agertzen dira bat batean plazara: Aita Bartolo, Markiñako karmeldarren nagusi zana, aita Pedro Astarloa, frantziskotarra, eta gure Mogel. Aita Bartolo bi libururekin dator, *Euskalerrietako dantzen gatzozpindua* eta bere *Ikasikizunen* lenengo tomoarekin; Aita Astarloak bere Berbaldien lenengo tomoa dakar, eta Mogel, Markiñako apaizak bere lenengo frutua, *Baserritar Nekezaleentzako Eskolia*, Bilbon, Pedro Apraizen molde azkijan ateratakoa. Idazle auekin azaltzen da lenengoz euskal-liberaturan sermolarien tankera, Aita Bartolo eta Aita Astarloarekin, eta lenengoz nobela-tankerazko liburua, Mogel'en liburu ori. Eta esango al det geiago? Bai, nik esango nuke urte berean agertu zala, bearbada uskeritzat joko dan zertxo bat, euskerazko lenengo Egunaria, edo Egutegia, Okondoko seme ta Abandoko aberesendatzaille izan zan Ulibarrik antolatu eta euskeraz jarria, aurreko urtean idatzia, baina 1816garrenerako argitara emana eta zabaldua, noski.

Ez al da oroigarria gure literatura urritxoan bi edo iru bide berri urratu zituen urte ori? Ez da izan, noski, egun bateko lana. Ez; frantzesaren mendean ez ziran euskaldun guztiak egon frantzesak aginduai amen esaten; batzuk illunpean, ixillean lanean ziarduten, eta orra or orain argitara agertu.

Mogel'ena, orraitio, lotsaz bezela agertu da. Idazleak ez du argi osoan bere burua agertu nai, agi denez. Bere izena bost letra nagusien azpian gorde du: J. J. M.-M. C. (Juan Jose Mogel, Markiñako Kuria). Izen osoa ez du emango bigarren argitaraldirarte. 1845garrenean, Bigarren liburua, lenengoa eman eta laugarren urtean dakar; emen osoan estali du bere izena. Egillea *Bizkaiko nekezalien adiskide bat* da. Ageri agerian dago Mogel'ek baserria biotz-biotzean daramala. Lenengo liburua baserritar nekezaleentzat egiña du, eta bigarrena, nekezalien adiskide baten izenpean ateratakoa, Jose Basozabal'en sillutegian, 1820garren urtean. Bigarren liburu au Aita Zabala Frantziskotarrak euskera garbi jatorragoan egindakotzat zeukan. Ez dakigu zer akats aurkitzen zion praille orrek Mogelen lenengo liburuari, esan zuena esateko. Bi liburuok ez dira neurri batez neurtzekoak, batez ere gaiaren aldetik. Bear bada, egilleak bigarrenean gauzak zeatz, argiago eta labor esateko ardu-

ra berezia erabili du, eta ala esaldiak argi eta beteagoak atera zaizkio. Gogozko otoitza egiteko, betiko egiak auznartzeko argibide eta gai laburrak naiko trinkoak ditu. Bertso sailik era badu, errosariokoak, kalbarioetakoak, dantza-zaleentzako eta abar. Orregatik edo, gozoagoa egiten zitzaion Aita Zabala'ri, bear bada. Baiña ez ote da izan beste zerbait aita Frantziskotar onek salatu nai izan duena? Mogel'ek leenengo idatzi zuen liburu artan euskal-aditzaren zuketa bakantxoak darabil; Zu eta oni dagozkion aditz-formak pluralean ere berdin erabiltzen ditu. Onetan aita Bartolo, Markiña-etxebarritarraren eskolakoa zala ageri du.

Ona eredu bat: "kristiñau esker deungakuak, nok egiñak zara? norenak dituzu daukazuzan bizitza ta izatia... Kristiñau zar egiazkuak: biztu zaite arren..." Bigarren argitara dian, azkenengo au "biztu zaiteze" egingo du. Nonbait olako zuketa formak, Bizkaiko bazter batzuetan bizirik zirauen oraindik. Aita Bartolo'ren liburuetan ala daude. Añibarro'ren liburuetan ez. Mogel'ek olako aditz-formei urrengo urteetan agur esan zien, ez zituen geiago erabili.

Irugarren liburu bat, liburutxo txikia atera zuen, ala diotenez, bere bizian, 1827garren urtean, liburu txikia, izenez luze samarra bada ere: "Ejercicio santua errezetako Kalbarioko estaziñoiak, Birjiña Santisisima angeruen Erregiñak irakatsi eutsena legez kristiñau fiel guztiai bere ejenpluagaz. Iru argitaraldi izan ditu, bi Mogel'en bizian, eta irugarrena lenengo mendeurrenaren inguruan. (4)

Iru liburuotatik mardulena, beteena, lenengoa du noski. Liburu onetan Joan Josek bere osaba Joan Antonioren ildoan sarturik dabillega erakusten du. Juan Antoniok, *Peru Abarka* liburuan, baserritar bat, *Peru* jarri zuen euskerarik jatorrenaren eredu eta maisu: "Catedrático de la Lengua Bascongada en la Universidad de Basarte", tituluak dionez, eta gero erderazko itzaurre luze-samar batean argiago ikusten degunetz.

Joan Josek osabaren bidea artu du. Baserrira joan da, eta baserritar bat egin, ez euskera jatorraren eredu eta maisu, kristau bizitzaren irakasle baizik. Baserritar bat irakasle, eta baserritarrak ikasle.

Baserritar ez ziranentzat ere balio bear zuen, noski; baiña Joan Josek baserritarrak izan ditu geienik gogoan, eta nekazarietzako eman du eskola ori. Zergatik nekazarietzako? Norbaitek uste izan dezake, idazleak baserri-

(4) "Ala diotenez" esan nuen. Baiña idazlantxo au Mogel'en zerrendatik kendu egin behar dalakoan nago. Ez du ageri Mogel'en euskeraren kutsurik edo antzik... Tituluan bertan ageri du ori. *Santuba* eta *ejenpluba* erabiliko zuen gure idazle onek. Mogel'ek erabili oi zuena baiño euskera baldarragoa du, gaiñera. Bestalde, titulu bera daramala, beste Gurutzebide bat ere zabaldua izan zan *Olaetxearen* argitaraldi batean, Kardaberaz aitaren *Jesus, Maria ta Joseren Doboziotik* artua. Noiz sortu da lantxo au Mogel oni ezartzea? Askok jaso dute gero uste ori (Palau, Etxegarai, Jon Bilbao). Baiña ene ustez uste okerra da, ganorazko oinarririk gabea.

tarrentzat bakarrik zeukala egokitzen euskera, baserritar ez ziranak ez zutela bear. Ez, Joan Jose'ren gogoan olako usterik ez da sortu. Berari entzun bear-ko diogu zergatik egin zuen orrela. Baserritarren maitez, baserritarrak Jainkoaren itza entzuteko aukera gutxiago zeukatela ikusi zuelako. Au jakiteko era ere kendu zaie lenbiziko argitaraldia irakurri ez dutenei. Urrengo edizioak lenbizikoaren itzaurrea, berba-aurrekoa edo aitzin-solasa kendu egin dute eta irakurleak egillearen leen-asmoa jakiteke utzi. An ikusten degu Juan Jose baserriatarrei itzik samurrenez mintzatzen, berba egiten: "Neure baserrijetako nekezale maitiak: Jangoikoak sorreratik legez zubekganako iratsi eustan etsigitasunak (atxikitasunak) txiki-txikitatit zaletu ninduban zubekaz artu-emon estubak eukitera. Izan dedilla zuen eta nire onerako". Ezin du onez ikusi baserritarrak baserritarrak ezestea, gutxi estea. Ez du baserritarrentzat esker txarreko izan nai besteasko izan diran bezala: "Euskalerriak ta baserritarrak eurak emon deutseez jakitun andiak mundubari; baiña batzuk zabaldurik euren argijak bazter andi ta ugarijetara, esan lei bakarrik aaztu zirala eureen jaiterri ta berbeetakuakaz... Dakustana da, batez bere Bizkaitarren artian, banakaren bat ez izanik, osteruntzeko jakitunak ez dirala dendatu amaren ugatzeti ikasi ebeen berbeta eder ta gozatsuban jatorrizko anaerik urkuenei liburuben bidez euren adin aberatsen ondasunak zabaltzen. Barriz, bat bakarrik ez dut aurkituten berariz baserrijetako nekezaletara zuzenduten danik. Amodijo andiarentzat naibage andiko gomuntia".

Joan Josek bide ortatik jo du, berak lenengoz. "Norbaitek asi bear dau. Ezin ukatuko dabee nazala leleengua bakarrik ta berariz liburuban zubei berba egiten. Ez al naz azkenengua izango".

Badaki, ala ere, baserritar ez diranak izango dutela liburuan zer ikasi. Onela dio: "Ez diñot baserriar ez diranak ez dabeela izango emen zer ikasirik, ezpada ez dodala berariz eurentzako berba egiten ...Nagijak ezpadira, kaletarrak dauke ere obia Jangoikuaren berba santuba sarrijago entzuteko bere ministruen agotik, ta nagijak badira, zetarako izango litzate nire liburubeta?".

Liburua egitean, orraitio, keska bat etorri zaio burura, euskaldun askoren belarriak minberatuko ez ote diran liburuko itz arrotz eta naastekuak irakurrita. Naiko negargarri ikusten du euskeraren egoera, eta ala dio: "Euskeraren zaletasun eta eraspén puska bat daukeenak negar egiten dabee gaurko egunian ikusirik erri gitxi batzubenak bakarrik aurkituten dala berbeeta eder eta munduko jakitun guztiak zurtu biar dituben au, bere billostasun, ta soiltasun garbi, argi ta miragarrian. Beste erri askotan ez dago belarririk entzuteko zelako erdera mordolluakaz ezainduten dabeen euskal-berbeetia".

Onetan izan dute errurik, bai abade jaun askok, batetik, eta eskolak, bestetik. "Parkatu daideela Bizkaiko kura jaun askok, bada eurei ezarten deutseet onetan erru andija. Erdera, latin eta beste berbeeta asko ikasten ditubee txito ondo ta garbiro, ta neke gitxi bat artu ezagaitik dagoz atzeratubak

euskeeran. Alan gero euren sermoe ta berbakuntzetan erakusten ditubee esa-kune erdaldunak”.

Eta eskolak? “Eskoletan erderia ikasteko leluak ez dau onetan kalterik gitxien ekarri. Euskeeria nastau, ta erderarik ikasi ez, au da eskolako umeetan beti ikusi dodana”.

Joan Josek zein bide artuko du euskerari dagokionez? Erdi-bidea. “Esan danetik ezagutuko da, zergaitik liburu onek urteten ez daben euskeera garbi-jaguan. Arimako ondasun ta mesediak billatzen ditut. Orretarako nai dot guztijak aitu naijeen”. Oraindik ez da euskera garbiagora jotzeko ordua etorri, baiña gerora euskerari etorkizun pozgarria ikusten dio. “Jangoikuari esker-rak, egunoro urtengo dabee orain euskeerara zaletu eta ondo ikasteko gei ugarijak” ...Eta zaletuten bagara ondo euskeerara, erro zabalak botako ditu bazter guztijetara, ta orduban urtengo dabee liburu barri euskeriaren lora ta ondasunez betiak”.

Argi dagoela uste det: Mogel’ek ez die bere leen-lana nekazariei eskeini, gure izkuntza baserrikoa eta baserritarrentzat dalakotzat daukalako. Euskal-dunen izkuntza izkuntza oso ta betetzat dauka, eta etorkizunik zoriontsuena opa eta ikusten dio. Euskal arimen onak eragiñik jarri da idazten, euskera-rentzat nai duen eta itxaroten duen etorkizun obeak eragiñik ere bai. Bego au argi.

Baiña goazen Nekezaleentzako Eskolia liburuaren mamia edo muiña geitxoago aztertzeraz. Egilleak iru eskualdi eman zizkion liburuari, eta lenen-gotik bigarrenera titulua ere zerbait aldatu egin zion. Baserritaar nekezaleentzako eskolia zana, bigarren edizioan *Baserritar jakitunaren etxeko eskolia* biurtu zan. Gaiñera ez da leenengoa berbera. Bigarrenean au gaiñeratzan dio: “Ateraten dau bigarren aldiz ta geigarri barrijakaz D. Juan Jose Mogel Markiñako abadiak”, 1845.garren urtian, Bitorijan Manteliren alardun eta semien sillutokijan.

Azalean onelako aldakuntzak ezarri badizkio, barruan ez dizkio txikia-goak ezarri. Agiri danez, Mogel ez zan bein egindako lana ezin obetzat eukitzekoa. Urrengoan ikutu bat edo beste egin gabe ez zuen utziko. Orrela egin du 1816garreneko liburuarekin: emen kendu, or geitu, batean aldatu, bestean orraztu, liburu utsez zuzendurik eta berriturik gelditu da.

Irugarren orraztaldia ere egin zion, beste argitaraldi bat emateko asmotan, noski. Ez zuen argirik ikusi, baiña or gelditu da kopia berria, egillearen eskuz egiña, eta aldakuntza berriekin.

Liburu au Mogel’ek nobela antzean asmatu eta egin zuen, len ere esan dedanez. Gauza au ez det leenengoz nik aipatzen. Joan dan mendean, *Euskal-Erria* aldizkarian Baserritarren eskola au nobelatatzat aipatua dago. Eta Mogel’en burutik alakotzat atera zan. “Jazoera irudituba” esaten dio berak ere. Jazoera irudituta, gertakari irudituta bat idatzi nai zan du, ikasbi-

dezko gertakaria, ori bai, guztiek, nekazari ta kaletar, zar eta gazte, guztiek eredu bat aurrean izan dezaten nola seme-alabak azi, nola okerbideetik alde egin eta eragin, nola bide zuzen eta garbiak maitatu eta artu ikasteko.

Mogel'ek bigarrean argitaraldian ezarri zion berba-aurrekoan ona nola azaltzen dan egillearen asmoa, mamiari dagokionez: "Emen, bada, azaldetan dira Doktriñako lau zati edo parteen gauzarik biarrenak, erakusten dira arrisku ta arimeen labanarriak, eurei aldendu ta birtute egijazkuei jarraituteko bidiak, eta guztirako aurkituko dira irudi edo ejenpluak".

Liburu onetan senar-emazte bi eta bost semealaba aurkitzen ditugu. Zazpion goraberak datoz, seme alaba bakoitzak bere bizimodua artu eta gurasoak iltzen diran arte. Eskola onetan ez da irakasten ez ikasten nekazaritzako lanik, baserria nola aurrera bidean jarri edo olakorik. Emen gizabidea, kristaau-bidea eta zerurako bidea ikasten dira, etxeko jauna maisu dala. Ez da bera eskolagabea. Osaba bat apaiza du, eta onen liburuetatik eta giñerako irakatsietatik, ez da nolanaiko jakintzaren jabe egin. Lenbizi bere emaztea eskolatzen du, eta gero, semealabak, banan banan, mundura etorri ala eta adiñean aurrera joan ala. Kapitulu bakoitzak bere sarreratxoa du, gaia aurkesteko. Bost seme-alabak or dabilta aitaren itzetatik zintzilikan, berak galde, aita erantzun, kristau-bizitzarako bearren dituzten egiak eta legeak ikasten. Jaungoikoa gauza guztien egille, munduan ainbeste edergarri erein dituen gizonen onerako, gizona izadi osoaren jaun eta errege, Jaungoikoaren legea amar mandamentuetan ageri zaiguna, Kristoren Eliza eta sakramentuak. Bein elizako gauzak biziago azaltzeko, seme-alabak elizara eramaten ditu, eta an erakusten die, batik bat, bataioari, mezari eta konfesioari dagokiona.

Munduko labanarriak, pekatutako arriskuak, jakiña, sail andia betetzen dute liburu onetan. Dantza, erromeria, jai, begira eta beste pekatutako arrizku jakiñak, bildurgarri jarriko ditu, leenengo argitaraldian, batez ere. Bigarrenerako naiko bigundu da etxeko jauna, eta Euskalerriko egoera ez du ain beltz ikusten. "Zorijonez, dio, ez dago onelako bigirarik erri askotan, ta dagozanetan bere, ez etxerik geienetan; leen ezagutu ditubeenak bere kendu ditubee". Itzok aitari entzunez, semeak (Luisek) onela dio: "Amaituko al dira euskalerri garbijetan onelako pekatuben lazubak. Asko alegretan naz gitxitubaz duazalako". Baserriko lanik asko zearretara, pekatutako ekarri dezaketen arruiskuren aldetik aipatzen dira emen: gorueta, arta-zuritze, ezpateta, gal-ebate, karobik olan, ira ebate, orbel batze eta abar.

Emen eta sermoi batzuetan Mogelek erakusten duen alderdi berria, bear bada gure literaturan lenengoz agertzen dana, zera da: Izadiaren, zerulurretako edergarriek eragiten dioten zoramena. Baserritar maisuaren agoari bein baiño geiagotan dario zoramen ori. Baserritarra zoriontsuagotzat dauka, ain zuzen, zeru-lurretako ikuskizun ederretatik urrago bizi dalako. Nik ez dakit baserritarraren zoriontasun ori beti beti jatorra eta egiazkoa dan. Entzun dezagun, esaterako, bein Mogelek esan erazten dion au: "Baserritarrak dau-

kaz urren urren Jangoikuaren ontasun ta altsutasunaren gomuntagarririk bizijenak. Esnaatuten dabe gabian oillaren soiñubak, ganaduben orruak, ta Jangoikuak gizonarentzat egin dituban patarijen zaratak. Goiz jagirik, dakus eguzkijaren urteiera pozgarrija, estalduten ditubala illargi ta izarren argitasunak, entzunik bide batez txoritxubak euren soiñubakaz egunari emoten deutesen ongi etorrija, ta gizonari bere albistia”. Eguzkiaren goizeko irteera, txoritxuen txinta-soiñuak ez diot baserritarrarentzat pozgarri izango ez diranik. Baiña gabazko okulluko beien orruak, edo oillarraren kukurrukuak, patarien zaratak ere pozgarritzat artu?

Etxeko jaunaren, baserritar jakintsuaren azkenengo eskola bizimodua artu bearrari dagokiona da. Seme-alaben aurrean jarri ditu ezkontzako bizitza, ezkongabeena, apaiz eta mojena. Bakoitzak ar beza ongien dagokiona, iñork beartu gabe. Bostak artzen dute bakoitzak bere bidea. Luis apaiz izango da; Ageda, moja dijoa eta Ines'ek ezkongabe gelditzea erabaki du; Xabier eta Sinforosak ezkontzabidea artzen dute.

Zoritxarrak, bata bestearen ondotik datoz etxeko jaunaren gaiñera, abereak gaixoak jota il, andrea ere galdu. Gizonaren sendotasuna erakusteko bere biziko aukera. Baserritarrek Jainkoaren eskuari muin emanik artzen du dana, Job'en itzekin: “Jainkoak emanak ditut, eta Jaunkoak kendu dizkit. Bedeinkatua bedi bera”.

Oneraiño iritxita, seme batek, Xabierrek artzen du liburuaren aria, aitaren azken-egunen berri emateko.

Irurogei ta lau urte ditu, ondasunen banaketa egin du eta ez dio beldurrik eriotzeari. Jainkoaren eskuetan dago, Badaki “arboliaren orriek jausten diran legez negu antzian, alan gizonak, banaka, biñaka, guztiok goazela lurre-ra”. Medikuek ibilteko agindu diote, eta, semea lagun, ibilli batzuk egiten ditu, leku ezagunetan zear, noizik bein basoarteko ermitatxo bateraiño, aspaldi batean parroki izandakora, antxinakoen ilobiak ikustera, biziaz, eriotzeaz, geroke biziaz gogoeta sakon itxaropenez betetakoetan murgildurik. Aita zarraren azken-ordua olaxe dator, arratsalde goibel bateko illunabarra bezela, negu-aurreko orri-erortearen antzera, ain ongi eskolatu dituen seme-alabetan jarraitzeko.

Mogel'ek ez zuen bete al izan liburu au irugarren aldiz argitaratzeko asmoa. Eriotzeak aurrea artu zion. Geroago iru eta laugarren aldiz argitaratua izan da. Eta Mogel'ek bere bizian nekez asmatuko zuena, gipuezkeraz ere agertu zan, Gregoio Arruek itzulirik, 1878garren urtean, Tolosan, Pedro Gurrutxagaren moldiztegian. Mogel'ek berak egindako bigarren argiaralditik itzulia dago.

Emen euskal-lanez ari naiz. Baina ez naiz geldituko zerbait esan gabe erderazko bi liburutxoez. Joan Jose onen izenean argitaratuak dira. Baina egilea Aita Bartolo dute. Leclusekin eta gero Iztuetaekin izandako eztabaida da bien ardatza, pluraleko Zuketa, len aipatu degun ori tartean dala. Eztabaida

au dala-ta, Bartolok eta Iztuetakor euskal-dantzen gorabera elkar jo zutela dionak, ez du auzi au ulertu. Aita Bartolo'ren irri ta farrak ez dira or Iztuetarentzat, Lecluse'rentzat baizik. Zuketari buruz Lecluse ez zan nor, iñori maisukeriaz mintzatzeko, gutxiago Aita Bartolo-ri eta Mogel'i. Pluraleko Zuketa singularrera noiz aldatu zan iñork ez du gaur arteño argitu. Ezagutzen degun euskal-literatura guztian bizirik aurkitzen degu. Ala, amalau-amabosgarren mendetako kanta zaarretan, ala Leizarraga eta Etxepare eta idazlerik zaarretan.

Zuketa zaararren aztarna bat gelditu da, ain zuzen, Aita Bartolo'ren eta Joan Jose onen euskeran. Nola auei Lecluse'ek edo beste iñork ezer irakatsi gai onetan?

Sartu gaitezen orain, Mogel'ek argitara gabe utzitako euskal-lanetan.

Zer utzi zuen, bada, argitaratu gabe? Bat, beintzat, Maiatz-illerako Berbaldijak, Tolosan, 1885garren urtean Eusebio Lepez'ek argitaratuko zituenak. Lan ori prestatu zuenean, Mogel'ek ez zuen bear bada argitara emateko asmorik izan. Il-aurretxoan burututako lana du; zenbait itzaldi 1846 eta 1847n izenpetuak daude. Markiñako Merzedeko elizan utzi zituen, maiatzeko loretan edozeinek irakurri al zitzan. Maiatz illerako berariz egiñik gutxi dago. Geienak badirudi salbazioko gaitaz egiñik zeuzkan beste itzaldi batzuetatik atera zituela, azkenean Ama Birjiñari zuzendutako otoiz bat erantsita. Argitaratu zituenak bazekien ori, eta ala adierazi zuen argitara baiño urte bete lenagotik, alegia, maiatzerakotzat egon arren, itzaldi aiek oiñarrizko kristauegia asko ikutzen zutela eta edozein alditako balio andikoak zirala. Zoritzarrez, akats eta uts askoz beterik atera zan liburua, eta badu utzen zerrenda bat erantsi bearra.

Liburu oni dagokiola, Vinson'ek Euskal-bibliografian naastea sortu du. Ez zigun esan, bada, bizkaieraz agertu baiño lenago, gipuzkerazko edizio bat egin zala, edo *Itzaldiak* izeneko bat, beintzat? Etxegaraik, Villasantek eta Jon Bilbaok ari siñistu diote eta aren okerra berritu. Emen Vinson'ek oker-adituen bat izan zuen. Eusebio Lopez'ek, Bizkaiko klasiko baten liburu au agertzeko iragartzen zuenean, urte bete lenagotik Itzaldiak tituluaz gaztigatzen zuen, gero egiaz Berbaldiak tituluaz agertu zana. Ortik bi liburu egin dituzte, bata, gipuzkeraz zegoelakoa, eta bestea, bizkaikoa. Vinson'ek ongi ageri du ez zuela gipuzkerazkoa zalako orren alerik ikusi, ez du berak oi zituen xeetasunik ematen, ez zer neurrikoa dan ez zenbat orrialde dituen. Eta aren ondoren etorri diranak oker berean erori dira.

Baiña berbaldirik, sermoerik geiago ere utzi zigun Mogel'ek. Onelako batzuen berri emanez amaituko det nere itzaldia. Sermolari ona zalako ospea izan zuela badakigu. Eta ba omen zekien sermoiak idatzi eta beste apaiz lagunei ematen ere. Zenbat eliz-itzaldi ez ote dabil bazterretan, arek orrela zabaldurik? Markiñako parrokiak mordo on bat gordetzen du, doctriñaren zati batzuek azaltzekoak, zenbait, Jesusen Biotzaren elizkizunetarakoak, eta beste asko. Guztiz irurogei inguru.

Itzaldi auetan Kardaberaz'en eragiña ikusten zaio. Kardaberaz Aitak badakigu nolako lanak erabili zituen apaizekin, euskera jatorragoa eta ego-kiagoa erabiltzen ikas zezaten... Badakigu ere Jesusen Biotzaren anaiarteak, kofradiak leku askotan zabaldu zituela. Markiñan ere bai. Juan Jose Kardaberaz'en jarraitzaille degu. Kardaberaz'ek bezela, Mogel'ek ere apaiz-lagunei lagundu nai zien euskerazko sermoiak obeto egiten. Eta zintzo eutsi zion Markiñan Jesusen Biotzaren anaiarteari, arauetan zituzten eginberra zeatz beteaz.

Illero egin bear ziran Jesusen Biotzaren eleizkizunok, apaiz bat zuzenda-ri zutela. Apaizaren eginbearra zan, beste irakurraldiez ez gaiñera, gutxienez ordu laurdeneko itzaldia egitea. Orrelako itzaldiak, Jesusen Biotzaren elizki-zunetarako egiñak, ia guztiak Mogel'ek idatziak 45 bat gordetzen dira Marki-ñako parrokian. Maitaz-illerakoak bezela, auek ere Mogel'ek apaizen eskue-tan utzi zituen. Bat kendu ezker, 1778garren urtekoa, besteak Joan Jose'n egunetakoak dira. Bakoitzak esaten du noiz eta zenbat aldiz esanak izan diran. Batzuk Mogel il eta urteak geroago ere bai.

Orra Joan Jose Mogel onen euskal-lana, Euskalerriarentzat, Euskal nekazari eta kaletarrentzat eta euskal-apaizentzat eten gabe egiña. Euskeraz idaztea ez zuen bere bizian utzi. Bizi onetatik eraman zuen azkenengo gaitzak ere idazten ikusi zuen, gauza barriak osatuz, edo len egiñak orraztuz. Euska-lerria eta euskera zor aunditan daude gizon onekin.

Lan au prestatzen ari naizela, egunkarien batean Gaztelako izkuntzaren akademiko baten itzok irakurri ditut, Gaztelako izkuntzari, erderari buruz: "El castellano no lo ha hecho la Real Academia, ni la Gramática de tal o cual. Se ha perfeccionado en la iglesia, y en el teatro, mediante sermones, comedias, con novelas populares y romances".

Tankera eta mailla orretakoa izan da Mogel'ek euskeraren arloan egin duena. Euskerari eusteko eta aurrerabidean jartzeko, sail bat baiño geiago lantzen saiatu da: sermoi, bertso, jazoera iruditu edo nobela. Elizan eta eliza-tik kanpo, baserrirako eta kalerako, euskaldun guztientzat lan egin du.

Eta Euskalerriak, batez ere Bizkaiak, orain eun urte, jaio zaneke leenen-go mendeurrenean, esker onezko erantzunik ederrena eman zion, aren libu-ruak zabalduz eta irakurritz. Omenaldi ixilla, arrandirik gabekoa, baiña egiaz-koa. Eta ona orain nere galdera: Aurtengo omenaldia, bigarren mendeurren onetakoa oroimen otz eta utsean geldituko ote da? Mogel'ek eta euskerak orain eun urte baiño irakurle gutxiago izan bear ote du? Euskalerriak eta eus-kaldunok eman bearko degu erantzuna.

JUAN JOSE MOGEL-EN OMENALDIA

Deba-n, 1981, Apirilak 26

Fr. Luis Villasante

Euskaltzainburuaren hitzak

D. Xabier Aizarna, Gipuzkoako Diputazioko buru
Rafael Rodriguez, Debako alkate bigarrena
Jaun-Andreak: egun on!

1781. urtean, Apirilaren 26an, hemen, Deba-n, jaio zen Juan Jose Mogel apaiza, euskal idazlea. Beraz, gaur justu betetzen dira berrehun urte.

Euskal literaturan burutu zuen lanarengatik Euskaltzaindiak omenaldi hau eskeini nahi izan dio hemen, bere jaioterrian.

Haren bizitzeaz eta haren idazlanez hizlari bana izan dugularik, ni ez naiz kontu horietan sartuko. Inoren barrutian sartzea izango litzateke, eta gaiok lardaskatu edo lorrindu baizik ez nuke egingo.

Gaur hizpide ematen duen auzi bati oratu nahi diot gaingiroki eta azaletik baino izango ez bada ere. Gainera, uste dut baduela gaurko ospakizunaz zer-ikusi.

Euskaltzaindiari maiz aurpegira botatzen zaio euskalkien kontra dagoe-la euskara batuaren alde dagoelako. Baina, ikusten duzuenaz, berak ez du biguini edozein euskalkitan idatzi duenari omenaldi egiteko. Ez horixe. Ekainean zuberotarrez idatzi zuen Archu idazleari egingo dio omenaldia, gaur bizkaieraz idatzi zuen honi egiten dion bezalaxe.

Juan Jose Mogelek, guztiz oker ez banago, bizkaieraz egin zituen bere euskal idatzi guztiak. Egia da hemen, Deba-n, J. J. Mogelen jaioterrian, ez dela euskalki hau egiten, baina hark ia bere bizitze guztia Bizkaian igaro zuen, eta hango euskalkia berea bezala har zezakeen.

Dena dela, eta lehengora joaz, Euskaltzaindiak ez du sekulan esan euskalkiak ez direla landu behar edo baztertu egin behar direla. Zerbait esan duenean beste aldera esan du, hain zuzen, eta behin baino gehiagotan, gainera.

Euskaltzaindiak ikusten du batu antzeko euskara molde bat behar duela euskarak, etorkizunean bizirik aterako bada. Batu antzeko euskara molde bat irakaskuntzan, administrazioan eta idatzizko zenbait zereginetan erabiltzeko. Baina euskalkientzat eta tokian tokiko hizkerentzat beti geldituko da tokia franko.

Beraz, euskara batuaren alde egoteak ez du esan nahi euskalkien alde ez egotea. Jesusek behiala esana errepika daiteke hemen: “Egiten dituzuen horiek egin behar ziren, ez ordea besteak utzi” (Mt 23,23).

Euskaltzaindiak badu ikuskera bat guztiz argia eta ongi zehaztua arazo honi buruz. Gainera, oraindik denbora asko ez dela, Agiri bat eman zuen hortaz (Ikus *Euskera* (1979), 103). Bertan espreski esaten da Euskaltzaindiak nahi duela euskalkiak eta tokian tokiko euskal hizkerak iker daitezen, eta bai lant daitezen ere.

Lantze hori behar den bidetik joan dadin, ordea —hots, onerako, eta ez kalterako, izan dadin—, bi baldintza bete behar direla gogoratzen du: 1) Hizkuntzaren ortografia orokorra gordetzea, eta 2) Euskararen azpiegitura edo oinarri batuari kasu egitea. Bestela, elkarrengandik urruntzen eta barreiatzen ibiltzeko arriskua dugu, eta horrek, jakina, ez gaitu inora eramango, heriotzera baizik.

Begien bistakoa da euskalkien lantzea ez dela nolanahi egin behar euskararen onerako izango baldin bada. Euskara hizkuntza bat da, eta ez hizkuntza asko (Aita Larramendik bestela bazioen ere). Beraz, kaltegarri oso izango litzateke hizkuntzaren barnean ortografia desberdinak erabiltzea. Ortografia bakarra behar da hizkuntza osorako, eta bat hori da Euskaltzaindiak onartua eta erabakia duena. Horren kontra joatea euskararen kontra joatea dela esan behar da argi eta garbi.

Beste baldintza da hizkuntzaren azpiegitura edo euskararen oinarri batua kontutan hartzea; beste hitzez esanik, bat egiten dugunetan batasuna mantentzea, eta ez apurtzea. Ardura hau edukitzea ere beharrezko dela, edozeinek ikus lezake.

Esate baterako, bizkaierazko aditzean, herriak erabiltzen duen aditzean, alegia, bi forma hauek ezagutzen dira: *dauz* eta *ditu*. Zergatik hartu beste euskalkietatik urruntzen gaituena eta ez horiekin bat egiten gaituena, biak etxean ditugularik?

Beste adibide bat —hau gipuzkoarrentzat—. Hitzen bukaerako “a” organikoa galtzeko joera nabari da euskalki honetan, beste euskalkiek lege hori hobekiago gordetzen dutelarik. Orotasunari kasu eginez, zergatik arreta pixka bat ez jarri *a* organikoaren lege hori zaintzen? Zergatik ez esan *gauza bat*, *gauzarik*, eta ez *gauz bat*, *gauzik*, eta abar?

Honelako txikikeria asko aipa daitezke. Txikikeriak dira, nahi baduzue, baina txikikeria horiek gordetzetik dator —besteak beste—, hizkuntza baten osasuna.

Edozein modutan ere, salbuespen hauekin eta baldintza hauek beteaz, Euskaltzaindiak nahi du euskalkiak gordetzea, aztertzea eta bai lantzea ere.

Euskaltzaindiak nahi du, gainera, tokian tokiko euskal hizkera berezien bilketak, azterketak, ikerketak eta abar bultzatu. Hain zuzen, horrelako azterketak taxuz egiteko, gaur oinarritzko prestaera bat behar dela ikusirik, sail horretan langile berriak eta ongi hornituak sortarazi nahiz, antolatu du hemen Deba-n, egun hauetan ospatu den Ikastaroa. Eta Ikastarora irakasle jaun espezializatuak ekarri ditu, baita kanpotik ere.

Ostolaza patronatoan egin da Ikastaroa. 8 irakasle eta 27 ikasle izan dira guztira. Irakasleak, gai hauetan espezialista direnak: Ana Mari Etxaide, Veny i Clar, MacMurrough, Karmele Rotaetxe, Rafel, Allières, Cerdá eta Mitxelena jaun-andreak. Ikasleak ere ez nolanahikoak, Filologian ikasiak edo oinarrituak direnak baizik.

Ikastaro honek hasiera edo abiapuntu bat izan nahi du: langile berriak eta ongi prestatuak sortu nahi ditu, alegia, herri hizkeraren ikerketak bultzatzeko.

Ikastaro honek badu, gainera, beste helburu jakin bat. Esan ditugunetan nolabait sarturik badago ere, jipamen berezi bat egitea merezi duela uste dut: *Euskararen Atlas*a. Horra asmo handi bat, orain arte oratu ez zaiona, baina Euskaltzaindiak ahazturik ez daukana. Honelako lan bat aurrera eramateko, ordea, bi gauza behar dira: bat, langile trebe, ongi oinarrituak eta prestatuak, eta behar diren tresnez hornituak; eta bi, kostuei aurpegi emateko behar diren laguntzak izatea. Eragozpenok gora-behera, uste dugu helburu honi ere heldu ahal izango diola Euskaltzaindiak, asko luzatu gabe, gainera.

* * *

Con este acto se clausura también el Cursillo de Dialectología, que ha tenido lugar estos días en esta villa de Deva en conexión con la conmemoración del bicentenario de D. Juan José Mogel.

Creo que se puede afirmar que el balance del dicho Cursillo ha sido altamente positivo. Se ha palpado un ambiente de compenetración entrañable entre profesores y alumnos. Todos hemos quedado muy gratamente impresionados por la altura y calidad, a la vez que por la claridad y asequibilidad de las doctas lecciones de los profesores. Quiero testimoniarles nuestro más vivo agradecimiento, tanto el de la Academia como el de los alumnos. A más de uno de los participantes le he oído decir, al comprobar la seriedad con que se realizan estos estudios en el dominio del catalán, que ellos nos llevan cien años de adelanto en este campo de la dialectología.

De todos modos, creemos que el Cursillo servirá para que también entre nosotros los estudios dialectológicos reciban un nuevo impulso.

También quiero expresar mi satisfacción por el interés y asiduidad con que los alumnos han participado en el curso. Creo que todos han quedado

altamente satisfechos. No deja de ser un gran motivo de esperanza el ver que hoy cuenta el país, por primera vez, con un plantel de investigadores en ciencias, de los que podemos prometernos mucho.

Gracias también, muy especialmente, a la villa de Deva, a su Ayuntamiento y pueblo, y de modo muy particular a la fundación Ostolaza, que tan desinteresadamente nos ha brindado los locales.

Eskerrik asko bihotzez, eta guztia euskararen onerako izan dadila! Gaur Euskal Herrian diren Unibertsitateei esker, baditugu Filologi alorrean ikasiak diren gazteak. Horientzat izan da batez ere ikastaroa. Hurbildik ikusi ahal izan dugu zeinen gogotik parte hartu duten Ikastaroan. Guztiz pozgarri da ikerketa hauetarako langile trebe eta ongi prestatuak izateko bidean garela jakitea. Izango ahal da Ikastaro hau herri hizkuntzaren azterketak bultzatzeko urrats bat! Hala izan dadila. Bonaparte Printzeak, Azkuek, eta lehenago Larramendik, Mogeldarrek eta bestek idikitako ildoak izan dezala segida, eta bai loratze berria ere!

**JEAN BAPTISTE ARXÛ IDAZLEAREN
MENDEURRENA**

MAULEKO AUZAPEZAREN AGURRA

Maule, 1981-VI-27

Lougarot jaun auzapeza

Messieurs,

Notre vénérable Maison Commune est honorée d'ouvrir ses portes, avec la complicité de SU-AZIA, à quelques uns des plus éminents membres de l'Académie Basque. Il m'est très agréable, en qualité de Maire, de vous apporter ici l'AGUR chaleureux de mes compatriotes et de vous souhaiter la bienvenue dans notre cité, patrie du grand historien basque Oihenart et des frères Jean et Henri de Sponde.

J'aurais aimé m'adresser à vous dans la langue d'Etxahun, non dans celle de Molière et j'espère que vous ne m'en tiendrez pas rigueur. Comme beaucoup de Mauléonnais de mon âge, j'ai vécu mon enfance dans cette dualité qui caractérisait Mauléon et Licharre. Et si j'ai été bercé, imprégné par le verbe souletin, je suis comme ces mélomanes qui apprécient toutes les nuances de la musique, mais qui ne savent hélas pas s'exprimer avec un instrument. C'est là une lacune qui, plus encore en cette circonstance exceptionnelle, m'emplit de regrets.

C'est une autre lacune que vous comblez aujourd'hui en me révélant l'existence d'un "alzürükütar" de talent, l'écrivain Jean Baptiste ARCHU. Et je mesure là l'étendue de mon ignorance sur tout ce qui touche à l'identité et à la culture de mon pays.

Je me réjouis à ce sujet, de l'existence et de l'activité d'une association telle que SU-AZIA qui s'est donné pour tâche de rassembler toutes les richesses littéraires de notre beau Pays de Soule et par là-même de lier plus étroitement les Souletins à leurs racines. Je sais que malgré des moyens modestes, mais grâce au travail patient et obstiné de quelques uns comme le père Casnave, nombre de documents ont déjà été réunis et édités, sauvant de l'oubli ceux qui au travers de leurs oeuvres, ont traduit l'âme profonde des Souletins.

J'ai, à ce sujet, une suggestion à formuler, dans la mesure où notre projet de réaménagement intérieur de l'ancienne mairie pourrait être rapidement réalisé. Une salle pourrait alors être consacrée à l'Association SU-AZIA, qui, si

elle le souhaite, déposerait là le fruit de ses recherches, permettant la constitution dans la capitale de la Soule, d'un fonds d'histoire et de littérature locales, que nous essaierions d'enrichir dans l'avenir, les possibilités de reproduction facilitant l'accès à des documents qui actuellement sont conservés avec un soin jaloux par des particuliers.

Ainsi pourrions-nous collaborer, encore davantage, à l'oeuvre entreprise par l'Académie Basque qui trouve, je l'espère, aujourd'hui, dans l'engouement de la jeunesse pour sa langue et sa culture originelles, la juste récompense des efforts et des travaux qu'elle mène depuis longtemps.

Ces travaux ont pour cadre ce soir notre salle du Conseil Municipal. Je souhaite qu'elle retienne longtemps l'écho de cette séance exceptionnelle. Nous serons heureux, à son issue de vous convier à un apéritif amical dans la salle voisine, en espérant que ce passage de l'Académie en Soule ne restera pas sans lendemain.

SU-AZIAK “hunki jin” EUSKALTZAINDIARI

Maule, 1981-VI-27

Frantxua Daskon-ek

“Hunki jin”, zier, Euskaltzaindiko Jaunak!

Xiberuko lurrak eta Xiberotarrek uhure die egün, zien errezebützia. Guretako zien bijitak erran-nahi handia badü, hirugerren aldikotz Euskaltzaindia Xiberulat jiten dela.

Heben giren Xiberotarrak ez gira jinik küriustarzünez, bena bai ziekin ber sailian lanian ari girelakotz: Euskararen geroaren segürtatü nahiz.

“Hunki jin” arren, SU AZIAN eta kultura sailian ari direnek etxi: UHAITZA BEDAUA, XIBERUKO ZOHARDIA, IKASTOLAK, IBILKARIAK. Zien bijitak pizten dü gure bihotzetan esperantxa handi bat.

“Hunki jin”, zier, KURUTXE XURI altian, kurutxe xuri hori beita guretako MATALAS famatiaren oritzapena.

Gure oritzapenak duatza ere Euskaltzaindian lanian ari izan diren Xiberotar Guillaume eta Ddeddue Eppherre, Andere de Jaureguiberry, Albert Constantin eta bestier. Hurak junik dira, bena txutik baratzen den haritx horrek badü beti xiberotar adar bat: Zü Jan Luis Davant hor zira. Eta ikusten dügü Santa-Grazitik abiatürik beste xiberotar urzo bat hegalak emanik pausatzero.

Zühainak adarra ekarten eta adarrak zühaina bizierazten dian bezala, bilkúra huntarik egürikitzen dugu gure harremanen ziekin barnatzia.

Bena nur da ziekin harremanetan sartü nahi den XIBERO hori, zazpie-tan txipiena?

42 herrietan, 18000 bizizale, orai artino, laborantxatik eta Maule ungü-rian ziren lantegietarik bizi izan gira.

Azken 15 urte horietan Xiberoa hasi da desplomatzten:

- Gazte hanitx jun da lan txerkatzera bestetarat.
- Bortüko laborantxa üko egiten ari da.

- Mauleko lantegiak aldiz espartañari josiak, biharamen beltzer so.
- Atarratzeko aldiak galdü dü azken 15 urte horietan 20 % bizizale.
- 30 % etxalte badira segidarik gabe.
- Egün kuntatzen dira 500 lan txerkazale.

Eta kultura zertan da?

Xiberuko karriketan euskara nun nahi entzüten da orano:

- 60 % emaiten baitie euskara.
- 10 bat herritan euskara baliatzen da pürki, bai etxian, bai elizan, bai plazan, bai komertzioetan.

Arren 7 probintzietarik Xiberuan da euskara mintzaturikenik, adineko jentetan.

Bena haurretan gütienik. Etxahun eman dian ütürri hori agortüko da? Oriko txoriak ez dia haboro pastoral, olerki, kantore eta dantza huntzalerik emanen? Gipuzkoan, Bizkaian hainbeste arrakasta dian kultura itzaliko da?



J. B. Arzü idazlearen mendeurrena (Maule, 1981-VI-27): *Ezkerretatik eskumatara:* Lougarot, F. Daskon, Fr. L. Villasante —*Euskaltzainburua*— eta J. L. Davant

Xiberotar zunbaitek zin egin die Xiberuko kultura biziko dela eta ez dela beste biderik gure Herriaren bizierazteko. Nur dira horik?

1. UHAITZA: batarzün hau altxaturik izan da, orai diala 3 urte, kultura sailian ari diren talde laguntzeko, materiale aldetik.

2. BEDAUA: 3 urte huntan antolatzen dütü kultur-astiak Xiberuan.

3. XIBERUKO ZOHARDIA: hunek dütü dantza eskolak organitzatzen, beztitzzen, irakasten, Xiberuko kulturen dantzak beütü, olerkiarekin, lehen lekia.

4. IKASTOLAK: heben badütügü bi ama-eskola eta lehen-maila bat. Diala hamar urte, 12 hurrekilan zabaltü ziren, egün 40 etarat heltürük gira.

5. IBILKARIAK: badira Xiberuan, Aña Lexardoy Barkoxekua eta Marcel Lerdou Eskiulakua, herriz-herri ibiltzen direnak eskoletan, euskara irakasten.

6. SU-AZIA: Diala 3 urte sortu den batarzün hunen xediak dira:

- Euskararen hedatzia eskoletan, elizetan, karriketan.
- Euskararen ikasteko lan-tresnen egitia.
- Gai-eskolen, ikastaldien eta alfabetatziaren antolatzia.

Batarzün horik denak egün juntatzen gira, zier dei baten egiteko: Badügü oroek gaintika gogua, bai-eta lan pasta. Bena xede horier gainaren hartze-ko, hutsartetarik egin lana ez dügü ihuntik ere aski. Orai behar dügü langile jakintsu baten lagüngua. Hori nun atzaman? Nula paka? Horik dira gure arrenkurak.

Gure ustez zer lan lüke langile horrek?

- Xiberoan eta alde kanpuan diren paper zaharren ikertzia eta lantzia.
- Xiberuko ixtoriaren argitzia eta ezagüteraztia librien bidez.
- Eskoletako lan tresnen antolatzia.
- Xiberuko ohidüren eta üsantxa zaharren agertzia.
- Etxetan barreiatürük diren kantore, musika, olerki eta alegien biltzia eta hedatzia.

Ikus ginezake ere gizun hori kultur-talden sustazale eta gogo hunezko jenten sustengazale.

Gizun hori beharrezkua da. Gure xediak Euskaltzaindiaren üdürizkoak dira. Euskaltzaindiak badü lan Xiberuan egiteko eta prest gira lagüntzeko. Proposamen horrekin ados bazide, ikusten ahal dügü beste egün batez nula bide horri alkarrekila jerraik.

Xiberuko zelia beltz bada alde batetarik, egün argitzen hasten da beste aldetik: Euskaldun izatia hazten ari da; geroago eta haboro gaztek, zernahi kostarik heben erro hartzen die. Horik ikusten dira gai-eskoletan, bai eta lan-tegi berri altxatzetan. Sekulan bezala herriko gizonak beren artian biltzen dira eta pentsamentükatzen geruari bürüz.

Indar horik oro bildürik haritxaren üngürían, eztüğü Xiberuko adarra eihartzera uztekua.

J. B. ARXU-REN MENDEURRENA

Maule / Altzürükü

1981, Ekainak 27-28

Fr. L. Villasante

Euskaltzainburuaren hitzak

Mauleko jaun mera
“Suazia” batasuneko jaunak,
Jaun-Andreak: Agur guztioi!

Zuen deiari men eginez, eta Arxü jauna bere mendeurrenean ohoratu nahirik, Euskaltzaindia Zuberoan da egun eta bihar. Mila esker zuen gomituatik! Zinez, Zuberoara gatozen bakoitzean halako zirrara eta zimiko gazigozoa somatzen dugu bihotzondoan. Euskaldun guztiok nabaitzen dugu, alegia, Zuberoak eta Zuberoako euskalkiak badutela beste eskualdeek ez duten zerbait, badutela apartekotasun bat, tira eta erakarmen indar berezi bat bere nortasun eta aspalditasunagatik. Zuberoako kantoreak Euskalerrri guztian dira estimu handitan. Izan ere, beren sentimendu eta barnetasunagatik ez dute parerik.

Honelako paradak baliatzen ditu Euskaltzaindiak iragan denboretako euskaltzale handiak ohoratzeko, horiei buruz ikerketak sustatzeko eta horien etsenploa eta miraila egungo euskaldunen begietan jartzeko; era hortara haien lanak egun ere segida bat izan dezan amoreagatik.

Pozik jakin dugu Arxü jaunaren mendeurren honek bidea eman duela Arxü-ren zenbait gutun, argitaragabe zeudenak, edireiteko. Horrela Arxü bera nor zen eta haren obra hobekiago ezagutu ahal izango dugu.

Ni euskaltzainburu sartu nintzenean, 1970ean, hemen egin nuen karguan sartzea, Salaberri-ren mendeurrena ospatzearekin batean. Gero, Davant jauna Euskaltzaindian sartzean eta Aita Lhande-ren mendeurrena ospatzeko, berriz ere hemen izan zen Euskaltzaindia.

Egun laugarrenez sartzen da Zuberoan Euskaltzaindia. Eta sartzen da Arxü-ren gorazarrezko festetan parte hartzeko.

Arxü jauna alegilari, gramatikalaria, itzultzaile eta eskola emailea zen. Berau da, dudarik gabe, Zuberoak euskarari eta euskal literaturari eman dizkion gizon handietarik bat. Ez noa haren gainean deus esatera, zeren egun eta bihar izango baita ni baino mintzatzaile gaiagorik J. B. Arxü jaunari buruz.

Jean-Louis Davant dugu Euskaltzaindian Zuberoa eta Zuberoako euskalkiaren mandataria. Eta lehentxeago edo geroxeago beste hauek ere izan ditugu: Eppherre anaiak, Madeleine Jaureguiberry, Pierre Bordazarre, Pierre Eyheramendy, Pierre Lhande, Constantin, Jon Mirande, D. Peillen, Cazenave, etab. René Lafon jauna ere badakigu zein atxikia zen Zuberoari.

Denbora zaharretan, berriz, anitz euskaltzale handi izan ditu Zuberoak: Zalgize, Oihenart, Maister, Chaho, Abadia, Etxahun, Intxauspe, Hegiategy, Salaberri eta Arxü jauna (zeinen ospaketa baitugu).

Gure gogoia eta nahi bizia da euskaltzale handi horien erronka honek etorkizunean ere segida izan dezan. Zuberoa, alegia, beti atxikia izan dadila euskaldungoari, euskarari eta bere eskualdeko euskalkiari.

Anitzetan esan da euskara apez eta fraideen gauza dela xoilki. Horietaz landara beste inori ez diola fitsik axola euskaragatik, baina hori ez da egia. Arxü jauna ez zen ez apez eta ez fraide. Sauguis edo Zalgize ere ez, noski; Oihenart ere ez, Xaho eta Abadia ere ez, Madeleine Jaureguiberry ere ez. Guzti hauek zuberotarrak ziren eta euskararen eta euskaldungoaren arrangura sentitu zuten. Euskaldungoaren alde zerbait egin nahi izan zuten eta egin ere zuten. Xede hauen faboretan beren indarrak eskaini zituzten.

Pozik entzun ditugu “Suazia” batasunaren xedeak. “Suazia”: zinez izen ederra! Hauts azpian, ilaunen pean, gorderik den sua, txingarra edo ilintia. Su berria pizteko balioko duen ikatz bizia. Hori izan nahi duzue zuek Zuberoan. Jaso ditugu zuen arrangurak eta kezak. Zuberoaren euskaltasuna, euskaldungoa nahi duzue altxatu. Jakin ezazue Euskaltzaindia bihotz osoz izango duzuela zeuokin, xede horien fabore.

Jean Haritschelhar jauna, Euskaltzaindian euskaltzainburu ordea dena, mintzatuko da fite puntu honi buruz: Euskaltzaindiak zer egin lezakeen Zuberoaren laguntzeko. Zuberoatik ni baino hurbilago bizi da bera, hemengo berri nik baino hobekiago daki, hemengo beharrak eta premiak ongi ezagutzen ditu, eta bera mintzatuko zaizue xehetasunekin gai honi buruz.

Euskalki guztiz berezi eta zahar-zahar baten jabe da Zuberoa. Mintzatzaile guti ditu, zorigaitzez. Zer egin euskara Zuberoan indartzeko eta azkartzeko?

Zuberotarren atxikimendua beren euskalkiari ezagutzen dugu. Alde honetatik gu bizkaitarrok bezala zaretela uste dut. Eta ez da miresteko. Euskalki biak muturretakoak dira, Euskalerrriaren bazterretan direnak. Eta bata bestetik urrundenak egonagatik, zenbat aldiz gertatzen da hitz berberekin topo egiten dugula! Esate baterako, *zuhandorra* (“le cornouiller”) hitza Zube-

roan esaten da eta bai ni bizi naizen Arantzazuko auzoan ere. Horrek zer esan nahi du? Dudarik gabe, horrek esan nahi du erraietan, barne muinean bat garela, desberdintasun guztiak gora-behera, euskalkiak baino lehenago hor dela euskara, guztion euskara. Euskaldun orok bat egiten dugula, alegia.

Euskaltzaindiari maiz egotzen zaio aurpegira euskalkien etsaia dela; euskara batu bat denontzat berdina nahi duela, eta hori euskalkiak gaitzestea dela. Baina ez. Ez da hori horrela. Euskaltzaindiak nahi du, bai, euskara molde bat ororentzat berdina, zenbait zereginetan erabil dadin, zeren-eta hori gabe ez baitu ikusten euskara salbatzeko biderik. Baina horregatik ez da euskalkien etsai. Nahi du nork bere euskalkia lantzea. Batak ez du bestea kentzen. Bata behar zen egin eta bestea ez utzi, Kristok behiala esan zuenez.

Euskaltzaindiak muntaberria du Dialektologi batzordea. Euskara mueta guztietako gauzak amultsuki eta serioski biltzea da batzorde honen xedea. Ondasunak oro bildu, atxiki. Zertako? Gero baliatzeko, eta, gaixtoeneko kontuan, zenbait hil balitez ere, nola ziren jakiteko bidea izan dezagun. Izan ere, biltzen ez diren apurrak galtzeko periletan daude.

Euskaltzaindiak, ordea, euskararen bizitzea du xede, hori nahi du aitzinatu eta bizkortu. "Suazia" taldearen xede berbera du, beraz. Ea biek elkar harturik zerbait egiten ahal dugun Zuberoa, euskara eta Euskal Herriaren alde! Halabiz.

JUSEF EGUIATEGUI

Maule, 1981-VI-27

Junes Casenave-Harigile

Gure Eüskaldün jakitatiak ürrats handiak egin dütü azken urte horietan, bereziki ikertzez gure aitzinekoen lanak. Txomin PEILLEN-IBARBURU ezagütürik da Eüskara lan hanitx huntü dialakoz. Ikerle erdotz, idatzi dütü eleberriak, saill hanixko ere agerkari hanitxetan eta berriki ederki antolatü dü gizon korpitzaren Eüskara hitzen Doktorrako tesis bat, uhure handieneki Bordelen hunartürik izan dena. Lan hunen eni irakurrarazteko xügüntarzüna üken dü eta erran giniroke gure mintzoaz gero egin lizateen lanentako pasta haitia datiala. Orai berri orano Pariseko Bibliothèque Nationale-ko zoko batetarik elki deikü esküidatzi bat, edo untsaz erraitera hirur idatzi, Jüsef EGUIATEGUI-k eginak.

Lehena: Filosofo hüskaldünaren ekheia, Ziberoko eüskara hobetian, 222 orrialde dütianak, 223 gerrenetik 364 gerrenialakoak galdürik direnak, berrogei berezita edo kapitülütan.

Bigerrena, 450 orrialde eta hirur zati dütianak:

1. **Arlande OIHENARTEN errefrauak**, 538 atsotitz frantzesez eta eüskaraz.
2. **Oharkerak, esangiak eta bibetak**, 84 orrialde eta 816 aipameneki, filosofiaz eta kondairaz, frantzesez eta eüskaraz, kartillaren edo alfabetaren herroka jarraikiz.
3. **Mündiren berritiaz** (Musde Etxeberriren gogamenak), 160 orrialde-tan, frantzesez eta eüskaraz, kartillaren herrokan.

Hirurgerrena: Aberastarzün güzien giltz bakhoitza, etxaltiaren joanaraz-tiaz. Ez niz heben pekatzen lan horien oso ikertzera, bena nahi nüke gogozka zonbait eman eta amiñi bat argitü nur zen EGUIATEGUI eta zer deikün.

Aitortü behar zaikü oraiartinokorik ez dügüla ezagützen. Bizi izan da hamazortzigarren mentiaren erditsütan, zeren bere lehen libüría “Filosofo Hüskaldünaren ekheia”, agertzekoa zen 1780-ian, Alemanian, Frankfurten. Badakigü haatik errejent zela, Ziberoan nunbait. Nun? Eta nunko zen? Deüs xüxenik ez dakigü. Bena bere hiztegiaren arabera eta xehetarzün zunbaiteta-rik erran daite ez dela Basabürüko aldeko, eta segürrago Pettarreko eziez

Arbaillako: üdüri lüke Amikuzeko mügatik hüillan zela: Arüe, Etxarri, Paga-la, edo beste herri Eüskara galdü dienetarik: Ozeraiñe, Jeztaze...? Ikusteko lizate haren herexarik ediren leitianeze herrietako edo parropietako libürietan.

Gaiza bat ageri da: jakitate handiko gizona zen. Filosofiaren arrenküra bazian, hau beita "Filosofo Hüskaldünaren ekheia" libüriaren geia. Ez zen Eüropako filosofoak beno berantago: ezagützen zütian idazle mentekidiak, bena lotüz bere berezgoari. Irakurri zütian Greko, Elizako Aita, Frantzes eta Espaiñul idazliak. Oroen gaiñetik maite zütian Eüskaldün idazliak, ezpere Eüskara untsa baliatzen zienak, hala nula XURIO eta bere *Kempesa edo Contemptus mundi* (1720), JUAN DE BERIAIN eta bere *DOCTRINA CHRISTIANA*, Eüskaraz bühürtia (1626), JOANES ETXEBERRI eta bere *Noelak ta berze Espiritual berriak* (1630), PEDRO ARGAIN eta bere *Exerzizio Espirituala* (1686), SARO DE LABORTARENA eta bere libüria, *marinearen eginbidiaz* (1642), JOANES LIZARRAGA eta bere *Jesüs-krixten Ordeiñü Berria* (1571), PEDRO AXULAR eta bere *GEROKO GERO* (1641), ARNALDE OIHENART eta bere *ATSOTITZAK EDO REFRAUAK* (1657), *Gaztaroa neurthitzetan* eta *zaharoa neurthitzetan* (1664), bai eta ere besterik. Bere jakitatia hedatü zian bidaje zunbait eginez atzerriatarat, bereziki zazpi Eüskaldün Eskualdetarat, heltübada itsasbazterrian lüzazago egoitez.

Ziberoko jakitatiari ageri da hanitx etxekirik zela. Kantoriak, ixtoriak, kateximak ezagützen zütian, Pastoralak ere bai. Hoik behin beno haborotan aipatzen deizkü; gaiza hunak dira beren heiñian erabili behar direnak: "Eta zü aita, aspaldian ikusten eztüzia zure semia dela auhertü? Lana diala hü-günt; merkatü, elizabesta ta *pastoral* bakhoitzari hütsik egiten eztiala?". Era-kusten deikü nula herriko gizonak zütien emaiten: "gaiza hek dirade mündü-ko pastoralak: eztireia komediant halakoak, errege ta trükader izanik, beren galtza mutxetara ta lürretara ethortzen ta, errege zena atzo, herrestan egün".

Zergatik EGUIATEGUI Eüskaraz izkiribatzer aiatü zen? Eüskara goersten dü, merexi dian bezala eta badaki bazter güzietan badirela goersten dienak: "Jakintziek dakie hüskara ama mintzoetarik dela bata; hortakoz ere Jinkoak eman zereioan obedantza güziak dütia".

Bena orai entzün leitian bezala, haren denboran baziren бүрү mehiak, beren jakite llabürraz hantü nahian zirenak eta Eüskara gütiesten beitzienak. Eta horra zentako, horien apaltzeko eta ixilarazteko, gure gizona Eüskarazko lanari lotü zen: "Hen ustiala hüskara lizatiala hiztera nahasi bat, ezkiderik, antzatagaitz jarraikirrik e'lükiana bakhoitzik. Halako basa-sinhestiaren gar-haitzeko hartüren dügü heben nabasterria".

Bizi zen mentia deitzen zien "argien mentia". Hühüz beterik beitziren ordüko frantzes filosofo idazliak eta hoiien arabera beste hanitxek uste bei-tzian ez daitekiala frantzesez baizik untsa idatz, EGUIATUI-k ez dütü egar-ten ahal Eüskara apaltü nahi dienak: "Ehünetan entzünik gaude hüskaratik

lankhei hunik sorth'eztaitekiala". Holako erranen egoixteko, pekatü zeion Eüskaraz idaztia: "Izanik ere botxia beno gogorrako, mardotüko dügüla düt sinhestia".

Jente kente horier ez dü balio arrazu handirik emaitia, zeren eta ez dian horientako izkiribatzen: "Ez gorrer entzüneraziz nahian, ez etare ütsüer ikhuseraziz egarrían". Eüskarak beste mintzajien pare erabiltia seskezi merexi dialakoz, bena orano bere aberastarzünak düتيالakoz eta zorrak deitzogülakoz: "mintzo haren ohoriaren gatik egiari zor düdan eginbidiaz düt lan hau besarkatü". Eüskaraz ere gaiza güziak aipa ditake: "Hüskara zertan nahi hitz arrotzetaz paira daitekiala".

Bestalde, gure idazliak deikü nahi dila "erakutsi hüskara xahüki jar daiitekiala" eta, nurk jaki, ez zianez orai dila bi mente ikusten Eüskarak bazükiala berantago arrakasta franko eta beste idazlerik izanen zela Eüsການ jakindantago eta Eüskarari lotürikago: "Hala ere mintza ahal daitekiala ta ni beno langile hoberik diano, hetarik sortüren dela haren ohoriaren gatik oraño hanitz berzerik". Eta berak ürrats zunbait eginarazi balinbadü Eüskarari, uste dü bestek gero argitürenago dila eta hasi dian sailla barnago ikertüko: "Nere althetik ageri dena, eztirot ükha eta aithortzen düt, eztüdala hüskaran azardün aski ta haren edertarzünak aski erran, ahal nadin haren barnerat behar bezala ari; alabadere gogoan düt, haren arakoietarik zerbait argitü düdala, berze batek porrogatüren diana".

Zentako EGUIATEGUI-k egürikantxa badü Eüsကာ gero biziko dela eta azkartüko? Dila bi mila urte iraganik, haren mention egünko egünetan bezala ari ziren eia zer ote zen mintzaje berezi hori, nuntik zütian erroak, zer hadadüra üken zian eta nulaz Pirineoko zoko batetan bizi zaitian orano. Zer üdüri zaio EGUIATEGUI-ri? Segür dena da Eüsကာren goratarzünaz hunkirik zela eta behar zaikü ikusi nula goraipatzen dian.

Eüsကာ da lehenik ama mintzoa: "Jakintziek dakie hüskara ama mintzoetarik dela bata", "Hartakoz ere Jinkoak eman zereioan oberantza güziak dütiala". Aita LARRAMENDIREN ondotik erraiten deikü ere "ama mintzo dela, brobantza güzietzaz ikurraitürük dena, hetan ere lehenetarik dela". Ama mintzo bezala, aspaldian sortürük (erran giniroke mündian hatsarrian, oraiko ezagütziala bardintzez mente hartako jakina): "Espaiña güzian lehen mintzoa izanik, dierri arrotzek mendietara bazterrarazirik, hirur mila urthe hetan dagoela hetan kokatürük". Eta oihü hau: "O ama mintzoa ezpaliz, xoko batetan lüke bere ama, eztelarik ageri ihon ere".

Nulaz Eüsကာ ama mintzoa da eta nuntik dü indarra? Segür ez da gizonen obra: "Ezi galdürük balego osoki, halako bat jendiak egin derokiala? Nik ja diot ezetz; ez eta ere lür güzian dirodian jakintzüenek, ehün urthez lanari lothürük ere halako obra e'liroiekiela egin". Bena "hantik arren gogamena, hüskara Jinko Jaunaren obra dela". Han hor, EGUIATEGUI-k bere sinestia aitortzen eta bermatzen dü: Ama mintzoa delakoz, ez delakoz bestiak üdüri

eta mentez mente berra iraiñ dialakoz, Euskara ez da sortürik izan ahal Jinko Jaunaren ganik baizik. Horra zer gatik gure filosofoak galtzen deikün Jaun Jinkoa gores dezagün “berak egin dian mintzoari beha egoitez”. Heben nahi nūke erran hitz hoiek oritarazten deitaiela beste Ziberotar kartsü bati. Ezi, zunbatetan, Madalen de Jaureguiberrik ez deit zabaltü ber gogozka, bena hitz hoik berak aipatü gabe, lotsa bat bezala zialakoz. Eta ordian üngüratzen zian bere elhesta: “Txoriari gure Jinko Jaunak eman deio bere mintzoa: ez da okertzen bere txiunta ta kantorian; hala hala gük Ziberotarrek sortzapenez badügü guria eta mintzatzen girelarik bagoatza beti xüxen, beharriak ez beitü hunartzen ahal oker mintzatzia”. Eta galto bat bezala egiten zaitadan: “Holako gaiza handirik ez giniro entzün apez baten ahotik baizik”. Zer nahi izanik, EGUIATEGUI eta MADALEN DE JAUREGUIBERRI kartsüki gure mintzoaz ari izan dira.

Ama mintzoa Jinkoaren obra denaz gaiñen, Euskara gütiesten dienek “Jinko Jaunaren dohaiñak zankopetan dütie ezarten”, dio EGUIATEGUI-k. Holako jenter, gor eta ütsü beitira, ez dü balio sinisteraztia. Euskaraz “baliatü nahi ezten hüskaldünak, berzeren gaiñtik abantailla ükhen dütianetzaz”, bere büria dü apalerazten. Holako jentek, beitziren ere ordian egün diren bezala, pustatzia die irabazten: jente txarrak, ezdeüsak, ahalkegarriak. Arrotzek hobeki ikusten die, “dakigünian urthe baten barnen, jesuita batzü, kastillanek, ikhasi diela Loyolan hüskara konfesotzeko doia, hirurgarrenian aldiz peredikatzeko behar zeratena”. Ezi Euskara baliatzen ahal da eta küpüsten gogozkaren berezküntza güziatara: “Jesuita hek ere zien aitortzen hüskararak ekidar güziak zütiala ta gramatikaren itzala dianak egia hori ükha elirioala”.

Zunbaitek balin badie Euskaraz “basa sinhestia”, EGUIATEGUI-k dereio egiazko sinestia, “ohore” hitzaz izentatzen diana: “Mintzo haren *ohoriaren* gatik, lümari niz heben lothü”. Uste hun badü hortan ez datekiala azkena: “Sorthüren dela haren *ohoriaren* gatik oraño hanitz berzerik”. Eüskaldün güziek “ama mintzoari *ohore* dükie, Jaun Jinkoari ere, berak egin dian mintzoari beha egoitez”.

Euskara ez bada gizonek egina, bena Jinkoaren obra bada, Eüskaldünek zor dereioen ohoria nula eman? Eüskaldünek, Eüskaldün izateko, Euskara mintza dezen beren artian, eta beitira ere Jentia besten axolik ez dienak, Eüskaldünen eta Euskararen etsai büragertzez, hen eretzian ere mintza.

Hartakoz, ez badie libürietan barnatzen ahal, ikusbide bezala har ezen “hüskara baizik eztakiana... merkhazalia beno gizon perestiago datekiala ni berme”, dio EGUIATEGUI-k. Eta orano: Euskararen “bokatziaz zerbait erran behar badügü, dügün galtha non den proba agerragorik hüskaldün menditar baten behatzian beno”. Gure Eüskaldünek Euskararen mintzazen dakite librietan ikasi gabe, bestek beren mintzoan haiñbeste lan eta denbora behar dienian heñ bat untsa elestatzeko. Eüskaldünak etxen dütü ikasi bere mintzoaren arauak eta barnetik emaiten dütü batere okertü gabe, “hartan dirade hüskararen egokiak, alozia ta gaillardia egiazkoak”.

Mintza, idatz ere Eüskaraz, bai bena ez nula nahi. EGUIATEGUIk Eüskaldün erdierdaraz elestatzen dena hunets ez dezake, zeren ogen handi egiten dian: “Hüskaldüna... bere mintzoa eskeletürük zinez, haren hilerazitera dabila”. Eta hau: “Ahalkegarri da hüskaldün ezkiribazalek eztakien hüskara”. Edo. “Egar eztirok hen hüskara txarra”. Halakoak ezarten dütü apal beno apalago: “Bohamien kastatik datekia? Hek bezala beren artian hitzauri txar bat oratürük, tximinoek, mintzazale balaude, e'lükiena nahi”.

Ene herrian erraiten den bezala, Eüskara plaiña dezen erabil. Hori da ere EGUIATEGUI-ren nahiküntia: “Hüskara xahia dezen mintza da ene egarria”. Berak egiten dian bezala: “Erakutsi badüt hüskara xahüki jar daitiala probatürük dago”. Hortako, bereziki etxek bürasoetarik üken dügüna: “Ik-hertzen deno zahartarzünian, xahiago da bere aberastarzünian agertzen”.

Horra zunbat EGUIATEGUI Eüskarari etxekirik dagon eta nula gores-ten dian. Zentako? Badaki mintzo *ederra* dela eta ikusarazi nahian da, beraren üdüriala ez beitu aski egin: “Eztüdala haren *edertarzünak* aski erran”. Bere zazpi hizkondietan “sekülan bezaiñ *eder*” agertzen da.

Nuntik Eüskararak elkitzen dü bere edertarzüna? Ez da düdar:k: berartarik. Ba dütü hitz zaharrak, etxeki edo berriz bildü behar direnak: “Hetan dialakoz hüskararak, berzeren khinper, bere *edertarzünak* franko. Ezi ikhertzen deno bere zahartarzünian, xahiago da bere *aberastarzünian* agertzen”. Bena berartan ere biltzen dü indarra zer nahi beraxkatan mintzatzeko: “Gauza berrietan ere, berze mintzoak bezala, beraren izairiatik hüskaldün ükhüdian izenak arozta litiriola”.

Gure mintzajia, ama mintzo bezala, berezia beita, bere zazpi hitzkondietarik elkitzen dü aberastarzün berezi bat eta ez dü “berzeren arropetarik beharrik”. Ez da bestien arabera, hala nula “Italiena, Frantsesa, Espaiñiola, laur ehün urthe azkenetan ari direnak bethatxüz ta arrapaintzez osoki khan-biatürük”.

Nulako den Eüskara, beha dezagün EGUIATEGUI:

“Hüskararak ekidar güziak dütü.

“Llabürrena ta ederrena;

“Ezi ene arauiala ezta mintzorik llabürrago ez eta azkarkiago hüskararak beno gaizak azaldüren dütianak.

“Mintzorik hüskara beno bere hitzen egokian hobedantagorik denik eztela.

“Batere jende güzier mintzatzian haren garthardia dianik.

“Ez etare bere elhestan haiñ llabür denik.

“Bere araudian ta ardiestian batere jarraikiagorik eztela.

“Alozia bat diala bertze mintzoetan edireiten eztena.

“Batere hüskara bezaiñ aberatsik ta naharorik eztela.

“Ama mintzo dela, brobantza güzietzaz ikurraitürük dena, hetan ere lehenetarik dela.

“Hüskara dela net posmagarri, bere zazpi hitzkondien gatik, direnak: Nafarroako, Züberoako, Gipuzkoako, Bizkaiako ta Alabako hitzkondietan.

“Herri batian galdü dütian hitzak, berzian beitütü edirenen.

“Hüskara dela mintzo bizia ta jakintzia.

Eüskarari oso lotürik, Eüskalzale idazle, EGUIATEGUI бүragertzen zaikü ere aberzale. Nunbait salatzen dü Eüskaldünar axol üken ezen beren ohidürez, Frantzia hen erautzi nahian dagoela, üsnatzen bazian bezala frantzés irailpena bertan izatekoa zela. “Nabastarria lizatekia soberarik heben, erran bageneza langile haiñ motelaiak Züberoko Estation partez herriren eza-gütze seiñale bakhoitzik ükhen eztiela ez etare Jaun Sindiketarik, laidore merezietarik dremendena. Laido balizekie obra hobeagoa egingei die, balima, datekenianeko Herria Basa Nafarra den zalantzán; ezi aidürü denak, balima, hen pribilejioek dükiela ordüz edo berant aizenek dien inharrausia ta hen zühürtarzünak adrastü dütie, balima, nola bihürtüko diradian libürü txipiaren zokhorri gaberik.”

Bigerren libüría & 25

Zer nahi den, Eüskaldüngoari etxekirik dela argiki ageri da. Zerk arren egiten dü Eüskaldüngo? Eüskarak. Zeren “mintzoen banaitiak dütü dierri güziak egiten”. Eüskara gal, ez da haboro Eüskaldünik ez eta Eüskaldüngoarik: “Deizogün galtha datekianian hartara heltü, zer datekian hüskaldüna?”. Ez Eüskararik, ez Eüskaldünik, ez Eüskaldüngoarik, ez etare herridirik edo aberririk. Xüxen den bezala, hitz gaitzak dütü Eüskaldün Eüskara galtzera ützen diententako: “Etare nola gogatü eztien, bere ama mintzoa dieno me-zpretzatzen, herria diela arnegatzen”. Edo orano, ez herria, ez mintzoa ez de-zake berez: “Ezi sortzepena denian eder, ta mintzoa arauiala, ükhatzen düti-nak biak herriari dago traidore”.

Eüskal herridia bat da eta EGUIATEGUI-k güzientako idazten dü: “Obra dago heben hüskaldün güzier eskentürik”. Eskualde güziek bat egiten die beren Eüskaldüngoan: “Nadin alde batetik edo berzetik seme, hüskaldün niz”. Hatsarretik ez zen arterik Eüskaldünen berezteko eta hola nula hedatü zen Eüskara: “Alabatarrek Züberoala, Nafartarrek Basa Nafarrara, Gipuzkoanek Lapurdira”. Orano hola izan behar dü, mintzoak erakasten deikü Herria ez daitiala mutz, ez dela ez Hegoalderik ez Iparralderik, berak Herriaren batarzünetik indarra ta aberastarzüna biltzen dütialakoz: “Herri batian galdü dütian hitzak berzian beitütü edirenen”. EGUIATEGUI ordian boztarioz jauzten zaikü: “Soberana ere lükiala beratan, bere zazpi hitzkondietaz”. Eüskaldüngo Eüskaran, eta Eüskararen edertazüna sortzen da batarzünian bere zazpi eskualdetarik “hitzkondien gatik, diranak: Nafarrakoak, Züberoako, Gipuzkoako, Bizkaiako ta Alabako hitzkondietan”.

Hanitxetan entzütén dügü Eüskara ezdeüsentako dela mentekideko bizitze huntan, Eüskal-Herritik elkh eta, ez dela emaiten. Eüskal-Herrian berian arren balio dia Eüskararen etxekitzia? Diala bi mente iraganik,

EGUIATEGUI-k orai bezala ezagützen zian “Eüskaldünen axolgabia”, bai eta Eüskararen eta Eüskaldünen etsaiak. Azkarki aküllatzen gütü Eüskara mintza dezagün gure “artian ta etsaien erezian”. Eüskal-Herrian bizi Eüskaldün bezala: Eüskara beita gure mintzoa, Eüskaraz ari.

Gero ez lotsa: Eüskaldünak, beharra dükianian, beste mintzoetan bada-kike elestan. Mentez mente hola izan beita: zunbat guretarik ez da mündü gü-zia gainti hahunakatü, itsasbazterrak ikertü, trabarik batere gabe. Harrematan arrotzeki sartzeko ikasi dütie eta orai ere “abantailla gatik” ikasiren dütie. Nihaurk, EGUIATEGUI-ren arabera, ezagütü düt eta orano ezagützen düt ene herritar untsaxko emaiten biarnesa, espaiñula ta frantzesa franko ehi-ki, ez dielarik lüzaz eskolan egonik ez eta libürietan ikasirik. Hobe baizik, bes-terik dakitelakoz, zeren “aspaldian dago errana, gizona dela hanbatetan gizon nola mintzo suerte beitaki”. Hanitx aipatzen dügü elebitarzüna. EGUIATEGUI-k deikü bai, bena lehenik Eüskara, gure ama mintzoa dela-koz.



J. B. Arxü idazlearen mendeurrena (Maule, 1981-VI-27). Ezkerretatik eskumatarat: Lougarot, J. Casenave, Fr. L. Villasante —Euskaltzainburua— eta J. L. Davant

Azkenta huntan, bürüpen bezala, nahi niro oihüstatü nula EGUIATE-GUI, diala bi mente goiti, Eüskalzale, aberzale kartsü izan zen. Gük haren arabera egin dezagün. Sailla handi dügü, bena bidia erakusten deikü. Berak kümitatzen gütü: “Ni beno langile hoberik diano, hetarik sortüren dela haren ohoriaren gatik oraño hanitx berzerik”. Harek bezala üken dezagün garra. Zer boztarioa haren ondotik erran ahal bageneza: “Ama hari dereiogün amorioa agertü” dügüla. Hor eskentzen deikün giltza: Eüskararen, herridiaren *Amorioa*.

Orano berriz goresmenak eta eskerrak Txomin PEILLEN-IBARBURU-ri EGUIATEGUI-ren lana ezagüterazi deiküna, bi mila oharpe-
nez lagüntürik.

EGIATEGI-Z GEROZTIKO ZIBEROTAR IDAZLEAK

Maule, 1981-VII-27

Jean Louis Davant

Hiru tandatan sailkatüko dütüt:

- hemeretzü-garren mentekoak
- bi gerlen arteko jenerazionea
- eta bi-garren gerlaren ondotikoa.

HEMERETZU-GARREN MENTEAN

Aitzindari dütügü bi eüskalzale handi:

— Antoine D'ABBADIE D'ARRAST, familiaz ene herritarra, Urrüstoi Abadiako baitzian aita,

— Augustin XAHO (eta ez "TXAO") atarraztarra. Algarrekin euskal gramatika bat antolatü zien. Berek güti zien eüskaraz izkiribatü.

Baina besteak lan hortara lehiatü zütien. Indar handia üken dü horien aküliak, bereziki d'Abbadie d'Arrast-enak.

ARXU-z ez daiziet deüs erranen, izena aipatüko baizik, hortaz baitate biharko jaia. (Ortografia zaharrean "ARCHU" izana gatik, "ARXU" [ü] ahozkatzen da, eta ez "ARTXU").

Beste gramatikalari bat, L. GEZE: "Eléments de grammaire basque, dialecte souletin" (1873).

Hatsarre hortan, beraz, lau izen, eta lauak gramatikolariak.

Emmanuel INCHAUSPE kalonjea (1815-1902) orok gogoan dügü. Hanitx izkiribatü zian, orotarik, baina beti ederki. Horren obretan berez deza-gün "*Andere Dena Mariaren hilabetia*", lan personala eta ez ützülpenezkoa: "le chef-d'oeuvre du chanoine Inchauspé" dio Pierre Lafitte jaunak.

IRIBARNE apezak ützi daikü bereziki:

- Ciberouko guthuna, 1852
- Misterio edo eguia gehienac, 1856
- Almanak Uskara, 1877
- “Sen Grat” (Oloroeko lehen apezküpiaren bizia), 1879.

J. B. ALTHABE apeza (+ 1911), Azkue-ren lagüntzale izan zen. Haren obretan:

- Ciberouko botanika edo lantharen jakitatie (Baionan, 1900-ean)
- Honkailu berrien enthelegia Ciberouko laborarier (1904).

Lan ohargarriak, zeren teknika geietaz güti erauntsi die gure aitzin-koek.

Félix LARRIEU medezi edo barbera (1863-1941), historiazalea izan zen frantzezesez. Baina eüskaraz ützi daizkü:

- Uskal Noelen lilia
- Almanak Uskara (Irigaray apezarekin eginik).

Dominique SALABERRY mauletar notaria 1970-ko Urrietan, Mauleko merian edo herriko-etxean ohoratü zian Euskaltzaindiak. Haren lan ohargarrienak:

- “Chants populaires du Pays Basque” libürü famatia (1870)
- Uskalduner: beti aitzina xuxen xuxena dabila Uskalduna (1889)
- La mascarade (in Tradition au Pays Basque, 1899)

Clément d'ANDURAIN de MAYTIE, adesa bijitatü düzien etxe hortako semea eta horren jabe den anbaxadore jaunaren anaia (1878-1916) gazterik hil zen lehen gerla handian. Georges Lacombe-ren adiskide mina zen. Pastoral bat ützi daikü, De MENDITTE apezarekin hontürük: “Uskaldünak Ibañetan” (1905).

Bestalde De MENDITTE-k katexima bat xiberotarrez idatzi zian, UHART Atarratzeko erretorarekin.

Aña URRUTY anderea, protestanta zen, eta protestant elizarentzat idatzi dütü bereziki ützüpenak.

ETXAHUN Barkoxe, orok badakigü nor zen eta haren obra ezagützen dügü, bereziki Haritschelhar jaunaren lanari esker.

J. B. CONSTANTIN Santa-Garaztarra (1847-1927) errejent egon zen Izpuran. Hanitx izkiribatü zian “Eskualdun Onean”, “Joanes Garaztarra” izenpetüz:

— olerkiak idatzi dütü, bereziki eüskal asteetan Antoine d'Abbadie-k antolatzen zütian primaketako

— prosan berriak arraheinki eman dütü

— Harrichabalet apez famatiaren bizitzea izkiribütan ezari

— Ziberotar eta Erronkariarren arteko solazak

— eta beste...

Xiberotar idazle inportanteenetarik dügü, bere denborakoetan gütienez.

HOGEI-GARREN MENTEAN

Hor bereziren dütüt bi epe: gerlen artea eta gerla ondoa.

GERLEN ARTEAN ezariko düt Aita LHANDE (1877-1955) nahiz aintzinetik ere ari zen. Haren hiztegian bada lan izigarria, eta parte bat Mitikileko FOIX apez ohiarenetik hontürik (1865-1922).

Bestalde ziberotarrez güti erauntsi dü Aita Lhande-k: Gipuzkeraz trebeago ümen zen, hartan idatzi dü haboro, eta bereziki roman delako eleberri bat, "YOLANDA".

Albert CONSTANTIN barbera (1873-1957), J. B. Constantin-en eta Santa-Garaziko dendariaren semea zen. Izpuran sortürik, Atarratzen hilik, lüzaz egon zen kontseilü jeneralean. Güti dü idatzi. Eskualzaleen-Biltzarrean egon zütian mintzaldi eli bat *Gure Herriak* agertü zütian.

ESPIL anaiak, Xoro Zalgizeko semeak, apezak ziren biak: bata Eskiulan erretor egon zen, bestea Garindainen (1884-1968). Hau ezagütü düt, Urrustoiko adorazionetan ama birjinari kontsekratzeko otoitze-peredikia harek baitzian egiten besperetan, behar bada besteak ez zirelako hortako behar bezalako trenpian. Bazkari oso hona eginerazten zian egün hortan Urrustoiko erretor Armagnague zenak (nahiz bera praubeki bizi zen) eta gaineala Uztaila betea zen, zinez beroa...

Espil gaixoari erriñi bat ere egiten zaien saihetsetik erretor lagünek, ene haurrean arinska phürü edireiten niana. Baina harek hanitx ontsa trozatzen zian ama birjinari kontsekratzea.

Apez saintü eta kartsü bat zen, erregetiarra düda gabe, denbora hartako apez haboroxeak bezala, hein bat jansenista segür ere, ideia zabalekoa ja ez.

Badakit bere parropiant gazte bati Bazkoak ükatzen zaitzola, pastoral errejentgoan hasi zelakoz.

Ber denboran oso zerbütanta zen, eta berriak arraheinki emaiten zütian Eskualdunean, eta gero Herrian, xiberotar garbi batetan.

Eskiulakoak berriz libürü bat egin zian sei-garren manamentiaz.

Jean de JAUREGUIBERRY barberak (1880-1952) frantzezera erauntsi dü haboroenik. Artikülü zonbait badütü halere eüskaraz, hala nola "Hegoa". Eüskal aditzaz lan bat hontü zian, püblikatü ez dena.

Haren arreba Madeleine de JAUREGUIBERRY, ohorezko Euskaltzain zenak ere eüskal aditzaz egin dü agertürük ez den lan bat. Bestalde moldatü zütian:

- eüskararen ikasteko metoda ttipi eli bat eskoletarako
- eta bi antzerki, ez dakit zoin, ez eta non dauden.
- Ipui biltzale ta erraile sotila zen.
- eüskal erakaskuntzaren alde peredikatü dü beti süharki, hitzez, obraz eta izkiribüz. (1884-1977).

EYHERAMENDY mauletar apezak ere eüskal metoda bat ützi daikü (1801) Idauzeko erretor egon zen lüzaz. Haren ikasle izan niz epe llabür batez Mauleko kolejoan.

Aipa ditzadan hiru ipuilari:

- Dominique BEHETY Larraintarra, Liginagako erretor hil dena diala hamar bat urte,
- Fabien HASTOY, izenez phürü ezagütiena (Betzülako aize epailea...)
- eta LANOUGUERE apeza, "Pette Xibero" izenpetzen ziana.

Bi horiek olerkiak ere hontzen zütien.

OXIBAR apeza, lüzaz misionist egonik hürrün, familiarekin beti eüska-raz leterakatü da.

J. B. MAZERIS apeza, Barkoxtarra, etnologiazko gaizetan idazle piper eta gatzdüna izan zen: Maskaradak, Tzintzarroskak, eta beste...

PICOCHE apeza, Barkoxtarra hau ere, Xiberoko berrien emailea Eskualdunean, Barkoxen erretiratürük dagoena.

ETXEGORREN Hauztarra, Mauleko erretor ohia (ene mintzaldi honez geroztik zentürük), Eskualzaleen-Biltzarrarentako lan eli bat agertü dütian Gure Herrian.

LIGUEIX Larraintar koblakaria, edo hobeki erran bertsülaria, aho-mihiz üken dügün handienetakoa, eta behar bada Beñat MARDO-rekin handiena dükegüna Ziberoan. Ezi bi Etxahunak aho-mihiz ohorezki ari baziren ere (lehenak Otxalde-rekin egin zian güdüka ezagützen dügü, aldiz bigarrena entzün izan dügü), izkiribüz trebeago ziren düda gabe.

Gazterik hil zen Ligueix, eta haren obretarik gütü da baratü (Boneta eta txapela, Espus-espusen kantorea...), Beñat Mardo-renetarik bezala, mañeto-fonarik ez baitzen ordian zoritxarrez.

BORTHIRY-SALA beste Larraintarra ere bertsülaria zen. Haren lane-tarik libürüxka batetan agertü berri dü Sü-Azia batarzünak.

Pastoral idazleak ez dütüt ahatze behar, ezagütürük direnak phürü (zeren besteetarik ere bada):

- AGUER (bost pastoral hontü dütiana)
- APECETCH Salanka Barkoxtarra (Guillaume II)
- SALABER Ozaztarra, gure artean bizi dena.

GERLA ONDOA

ETXAHUN Iruri 1908-1979, bertsütan hasi zen Ligueix-ekilan. Bere hoberenean zen Larraintarra (Game-Zihigalat ezkontürük), Etxahun aldiz ez orano zohi. Hots Ligueix nausi ziala dioie adinetako jentee. Gero kontreko-rik gabe baratü zen Xiberoan.

Zer nahi gisaz ere, izkiribüz trebeago zen Etxahun Iruri. Pastoral eta kantore hontzale bezala da handienik: bederatzü pastoral eta berrehün bat kantore (beren ahaideekin), zerbait da Ziberoko eta Eüskal-Herri güziko lite-ratüra popülarrean.

Guillaume EPPHERRE zena (1911-1974), Aita Lhande-ren ondotik eta ene aitzinetik Ziberoko Euskaltzain osoa, Altzürükütarra, “Gure-Herria” agerkariaren бүрү egon zen lüzaz. Obra hanitxen aita izan da:

- artikülü
- peredikü, bai Ziberotarrez, bai Lapurtarrez (hortan ere oso trebe zen)
- fedezko gaizetaz libürü
- Etxahun xaharraz mintzaldi “club du disque basque” delakoak egin diskan
- litürgia lanak prunki: eüskal litürgia harek dü xiberotarrez ezari
- eta zonbat holako...

Anai apeza, Grégoire (Diddue), gazterik zentü zaion (1929-1974), bera baino egün zonbait lehen. Eüskalzale süharra eta arraheina, beste hainbeste lanen egiteko bidean erori zaikün.

Beste hil handi bat: Jon MIRANDE zena (1927-1972), Pariseko Zibero-tarra. Aita Garindaineko zian, Ama Sohütako. Aitzindari handia izan da, bai prosan, bai poesian, ziberotarrez, lapurtarrez, gipuzkeraz eta batuan. Ikus:

— Igela agerkariaren zerrenda (Hordago editorial-etxeak libürü batetan agertü diana)

— idatz-lan hautatuak (Gero editorial-etxean)

— Orhoituz, poema saila (Kriselu editorial-etxean)

— eta beste...

Bere idein gatik bizi denboran bazter ütirik izan zen (errelijionez paganoa zen, aberriz eüskaldüna, politikaz esküin-mütürrekoa). Hil ondoan phürü ezagüt dezagün, eta haren mereximentiak ohora ditzagün.

Hortako ez gitian ehün-garren urte büriaren haidürü egon. Daigün urtean, hamar urte dütüke haren hiltzeak. Zertako ez günöke gorazarre ta omenaldi batez ohoratü behar, bere Garindaineko aita-herri eüskalzalean? Edo Sohütako ama-herrian?

Bizietan hor dügü Dominique (Txomin) PEILLEN, Pariseko Ligiarra, Santa-Garaztar berria, Jon Mirande zenaren lagün arraheina, lan hanitxen idazlea ziberotarrez, gipuzkeraz eta batuan: haietan nobela, roman eta eleberrriak ere badütü. Orai berri, doktor igan da Bordeleko Unibertsitatean, aipamen gorenarekin.

Eüskal-Herrian bizi izan balitz, harek hartze zükean gaur ni nizan lekü hontarik aritzea, ez baitzatekean ihor egokiagorik. Agian berehala ütüliren zaikü erakasle bezala, orai Santa-Garazin zanko bat ja sartürük baitü.

Beste bizietaz aipamen llabür bat:

— Marcelin HEGUIAPHAL Sohütarra, pastoral errejent bezala hain ezagütürük, ez har gatik idazle bezala. Baina pastoral zonbait ez ote dü ixilka hontü, edo arrahartü eta ontsa betatxatü phürü? Balinba!

— Junes CASENAVE-HARIGILE Santa-Garazikoa, orai orok eza-gützen dügüna, olerkaria, pastoral idazlea eta Euskaltzain ürgazle berria.

— Jean EPPHERRE Altzaiarra, Atarratzeko erretora, gramatikalaria, hiztegilaria, olerkaria ere halakordian... Haren obretan: "Etxahun koblakaria".

— Thomas UTHURRY Atarraztarra, Arraine kartielekoa, Baionako seminario handian erakasle dena, kazetetan lüma hona erakutsirik orai ixilik dagoena...

— ERREÇARRET Hautzarra, Altzaiko erretora, litürgia lanetan langile ixila.

Kantore hontzaleetan:

— ETCHECOPAR-ATTULI Barkoxtarra, kantore famatü zonbaiten hontzalea (Pilotarien-Biltzarra, eta beste...), aspaldi hontan zoritxarrez ixilik dagoena

— Roger IDIART, lapurtar apeza, xiberotar berria, kobla eta kantore xorrotxen aita

— Beñat SARASOLA, Lapurtarra eta xiberotar berria hau ere, kantore idazlea eta kantaria

— Niko ETCHART Altzürükükoa, kantore egilea eta kantaria

— BEDAXAGAR Ordiñarbekoa nork ez dü ezagützen? Kobla idazten ere badaki. Eia, Iparragirre, üsüsago lümaz, edo aho-mihiz ere berdin...

— AGUERGARAY Muskildiar fraideak ere txestaerazi daikü olerkian lüma xotil bat. Orai apetitia piztürik, ez gitzala hortan üt.

Izen hanitx, apez hanitx, eüskal literatüra güzian bezala. Baina laikoak ere ez gira hain güti. Obra hanitx, obra llabürarak, barreat, bildü beharrik. Katexima eta gramatika, ützülpn ere bai, hargatik ez hainbestekorik.

Obra orijinalak ez dira güti: pastoral, olerki, ipui, alegia, etnologiazko lan... Hots, herri-literatüra franko aberatsa. Badakigü hau ez dela aski, nahiz beste zerbaiten lürra den.

Azi hanitx badügü, baina üzta nasai eta zohirik ez oranokoan. Zerbait haboro behar dügü: beste popüliek bezala, literatüra gorago eta kültöago bat ere behar dügü Eüskaldünek. Hori xiberotarrez egin daitekea? Bere partea phürü ekarri behar dü Ziberoko eüskararak ere.

Lürra haz eta emenda dezagün, aziak ontsa haz, eta literatüra gorago eta nasaiago bat ardietsiren dügü agian.

Erran dü: idazle hanitx, obra hanitx, baina obra llabürarak, ez orano haziak. Horrek erakusten daikü amatürarak girela:

— denbora gütiegi dügü ikasteko eta idazteko

— ez gira hortarik bizi, irakurle güti dügülakoz.

Eüskal obrak nola bil, püblika eta zabal? Hortako behar da denbora, erran nahi baita diharia. Behar dira gisa orotako lagüngoak, bereziki poterea dienen ganik. Holako lagüngoarik edirenen dügia Eüskal-Herrian, eüskaraz idatzi lanentzat?

Orai üdüri lüke zerbait ardietsiren dügüla Parisetik eta Bordenetik. Baina beste hainbeste ükenen dügia Pauen eta Eüskal-Herrian, aments?

Lüma eta papera baino zerbait haboro behar da literatüra baten hazteko. Emanen daikieia?

OHAR BAT

Irakurlea ohartüko da hemen bi ortografa mota erabili direla xiberotarrez:

1. Bata, ETCHEBARNE Altzürüküko jaun errejentaren, Frantxua DASCON-en eta aita Junes CASENAVE-HARIGILE-ren mintzaldietan.

2. Bestea enean.

Lehen, xiberotar ortografa ezagütiena, dïala jenerazione bat püntian ezari zien ordüko idazleek, bereziki LAFONT eta Guillaume EPHERRE euskaltzain osoek.

Bigarrena, Euskaltzaindiaren oraiko ortografa da. Euskaltzain bezala, eginbide zait honen egartea, izan dadin Batuaz, Lapurtarrez, Baxe-Nabartar bi euskalkietan ala Ziberotarrez. Baina ez düť xiberotar idazle lagüner inposatü nahi.

Euskaltzaindiaren ortografa arrazukaz honar erazi ez düdano, aholkü hau emaiten/düt Ziberotar güzier:

Nola nahizka eta bakoitzak zien ogüz izkiribatzea ützirik, lehen ortografa hura phürü ikas eta erabil ezazie. Gero aisa igaranen zirade Euskaltzaindiaren ortografala, liferentzia ttiptiak baitira bien artekoak.

Bestelan zer agitzen da? "Pastoral" hitzaren idazteko hogei-ta-lau (24) manera ediren dü-tüt! Norat ari gira gaixo Xïbero ttiptiñi hontan, ber hitza 24 gisetara idazten dügüno?

Hortaz xehetarzün haboro emanen daiziet "Euskararen lekuko" bezala Euskaltzaindiak agertüko dian *BELAPEYRE*-ren xiberotar lehen "Catechima laburra" delako libürïan.

BIBLIOGRAFIA LLABURRA

ESPIL - Xoro: B.S.V.A.P., 1969, 24, N. Alzola.

BEHETY: Gure-Herria, 1927, 1929, 1931, 1932, 1933.

HASTOY: Gure-Herria, 1935, 1936, 1937.

P. LANOUGUERE, Pette Chïbero: Gure Herria, 1924, 1930, 1934, 1935.

J.B. MAZERIS: Gure Herria, 1927, 1931, 1932, 1933.

PICOCHE: Gure Herria, 1924-1932.

L. LIGUEIX (+ 1935): Gure Herria, 1928, 1957; Aintzina, 1942.

G. EPPHERRE: Gure Herria, 1931, 1952, 1953, 1974.

J. MIRANDE: goian ikus, laugarren orrian.

JEAN BAPTISTE ARXÜ IDAZLEAREN MENDEURRENA

Maule, 1981-VI-27

Jean Haritschelhar

Jaun auzapeza, andereak eta jaunak,

Gaur, hemen bilduak girenez geroz, Ziberoko hiri nagusi hontan, SU AZIA batasunak gomitaturik, nahi nituzke bi hitz erran, Ziberotarrerri erakusteko zer den Euskaltzaindia eta ere zer harremanetan sar daitezkeen Ziberoa eta Euskaltzaindia.

Euskaltzaindia egina izan da, izenak salatzen duen bezala, euskararen zaintzeko. Sortu zen, duela orai 60 urte baino gehiago, Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroako lau diputazioen nahiaz, lauek erabaki baitzuten beharrezkoa zela, ez bakarrik gure euskara maitea zaintzeko baina ere bultzatzeko, holako elkarte berezi bat hamabi ziren lehenbiziko euskaltzainak; heietan iparraldekoak hiru, aita Lhande ziberotar euskalkiaren lekuko. Geroztik hogoitalauetarar goititu da euskaltzainen kopurua eta ziberotar euskalkiak beti ukan du bere euskaltzaina: aita Lhande-en ondotik, Guillaume Eppherre Altzürükütar jaun kalonjea eta, hau zendu zelarik, Jean Louis Davant erakaslea.

Beraz, ziberotarra osoki sartua da Euskaltzaindian eta ez du Euskaltzaindiak baztertu nahi ziberotar euskalkia. Diote batzuek —badira holakoak edozoin erresumatan— euskalkien kontra dela Euskaltzaindia eta euskalkiak nahi dituela hil. Arrazoinik gabeko errana eta diot goraki —bereziki gaur Ziberoko hiri nagusi hontan— Euskaltzaindiak ez dituela sekulan arbuia euskalkiak, ez dela behin ere izan eta ez izanen euskalkien etsaia. Nola erran daiteke holakorik? Nork ez du ikusten, eta denbora berean ezagutzen, euskalkiak direla euskararen aberastasuna; haieri esker hobeki aztert daitekeela zer izan den euskara iragan denboretan, zer den orai ere. Beti izanen da euskalkia, orai arte izan den bezala, haur bakotxak amaren ezpain sakratuetarik entzun eta ikasi duen mintzaira, familian mintzatzen den hizkuntza, ama eskoletan erabilia izanen den lengoaia, herriak bere egun guzietako harremanetan eskuarki atxikiko duena.

Bainan nork ez du ikusten eta ezagutzen —ez balin baditu gogo bihotzak itsutuak— beharrezkoa digula eskolarentzat, irrati eta telebixtarentzat, literaturarentzat denek irakur eta konpreni dezaketen euskara bat, euskara batu bat.

Diot “eskolan”, emeki emeki beharko baitu haurrak bere euskalkia ongi ezagutu-eta, euskaldun guzien arteko lokarri izanen den euskara batua ikasi.

Diot “irrati eta telebixtan”, ez baitaitezke asma zazpi irrati eta zazpi telebixta Euskal Herri osoan, bainan denek ulert dezaketen mintzaira bat.

Diot “literaturan”, euskaldun irakurle guziek onart dezaketen euskara literario bat, biharko munduan, mail goragoko literatura baten sortzaile izan baitaiteke.

Horiek hola, geroari begira, ez dugu ahanzten ahal ziberotar euskalkiaren berezitasuna eta aberastasuna. Nola ahanztz, duela bost mende baino gehiago ziberotar olerkari batek “huntü” zuela geroztik kantatzen den “Berreterretxen khantoria” ez baita hori bakarrik izan lur hontan sortu den kantore xarmagarria? Nola ahanztz ere Ziberoko herrian jokatu diren “phastoralak” eta azken hogoita hamar urte hauetan emanak izan direnak Etxahun Iru-ri eta aita Junes Casenave idazleeri esker? Nola ahanztz —nik segurik ez— Barkoxeko herriak eman diola euskal literaturari erromantiko olerkaririk handiena? Berenak bere utzirik ziberotarrerri, jakin dezatela duten berezitasuna eta aberastasuna ez dela bakarrik haiena bainan euskaldun guziena. Jadanik badakite: ikusi baitituzte Euskal Herriko zazpi hegaletarik heldu euskaldunak pastoralen mirestera; azkena, “Iparragirre”, Euskal Herri osoarena da, nahiz ziberotarrez idatzia.

Geroari begira ere, ez du Euskaltzaindiak ahanzten Ziberora: “Atlas linguistiko” bati buruz hasiak dira aparailuak eta obra baliosa hori nahi luke bultzatu beharrezkoa baitugu gure euskalkien hobeki ezagutzeko eta daukaten tokiaren hobeki aztertzeko. “Euskararen lekukoak” deitu liburu sortan agertuko dira ere ziberotar idazle zaharren obrak, hala nola agertu ziren, Euskaltzaindiaren laguntzari esker, Etxahun Barkoxeren olerki eta kantuak. Hortakotz beharko dira langileak, ikertzaileak, eta Euskaltzaindiak, bi besoak zabalik, “ongi etorri” edo “hunki jin” maitekorrena eginen die.

Ikusten duzuen bezala, baditu Euskaltzaindiak bere xede eta helburuak: Euskararen zaintzeko eta bultzatzeko biltzen ditu Euskal Herri osoko euskaltzain oso eta urgazleak, mugari kasurik egin gabe, hori baita Euskaltzaindiaren berezitasunik handiena. Hortakotz haren menpean behar dugu denek bat egin ziberotarrek manexekin, Iparraldekoek Hegoaldekoekin, beti gogoan atxikiz, euskalkiak diferenteak badira ere, euskara bat dela eta hizkuntzaren giblean kultura bat daukagula. Gure ikerketek, linguistika mailan, literatura mailan, etnologia mailan, erakusten daukute, atzo baino hobeki gaur, gaur baino hobeki bihar, euskaldun guzien arteko lokarriak direla hizkuntza eta kultura, eta Euskal Herriaren batasuna hizkuntzan eta kulturaren datzala.

J. B. ARCHU

Altzürükü, 1981-VII-28

Etchebarne Dominika, Altzürükiko errejenta

Phüntü hetan Napoleon 1-ena zen Frantzia-ko nausi. Gerla hanitx irabazirik, heñik goreniala helturik zen. Hantik aintzina geroago eta ahalago.

Archu, Altzürükün sorthü zen 1811-an. Izen hori bada orano herri hundertako etxe batetan (1). Artxiba zahar elibatetan horren sortzia aiphaturik da. Aita zurgin zian. Amarentako ez dakigü gaiza handirik, salbü deitzen zela “Poupoune” irakurtzen ahal dügü “Etat civil” delako paperetan. Maneraren arabera izen gaintiko zerbait bezala zian.

J. B. Archu-ren haur denboraren gañean, gaiza güti jakin ahal izan dügü. Haren aitak ez zakian ez izkiribatzen ez irakurtzen, zeren khürütxe bat eginez sinatü zian, merian haurraren presentatzian. Ikhusten dügün bezala, holako familia simple batetarik elkhitzez, mereximentü haboro baizik ez dügure herritarrak, heltü den kargietarat heltzeko.

Eskolan nun ibili da? Phentsatzen ahal dügü herrian berian bazela ordünkorik eskola zerbait. Bena ez dügü jakin ahal izan zer eskoletan ibili den, haboroziz zer plantaz Altzürükütik juan zen.

– Errejent kargiala heltü zen 1834-ian. Lehentze Bordele-ko eskola libro batetan bere kargia hartü zian.

– 1836-ian ükhen zian eskola publikuan aritzeko parada. Ordian jin zen La Réoleko herrialat kargü horren juanarazteko 14 urtez.

– “Bachelier” igaran zen 1837-ian.

– 1850-ian inspektür igaran zen La Réoleko arrondizamentü hortan berian. Ofizio hori etxeki zian 1877-iala artino.

Bere lanaz kanpo ükhen dü beste kargü zunbait:

- Izan da La Réoleko kuntsellüko 1851-atik 1870-iala artino. Arte hortan bi aldiz axüantgoa etxeki dü, 1852-tik 1855-iala eta beste behin 1865-etik 1869-iala artino.

(1) “Arxia”.

- “Caisse d’Epargne”-ko gehienetarik izan da urthe zunbaitez.
- Bere arrondizamentuko “Comice Agricole” delakuaren sekretari jeneral izan da beste urte zunbaitez.
- Beste uhurezko kargü ere etxeki dü.

Artxibetako paper zaharretarik ikhusten dügü uhuraturik izan dela kargü eta medalla ükhenez, untsa kuntsideratürik beitzen. Bere lanaren aldetik irakurtzen ahal dügü üsü, gizon phestia zela, zinez eskolatürik, haren bizitze manerentako deus ez erraitekorik, jüjamentü xüxena, bere peko zütian errejententako bardin heñ bat gogor, bena beraren bürüzagi baten erranetik, aisaxka oro untsa eginik atzamaiten eta errejentek hura behatzen. Bere lanetik kanpo, ber gizontarzüna irakusten ükhen behar zian, zeren bethi aiphatürik dira Archuren mereximientiak. Orotan behatürik zen gizona izan behar zian.

Salbü paper zahar batetan aiphatzen die haren etsai bat: Jaun suprefeta. Bere inspektür kargia zian denboran, bere peko eskola batetan izan zen zer-bait afera. Archu, xüxen nahi beitzen izan, suprefetaren kuntre jelkhi zen eta xüxena baliarazi. Gero, prefosta, bestiak malezia etxekitzen zaion (ez da muda hori atzokua). Suprefetak nahi izan zian lekhüz khanbiarazi ere. Bena Archu-ren althia etxeki zien akademiako inspektürarak eta rektürarak, berri hunak emanez ministroari. Archu La Réole-n baratü zen.

— Bere familiaren aiphatzeko, badakigü ezkuntü zela 1850-ian Jeanne Seze-kilan. Alhaba bat ükhen zien. Berantago hura ezkuntü zen Musde PIET-ekilan. Alhabaren senharra, La Réole-ko kolejiuan matematika profezür zen. Bere inspektür kargia ützi zian phüntü hetan, emaztia eri handia zian.

— 1881-ian begiak zerratü zütian. Bena haren izena aiphatzen badügü egün, ehün urteren bürrian, harek ützi deikün obraren gatik da.

— 1847-an berak 36 urthe zütianian izkiribatü zian bere lehen libria. Bernat Detxepare-k 1545-ian izkiribatü neurthitz elibat üskaraz, Archu-k frantsesez itzülik agertarazi zütian Bordele-n. Diotenaz ez zen lan hori eta jarraitzen zaion itzülpena hoberenatarik. Orano gütiago horren ondatik agertarizi libria.

Hura zen “Proverbes Basques recueillis par Arnaud Oihenart”, bigarren agertaldia, arra hunkirik eta emendatürik frantses itzülpen batez, Archu-k agertarazi zian Paris-en (hau ere 1847-an). Halere Archu gaztiak egin bi lan horietan irakusten deikü üskal literatürarentzat zian gar arraroa.

Bere denboran La Reole-ko errejentak (ez zen orano inspektür) üskara bezain maite beitütü üskaldünak, haientako agertarazten dü La Reole-n berian, Pasquieren etxian, librü lodi bat, berak eginik. “La Fontainaren aleg-hia berheziak neurthitzez frantsetetik uskalat itzülik”. Lan hori 1848-an. Zertako Archu-k egin dü lan hori?

Beraren erranetik horren aintzin begian “Frantzia güziak altxatzen duen gizon horren ohizpenaren altxatzia Uskal herriaren erdian” dü xerkhatzen. Gero nahi zian bere herritarrek “frantses mintzajia ikhas ahal dezaten aisago”.

Bethi ber ideia hortan aiphatzen dü ere, bi mintzajetan izkiribatürük ez dela librürük. Archu berak erraiten dü: “Uskal Herriko haurrek beharlukete, hola da ja ene ustea, “habil enekinkobat”, gramatikabat zoinekin ikhas ahal dezen berek frantses hizkuntza.

Lan horri бүрүз plantatüko da librü huntan; “Aintzin solas” lüze bate-tan emaiten dü üskararen giltz zunbait, haiekin, hantik aintzina frantsesialat igaraiteko.

Berriz aipatzeko La Fontainaren aleghiak, ez zen ez Archu lehena, horien üskaraz itzültzale, haboroziz azkena.

Archu beno lehen Agustin Iturriaga, Hernaniko aphez irakasle eta poeta, Gipuzkoarrak (1778-1851) Donostian agertarazi zütian bere obrak.

Gero Archu, aiphatü dügün gure herritarra.

Ondotik bada Goyhetehe, Urruñako apheza; Baionan agertarazi dütü bere lanak.

Izan dá geroztik beste franko. Ahal dügü aiphatzen Zaldubi-Adema, Atharratzeko aphez nausi izan zena, Léon Léon Ahazpandarra, Fabien Has-toy Atharraztarra eta mentüraz ezagütiena Oxobi.

Bena ororen artetik Altzürüküko semiak uhurezki irauntsi dü eta haren lanak arrakasta ükhen.

Huna orai **Belia eta Axeria** Archu-k üngüratü bezala:

BELIA ETA AXERIA

J. B. Archu

Zuhain baten kukulan jarririk,
 Bele jauna zagon gazna bat moskoan.
 Axeri jauna usainaz deirurik,
 Gelditu zen Zuhainaren ondoan.
 Hitz hoiek diotzu hegaltariari:
 “Egun hon, agur, gure jaun Beliari!
 Zoin polit, zoin eder den!
 Egiazki zure botzak zaiaren
 Balin badu iduria
 Bortutan diren ihizi ederrenen
 Zu zira erregia!”

Beliak hitz hoeitzaz hanturik,
 Bere botz ederra erakutsi nahi du;
 Mosko handi bat zabalturik,
 Gazna lurrerat uzten du.
 Axeriak gazna atzamanik,
 Beliari erran zuen ordian:
 “Jakín zak, jauna, lausengaria,
 Hari beha denaren kostuz mundian,
 Betidanik izan dela jankidia.
 Ene lezioneak, arauz, balio dik,
 Gazna bat segurki”.

Beliak, beranzki,
 Bere tontokeriaz ahalketurik
 Zin egin umen zuen
 Geiago etzutela atzamanen.


*Christiane Etchebarne
 Altzürüküko Dominique Etchebarne
 errientaren alaba gazteak emana.*

— 1848 urthia Frantziaren historian urthe handia agitü zen. Bigarren errepublika sorthü zen. Errepublikazale handi izan ziren Uskaldün zunbait. Bata xiberotarra, Agosti Chaho, Baionako “l’Ariel” deithü kasetarenbürüzagia. Badakigü azkenian ez ziela garhaitü ez errepublikak, ez Chaho errepublikazaliak, Etxehun Topet-en lagüntzaren gatik; bena idüri lüke, behin bederen, Chaho-ren althia hartü ziala Archu-k ere.

1848-an Fore eta Lasserre-nian Archu-k agertarazten dütü “kantü patriotikak”, “Marseillaise” eta “Chant du départ” üskaraz itzülik. Bai eta beste bi khantore, bata Uskaldünen eta bestia errepublikazalen uhuretan.

Halere Inperadora (aldi huntan Napoleon III-ena) nausitü denian, Archu-k üzten dü politika eta berriz Uskaldünen eskolatzia goguan, lanian hasten da.

— Ehun urthe lehenago, Sarako medezi, ETCHEBERRI deitzen zenak, egin zian latinaren ikhasteko gramatika bat. Haren ber manerala, Archu-k plantatzen dü gramatika bat, “Uska eta frantses gramatika, Uskal Herriko haurrentzat egin”. Agertarazi zian Baiona-n, Fore eta Lasserre-nian, 1852-an. Bizpalau agertaldi izan ziren eginik igaran den mende hortan.



J. B. Arxü idazlearen mendeurrenaren oroitarria (Altzürükü, 1981-VI-28)

Usü erranik izan beita errejentek diela üskara eho, zunbaitek heltübada bai, bena Archu bezalakuek ez.

Berak dion bezala, hartzen dü lehenik ikhasia, gero igaraiteko ezagützen ez deniala. Hala hala üskararik igaraiten da frantsesialat. Aisago inthelegatzeko emaiten dütü zühür hitz ejerren zunbait eta Uskal Herriko historiaren berri zunbait. Hala nula Dagobert erregiaren tropak izan ziren zaflatürük Xiberotarretzaz.

Bethi, güti edo aski, abüsaraztez xerkhatzen dü ikhasaraztia, Archu-k.

 - 9) Répondre aux consultations des lecteurs et des chercheurs.
 - 10) Préparer le Catalogue de la Bibliothèque.
25. Le Bibliothécaire sera en relation avec le Trésorier pour programmer les achats et se conformer au budget.

ALFABETATZE EUSKALDUNTZE KOORDINAKUNDEARI BURUZ ONARTURIKO ERABAKIA

Gasteiz, 1981-VI-12

Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea

Lankideok:

A. E. K.-k R. Arregiren asmoetatik sortuz geroztik, euskararen alorrean egin duen lana, benetan eskergarria izan da. Ukatu ezinezkoa zaigu hamabost urteren buruan alfabetatzen eta euskalduntzen arduratu diren guziek berengan aurkitu dituzten bekak, euskararentzat laguntzak urri izan direnez. Horregatik, Euskaltzaindiak eskertzen zaituzte ekintza horretan partaide izan zirenak eta orain zaretenok ere.

Euskaltzaindiak, bere ahalmen murriztekin ere, iragan garai haietan ahal bezala bere laguntza eta babes osoa eman du, euskararen alde lan egiteko erakunde egokirik ez zenez.

Gure gizarte honen egoera berrian, dirudienez, Eusko Jaurlaritzak adinekoen euskalduntzea bere gain hartuko du. Euskaltzaindiak orain arte hutsune bat bete badu ere, normalizapen garaietan ez luke bere agintariekin norgehiagoko edo konpetentzian sartu nahi.

Euskaltzaindiaren izenean, beraz, ofizialki jakinarazten dizuegu Eusko Jaurlaritzako erabakien esanera gaudela. Aurrerantzean ekintza honen ardurara osoa eta bakarra, guri dagokigunez, haren esku uzten dugu.

Euskaltzaindiaren izenean, Jagon sailburu aldetik, behin eta berriz eskertzen dizuegu egin duzuen lanagatik.

EUSKALTZAINDIKO BATZORDEEN ORGANIGRAMA

(Loiolan, 1981-I-24ean, onartu zen arabera)

Egiturazko Batzordeak

Buru: L. Villasante

Euskaltzainburugoa:

Burua: L. Villasante

Buru-ordea: J. Haritschelhar

Idazkaria: J. M.^a Satrustegi

Diruzaina: E. Knörr

Iker Sailburua: L. Mitxelena

Jagon Sailburua: J. San Martin

Idazkari-ordea: J. L. Lizundia

Ekonomi batzordea:

E. Knörr, *buru*

J. J. Zearreta, *eragile*

X. Gereño, *kontulari*



Azkue Biblioteka batzordea:

Kideak: A. Irigoyen, *buru*

J. A. Arana, *idazkari*

E. Erkiaga

J. San Martin

X. Kintana

Ekonomi batzordeko bat

Euskera aldizkaria eta argitalpenak:

Euskaltzainburua: L. Villasante

Buru-ordea: J. Haritschelhar

Idazkaria: J. M.^a Satrustegi

Kideak: P. Altuna

A. Irigoyen

P. Lafitte

L. Mitxelena

L. Akesolo

J. A. Arana

Eragile: R. Badiola

Iker Saileko Batzordeak*Buru:* L. Mitxelena*Aditza:*

Atal eragilea: P. Altuna, *buru*
 J. L. Alvarez, *idazkari*
 J. L. Davant
 P. Lafitte
 I. Berriatua
Kontseilarien atala: A. Irigoyen
 I. Baztarrika
 X. Kintana
 F. Mendizabal
 P. Pujana

Dialektologi batzordea:

F. Ondarra, *buru*
 J. A. Letamendia, *idazkari*
Eragile: A. Irigoyen
 K. Rotaetxe
 A. M.^a Etxaide
Kontseilariak: J. M.^a Satrustegi
 J. M.^a Etxebarria
 Ch. Videgain

*Herri Izendegia:*

L. Mitxelena, *buru*
 J. L. Lizundia, *idazkari*
 E. Knörr, *Arabatik*
 A. Irigoyen, *Bizkaitik*
 J. San Martin, *Gipuzkoatik*
 F. Ondarra, *Nafarroa Garaitik*
 E. Larre, *Nafarroa Beheretik*
 J. L. Davant, *Zuberoatik*
 P. Charritton, *Lapurditik*

Herri Jakintza:

A. Zavala, *buru*
 J. M.^a Satrustegi, *idazkari*
 X. Diharce
 A. Irigoyen
 E. Larre
 P. Guilsou
 G. Lz. de Gereñu

*Euskararen Lekukoak:*

J. Haritschelhar, *buru*
 L. Villasante, *idazkari*
 P. Altuna
 P. Lafitte
 A. Zavala
 L. Akesolo
 N. Alzola

Gramatika batzordea:

P. Lafitte, *buru*
 J. Haritschelhar, *buru-orde*
 P. Goenaga, *idazkari*
 M.^a P. Lasarte, *idazkari-orde*
Kideak: P. Altuna
 A. Irigoyen
 J. L. Alvarez
 X. Kintana
 J. A. Mujika
 K. Rotaetxe
 R. Badiola

Jagon Saileko Batzordeak*Buru:* J. San Martin*Oinarrizko Euskara:*

I. Berriatua, *buru*
 J. J. Zearreta, *idazkari*
 J. L. Alvarez
 X. Kintana
 J. L. Goikoetxea

*Irakaslegoa:*

A. Irigoyen, *buru*
 J. J. Zearreta, *idazkari*
 P. Altuna
 E. Knörr
 P. Arregi
 P. Charritton
 J. Fz. Setien
 X. Kintana

Kideak:

X. Mendiguren
 J. A. Mujika
 P. Uribarren
 J. M. Aleman
 A. Ariznabarreta
 G. aurrekoetxea
 M. Azkarate
 R. Badiola
 G. Elorza
 J. L. Goikoetxea
 I. Usabiaga

Euskalariekin Harremanak:

Batzorde Eragilea:
 J. San Martin, *buru*
 J. A. Arana, *idazkari*
Kideak: J. A. Etxebarria
 X. Gereño
 P. Sancristoval

Kontseilariak:

L. Mitxelena, Iker Sailburua
 J. M.^a Satrustegi
 P. Altuna, *aleman eremua*
 E. Knörr, *ingal., japoniar eremua*
 J. Haritschelhar, *frantses eremua*
 K. Rotaetxe, *frantses eremua*
 X. Kintana, *sobiet eremua*
 J. Bilbao, *Ipar Amerika eremua*



Bertsolaritza:

A. Zavala, *buru*
 J. M.^a Iriondo, *idazkari*
 A. Irigoyen
 E. Larre
 J. M.^a Aranalde
 F. Artola
 M. Itzaina

Literatura batzordea:

F. Krutwig, *buru*
 (gainontzekoak oraindik izendatzeke)

Kideak:

M. Izeta
 J. M.^a Lekuona
 A. Aranburu
 J. M. Etxezarreta
 R. Iraola
 A. Muniategi

Comisiones estructurales

Presidente: L. Villasante

Euskaltzainburugoa (Consejo de Gobierno):

Presidente: L. Villasante

Vicepresidente: J. Haritschelhar

Secretario: J. M.^a Satrustegi

Tesorero: E. Knörr

Presidente de la Sección de Investigación: L. Mitxelena

Presidente de la Sección Tutelar: J. San Martin

Vicesecretario: J. L. Lizundia

Comisión Económica:

E. Knörr, *presidente*

J. J. Zearreta, *gestor*

X. Gereño, *contador*



Biblioteca Académica Azkue:

A. Irigoyen, *presidente*
 J. A. Arana, *secretario*
 E. Erkiaga
 J. San Martín

Vocales:

X. Kintana
 Un miembro de la Comisión
 Económica

Revista Euskera y publicaciones:

Presidente: L. Villasante
Vicepresidente: J. Haritschelhar
Secretario: J. M.^a Satrustegi
 P. Altuna
 A. Irigoyen

Vocales:

P. Lafitte
 L. Mitxelena
 L. Akesolo
 J. A. Arana
Ejecutivo: R. Badiola

Comisiones de la Sección de Investigación

Presidente: L. Mitxelena

*Comisión del Verbo:**Subcomisión ejecutiva:*

P. Altuna, *presidente*
 J. L. Alvarez, *secretario*
 J. L. Davant
 P. Lafitte
 I. Berriatua

Subcomisión consultiva:

A. Irigoyen
 I. Baztarrika
 X. Kintana
 F. Mendizabal
 P. Pujana

Dialectología:

F. Ondarra, *presidente*
 J. A. Letamendia, *secretario*

Subcomisión ejecutiva:

A. Irigoyen
 K. Rotaetxe
 A. M.^a Etxaide

Subcomisión consultiva:

J. M.^a Satrustegi
 J. M.^a Etxebarria
 Ch. Videgain

*Nomenclátor de Entidades de Población:*

L. Mitxelena, *presidente*
 J. L. Lizundia, *secretario*
 E. Knörr, *de Alava*
 A. Irigoyen, *de Vizcaya*
 J. San Martín, *de Guipúzcoa*
 F. Ondarra, *de Alta Navarra*
 E. Larre, *de Baja Navarra*
 J. L. Davant, *de Zuberoa*
 P. Charritton, *de Lapurdi*

Saber Popular:

A. Zabala, *presidente*
 J. M.^a Satrustegi, *secretario*
 X. Diharce
 A. Irigoyen
 E. Larre
 P. Guilsou
 G. Lz. de Gereñu

*Testigos del Euskara (clásicos, etc.):*

J. Haritschelhar, *presidente*
 L. Villasante, *secretario*

Vocales: P. Altuna
 P. Lafitte
 A. Zavala
 L. Akesolo
 N. Alzola

Comisión de Gramática:

P. Lafitte, *presidente*
 J. Haritschelhar, *vicepresidente*
 P. Goenaga, *secretario*
 M.^a P. Lasarte, *vicesecretaria*

Vocales: P. Altuna
 A. Irigoyen
 J. L. Alvarez
 X. Kintana
 J. A. Mujika
 K. Rotaetxe
 R. Badiola

Comisiones de la Sección Tutelar

Presidente: J. San Martín

Euskara Básico:

I. Berriatua, *presidente*
 J. J. Zearreta, *secretario*

Vocales: J. L. Alvarez
 X. Kintana
 J. L. Goikoetxea



Profesorado:

A. Irigoyen, *presidente*
 J. J. Zearreta, *secretario*

Vocales: P. Altuna

E. Knörr
 P. Arregi
 P. Charritton
 J. Fz. Setién
 X. Kintana
 X. Mendiguren
 J. A. Mujika
 P. Uribarren
 J. M. Alemán
 A. Ariznabarreta
 G. Aurrekoetxea
 M. Azkarate
 R. Badiola
 G. Elorza
 J. L. Goikoetxea
 I. Usabiaga

Relaciones con Vascólogos:

Subcomisión ejecutiva:

J. San Martín, *presidente*

J. A. Arana, *secretario*

Colaboradores: J. A. Etxebarria

X. Gereño

P. Sancristóval

Subcomisión consultiva:

L. Mitxelena, *presidente de la Sección de*

Investigación

J. M.^a Satrustegi

P. Altuna, *sector alemán*

E. Knörr, *sector ingl., japonés*

J. Haritschelhar, *sector francés*

K. Rotaetxe, *sector francés*

X. Kintana, *sector soviético*

J. Bilbao, *sector norteamericano*

*Bersolarismo:*

A. Zavala, *presidente*

J. M.^a Iriondo, *secretario*

Vocales: A. Irigoyen

E. Larre
 J. M.^a Aranalde
 F. Artola
 M. Itzaina
 M. Izeta
 J. M.^a Lekuona
 A. Aranburu
 J. M. Etxezarreta
 R. Iraola
 A. Muniategi

Comisión de Literatura:

F. Krutwig, *presidente*

(resto, aún sin designar)

EUSKALTZAINDIAREN BATZAR AGIRIAK

LOIOLAKO JARDUNEN BATZAR AGIRIA

1981-I-23, 24

Loiolan, 1981.eko Urtarrilaren 23 eta 24an, bi egunaldiko batzarrak egin ditu Euskaltzaindiak, azkeneko karguberritze ondoan datorren urtebiko plangintza zehazteko asmoz. Barne giroko jardunak izan arren, Sail bakoitzari dagozkion batzordeetako idazkariak ere deituak izan dira, euskaltzain oso guziei egin zaien deiarekin batera.

X. Diharce eta P. Larzabal jaunek ezin etorria idazkiz bialdu dute, zerbait bozkatzekorik balitz P. Lafitte eta J. Haritschelhar euskaltzainkideei beren botza ematen.

Ostiralean 23, goizeko hamaiketan hasi da lehenbiziko batzarra Loiolako Gogarte-etxean. Euskaltzainburuak batzartuei ongietorria eman die lehenik, jardun hauen xedea zoin den aditzera emanez. Gure egiturak zertan hobetu eta Barne Erregeletan zer aldatu ikusten joatea dela, esan du, egun hauetako lanen helburua.

Egitaraua agertzera eman du J. L. Lizundiak lau batzarre mugatuz: Iker Sailekoa, Jagon Sailekoa, Egiturazko batzordearena, eta P. Altuna euskaltzain berriaren sarrerako batzar irekia. Batzartuei eman zaizkien langaiak ere banan banaka aurkeztu ditu.

I. JAGON SAILEKO BATZORDEAK

J. San Martin Jagon Sailburua, mahai aurrean dela, eta J. Haritschelhar batzar gidari, honako euskaltzain oso hauek bildu dira: L. Villasante, J. Haritschelhar, P. Altuna, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, F. Ondarra, J. San Martin eta J. M.^a Satrustegi; batzordeetako J. A. Arana, J. M.^a Iriondo, J. L. Lizundia eta J. J. Zearreta idazkariak; J. M.^a Satrustegi idazkari dela.

Azterketa hasi aurretik, Sail guziei dagokien ohar batez honela mugatu da karguen eginkizuna: Batzorde bakoitzaren izen zerrendan birraipatu beharrik gabe, Sailburua da beti bere esku dauden batzorde guzien *berezko burua*. Batzorde bakoitzak izango du, beste alde, batzordeburu eragile bat.

Sailburua izan daiteke, berak nahi badu, edozein batzorderen buru-eragile ere, denbora berean.

Batzar agiri honetan, ohar, erabaki eta batzordeetako aldaketak bakarrik jasoko dira. Batzorde guzien zerrenda osoak eraskin batean agertuko dira.

1. **Alfabetatze-Euskalduntze:** J. San Martinek eman du batzorde honen berri. Bere ofizialtasuna lortu bitartean egoera berezian aurkitzen da eta Eusko Jaurlaritza-

rekin hasitako harremanak burutzeko beharrezkoa da batzorde hau. Barne Erregelak aldatu behar izango dira, noski. Batzorde bera gelditzen da.

Korrikari buruz agerpena hau zabaltzea erabaki da: "*Korrika Euskal Herria* izeneko ibilaldiaren amaieran mezu-ordez irakurritako agiriari buruz Euskaltzaindiak adierazten du:

- 1) Euskaltzaindiak ez zuen idazki horren berririk aurretik izan.
- 2) Agiri horretan esaten den zenbait gauza Euskaltzaindiaren arautegitik kanpo dagoenez gero, ez du ontzat hartzen.
- 3) Euskaltzaindiak jokaera hori salatzen du.
- 4) Euskaltzaindiak bere arautegia du, eta arautegi horren arauera jokatu nahi duen edozein batzorderi atea irekirik uzten dizkio".

2. **Bertsolaritza:** J. M.^a Iriondo batzorde idazkariak esan duenez, bertsolarien elkartearekin batera, datorren urtean egiteko asmoa dute Euskal Herriko bertsolarien txapelketa. Dirudienez, azkenekoak ondore onak izan ditu eta orduko iskanbilak bareago omen daude. Beste izen bi batzordeari gehitzea eskatu du: R. Iraola eta J. M. Etxezarreta. Horrela erabaki da.

3. **Elebitasun** arazoei buruz bere egunean sortutako batzordeak bete du bere eginkizuna. Hezkuntz Kontseilaritza jabetu denez gero ekintza honetaz, besterik gabe desagertzen da batzorde hau.

4. **Irakaslegokoa:** batzorde honen eginkizuna nolabait eskuz aldatu dela esan du J. J. Zearretak, Hezkuntza Kontseilaritzaren ordurapean utzi bait da. Etsaminak eta tituluen banaketa, hala ere, Euskaltzaindiaren babesean egingo dira oraikoz. Bere lana mugatuagoa izango bada ere, batzordeak eginkizun bat badu eta zenbait lankide aldatuz, aurrera jarraitzea eskatu du.

Hiru lankide dira kargua uztea eskatu dutenak: I. Laspiur, J. A. Letamendia eta A. Ozamiz. Hauen hutsunea bete eta kopurua gehitzeko izen berriak proposatzen dira: J. M. Aleman, P. Altuna, A. Ariznabarreta, P. Arregi, G. Aurrekotxea, R. Badiola, G. Elorza, J. Fz. Setien, M. Azkarate eta Iñaki Usabiaga. Horrela erabaki da.

5. **Oinarritzko euskara:** I. Berriatuak eman berri du Euskaltzaindiko batzar batean batzorde honek hiru urtez egin dituen lanen kontu eta, besterik gabe, dagoen eran gelditu da.

6. **Euskalarien idazkaritza:** Jardunaldien ondorean euskalarien harremanetarako idazkaritza sortu zuen Euskaltzaindiak joan den udazkenean eta batzordea dagoen eran utzi da oraikoz.

Denbora berean, behar bezala zaindu gabe dauden arloetan beste zenbait batzorde berri sortzea proposatzen du Jagon Sailburuak.

Literatura batzordea: bere-berea du Euskaltzaindiak ekintza hau. "A la sección tutelar corresponde velar por la conservación, difusión y pureza de la lengua, en todos los órdenes de la vida y de las relaciones sociales y fomentar la literatura vasca en todas sus manifestaciones," esaten zuen 1920.eko Arautegiak bere bosgarren artikuluan, eta hitz hauek ez dira geroztik aldatu.

Kazetaritzakoa: egunkariak, irratia eta telebista noizbait euskaraz egiten hasiko bagara, Euskaltzaindiak arauemaile gertutik jarraitzeko batzorde bat behar ote duen ikusiko du.

Itzultzaileena: itzultzaile eskola ere hor dugu eta gure esku dagoen bitartean batzorderen bat sortzea aipatu da.

Loiolako jardunetan egitarau estua eta asti gutxi dagoela ikusirik, beste batzar batean hobeki aztertzeko utzi dira hiru puntu hauek.

Azkenekotz, aurtengo mendeurrena dela bide Urretxuko Udalak Iparragirreri buruz egin nahi duen liburuaz mintzatu da J. San Martin. Zuzenean guri ez badagoki-gu ere, gure laguntza eskatu dutela esan du asmoa aurrera eramateko.

Eta besterik gabe, eguerdiz amaitu da Jagon Saileko batzar hau.

II. IKER SAILEKO BATZORDEAK

Egun berean, arratsaldeko 4etan Loiolako Gogarte etxean bildurik, Iker Saileko batzordeak aztertu ditu Euskaltzaindiak. Goizeko euskaltzainekin batera, Iker Saileko batzarkide hauek etorri dira: P. Goenaga, J. A. Letamendia, F. Mendizabal eta M.^a P. Lasarte.

L. Mitxelena Sailburuak etortzerik ez du izan.

1. **Aditzaz:** P. Altuna mahai buruan eta J. Haritschelhar batzar gidari, orain arteko lanen egoera ikusi da. Itanozko formen finkatu beharra azpimarratu du P. Altunak. Jarraipena eskatu zaio. Batzordea honela gelditu da: P. Altuna, buru; J. L. Alvarez "Txillardegi", idazkari. Adinagatik aita D. Intza kendu eta bere ordez P. Pujana izendatu da.

2. **Herri Administralgo Hiztegia:** batzorde honek hizbide asko eman du. Egiten ari den lana ez da, berez, Euskaltzaindiarena. Eusko Jaurlaritzak eskaturik, gain begiratu baizik ez dio ematen. Oniritzia alegia. Horretarako bakarrik ez da Euskaltzaindiaren aldetik batzorde baten beharrik. Aldi bakoitzean oniritzia nola eman ikusiko du, eta horretarako begiraleak berak izendatuko ditu.

Hitz espezializatuena zerrendari *Hiztegia* ala *Hitz Bilduma*, edo beste zerbait deitu behar zaion eztabaidatu da. Eusko Jaurlaritzaren beharrei dagokio gaurko arazoa, Euskaltzaindiari baino gehiago. Herri Administralgo Hiztegiaren batzordea desagertzen da, beraz, eta zerrenda bakoitzaren oniritzia eskatzen zaiolarik, Euskaltzaindiak izendatuko ditu begiraleak.

Hiztegi batzorde bat sortu beharra ere ikusten da.

3. **Gramatikarena:** P. Goenagak aurkeztu du batzordearen egoera. Informalki besterik ez bada ere batzartzen jarraitzeko asmoa dute. Zuzendu beharrak ikusten ditu zenbait puntu. Lanak egin ondoan ez omen dira behar bezala zabaltzen eta horretarako banaketa bizkortzea eskatu du. Txostenak, beste alde, ordaindu beharko dira nolabait. 12 edo 15 orrialdeko lana hartu daiteke eredutzat eta horren arauera beste neurritakoen eskusaria neurtu. Horrela lanak ugarituko liratekeela, dio. Lau urte hauetan gramatikaren zutabe nagusia lortzeko gogoia erakutsi die Euskaltzaindiak. E. Knörr eta J. A. Letamendiak kargua uztea eskatu dute. Beste izenak orain arte bezala gelditzen dira.

4. **Dialektologiaz:** Apirilaren 23tik 26ra, bazko astez, *Deban* egitekoa den ikastaroaren berri eman du, J. M.^a Satrustegik. Hitzartuak diren irakasleen zerrenda eta bakoitzaren gaiak aipatu ditu. Kopuru txikiarentzat izango da eta bertara joango diren espezializatuez landa, filologiako bosgarren edo laugarren urteko ikasleren batentzat edo beste tokia egon daiteke. Batzordeak erabakiko du, noski, matrikulen arazoa. F. Ondarra izendatu da batzordeburu beste batzarkideak daudenean utziz.

5. **Euskararen Lekukoak:** L. Villasantek urteko lanen berri eman du, argitaratzeko prest dauden liburuak eta egileak aipatuz. Diru arazoa sortu da gero. Liburu hauek argitaratzeko zenbait elkargorekin harremanak egon dira. J. Haritschelhar izendatu da batzordeburu, eta P. Altunak beteko du J. M.^a Satrustegik utzitako lekua.

6. **Herri Izendegiaz:** astiro doa azken aldi honetan batzordearen lana. J. L. Lizundiak aurkeztu du oraiko egoera eta, ofizialki, herri gutxik aldatu omen du izena. Nafarroatik F. Ondarra sartu da batzordean J. M.^a Satrustegiren ordeaz. Bestalde, A. Irigoyen eta J. San Martinek gehituko dute taldea.

7. **Herri Jakintza:** batzorde hau geldirik dago, susmo hutsa da. Ez da behin ere bildu. Bere eginkizuna garrantzitsua dela esan da eta nolabait eragin behar litzaioke. A. Zavala, batzordeburua ez da etorri eta, oraikoz, izen zerrenda dagoen eran utzi da.

III. EGITUREN BATZORDEAK

Loiolako Gogarte etxean, 1981.eko Urtarrilaren 24an, goizeko bederatzi t'erdietan, bildu da Euskaltzaindia bigarren egunez jardunei jarraipena emateko. L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruorde eta J. M.^a Satrustegi idazkari dela, hauek bildu dira: P. Altuna, J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, F. Ondarra eta J. San Martin eta J. A. Arana, R. Badiola, P. Charritton, X. Gereño, J. L. Lizunda eta J. J. Zearreta batzordeetako idazkariak.

Berehala, goizeko gaiei hasiera eman zaie.

1. **Zuzendaritzaz:** zuzendaritzaren eginkizuna eta mugak aztertu ditu bere txostenean J. M.^a Satrustegi, idazkariak. Hasieran, euskaltzainburuak, diruzainak eta bi sailburuek osotzen zuten Zuzendaritza. Gero aldatu egin zen hau eta, azken denboretan euskaltzainburua, buruordea, idazkaria, idazkariordea eta diruzaina sartzen ziren Zuzendaritzan.

Ekintza asko eta ezberdinak ditu gaur Euskaltzaindiak esku artean eta behar den eran denei buru emateko Zuzendaritza gehitu beharrean aurkitzen gara. Gure proposamena izango litzateke, Iker Sailburu eta Jagon Sailburuarekin batera, herrialde bakoitzeko ordezkariak ere Zuzendaritzan sartzea.

Arautegia aldatu gabe egin daiteke hori, Barne Erregelaren berritzailekoan. Utzi daiteke Zuzendaritza izenarekin Arautegian dagoena: euskaltzainburua, buruordea, idazkaria, idazkariordea eta diruzaina barne direla. Azkuek berak erabili ohi zuen *Euskaltzainburugoa* hitzarekin adierazi dezakegu Zuzendaritza batzorde zabalagoa, horiekin batera bi sailburuak eta lau ordezkariak sartuz. Arazo berezietan beste batzorde zenbaiteko arduradunak ere deitu ditzake Euskaltzainburugoa bileretara.

Barne Erregelak berritzailekoan kontuan izango dira ohar hauek.

2. **Diruzaintza:** X. Gereñok diru egoeraren berri eman du. Idatzirik ekarri du urteko balantzea eta bakoitzari kopiak banatu. Hartu den erabaki nagusia, hemendik aurrera egingo den kontu ematearena izan da:

- Urteoro aurkeztuko da Euskaltzaindiari aintzin-kontua.
- Hilabeteen behin Euskaltzainburuagari kontu emango zaio.
- Hiru hilabetetik batzarrari.
- Urte azkenean egoera orokorra aurkeztuz itxiko dira kontuak.

Batzarretara datozenen eta bestelako osteren ordainketa ere gaurkotu da. Lehengo arduradunak gelditu dira.

3. **Azkue Biblioteka:** J. A. Aranak 3.025 liburu sartu direla aurten Azkue Bibliotekan esan du. Bi urteotan 7.500 ale. Bibliotekako arauen aurrean bat gertatua du. Eragozpen haundiena toki aldetik dator: ia beterik dago eta irakurleentzat aulki gutxi. Lehenbait-lehen etxe egokien bat lortzeko urratsak eman behar dira. Batzordea berritu da. N. Alzola ez delarik Bilbon bizi, aldatu egin da. Batzarkide berriak hauek dira: diruzaina edo diruzainordea E. Erkiaga, X. Kintana eta J. San Martin.

4. **“Euskera” aldizkaria eta argitalpenak:** J. Intxaustik kargua uzteko gogoa agertu omen du. Bere ordezkari P. Altuna izendatu da. J. A. Arana ere batzorde honetan sartu da.

5. **Barne Erregelen berriztatzea:** Aspaldi eskuartearen dugun arazoa da Barne Erregelena. Noizbait erabaki beharra. J. L. Lizundiak punduz puntu ikusi eta ekarri duen ohar bilduma aztertu da. Gai nagusiak: diru arazoa, argitalpenak, Euskaltzainburuagaria eta lankide berriak.

Ekonomia batzordea izendatu da, kondu errendatzea lehen esana den bezala mugatuz. Argitalpen berrien egitura sortzen da. Aldaketa garantzitsuenak hala ere, lehengo Zuzendaritza, Sailburu eta ordezkariekin nahiz batzordeetako arduradunekin gehitzea; eta euskaltzain oso nahiz urgazlez beste alde, batzordeetan lankide berriak sartzea izan da.

Beraz erabakirik gelditu da, gain begirada baten zai. Itzulpenak egin behar dira orain.

Euskaltzaindiaren ekintza guziek nahi bezalako lotura izan dezaten, batzorde bakoitzeko idazkariak urtean zehar egindako lanen laburpena aurkeztuko du Abenduko bileran.

Eta besterik gabe amaitu da goizeko batzarra.

IV. P. ALTUNAREN SARRERA

Azpeitian, Udaletxeko aretoan, 1981.eko Urtarrilaren 24an, arratsaldeko bost eta erdietan egin du Euskaltzaindiak P. Altunaren sarrerako batzar irekia.

Mahai buruan, L. Villasante euskaltzainburua, Luziano Lazkano Azpeitiko alkatea, R. Labaien Kultur Kontseilaria, X. Aizarna Donostiako Diputadua,

P. M. Etxenike Hezkuntz Kontseilariaren ordezkaria X. Retegi, L. Mitxelena eta J. M.^a Satrustegi idazkaria. Batzarrera etorri dira: P. Altuna, J. L. Davant, J. Haritschelhar, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, F. Ondarra eta J. San Martin euskaltzain oso jaunak; L. Akesolo, J. L. Alvarez "Txillardegi", J. A. Arana, J. M. Aranalde, M. A. Astiz, M. Atxaga, S. Basauri, P. Charritton, P. Goenaga, J. Goikoetxea Maiza, J. M. Iriondo, M. Itzaina, I. Laspiur, J. L. Lizundia, P. Mujika, P. Sancristobal, P. Uribarren eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazle jaunak.

X. Diharce, A. Irigarai eta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Luziano Lazkano, alkateak, ongietorria eman die batzartuei, Azpeitiko herriak bigarren euskaltzain osoa duela P. Altuna esanez. Carmelo Echegaray zenak batzargela honetan bertan egin zuen bere sarrera hitzaldia. Hau da gaur Azpeitiko herriaren poza.

Euskaltzainburuak, gero, hitz laburrez adierazi du ospakizun honen esan nahia, euskaltzain berriari ongietorri beroa emanez.

J. M.^a Satrustegik Loiolako jardunetan bi egunez egindako lana aipatu du. Urte-biko plangintza da: "berritatu ala hil" esatera zaharrari jarraituz, Euskaltzaindiak berritzeari ekin diola esan du.

J. Haritschelhar eta E. Knörr euskaltzainek sartu dute Udaletxeko batzargelan P. Altuna euskaltzain berria. Herriko mazeroak zetozen aurretik, Lazkano eta Larrañaga bertsolariek bertso banakin ongietorria eman diotelarik.

Sarrera hitzaldia

Erdarazko hitz laburrez euskararik ulertzen ez duten entzunleak agurtu ditu lehenik. Barnea koka-ahala betea zegoen eta entzungailuen bidez jarraitu dute hitzaldia ezin sartuz kanpoan geldituek. Euskal Literatura zaharrean elizgizonek egindako lana azpimarratu du lehenik P. Altunak. Zerbait egin dutenen lana ez baino, egin ez dutenen hutsarteak salatu behar litzatekeela zioen.

"Etcheberri Ziburukoa apaiz eta poetaz" eman du bere hitzaldi luze bezain mamitsua. Oihenartek gutxiesten bazuen ere idazle honen lana, badu balioko gauzarik eta, susmo txarrik gabe, hau zukeen gogoan ziburuarrak bere etsaien zirtadak aipatzean. J. M. Lojendio bere aurreko euskaltzainaren nortasuna azpimarratuz amaitu du P. Altunak bere sarrera hitzaldia.

Mitxelenaren erantzuna

Ahazkorren artean garenez, besteak beste sermolari dugula aita Altuna esanez hasi du bere hitzaldia Mitxelenak. Euskaltzain berriaren lan eta ekintza berezienak aipatu ondoan, laikoan hutsunean agertzen dela apaizgizonek emaitza erantzun dio. Artelana ez dela basamortuan sortzen eta beren apaiz lanaren noraezekoa baizik ez omen zen, hain zuzen ere. Laikoan artean bertsoak, ipuiak eta horrelakoak badirela, beste alde.

Hizkuntzalaritza eta Filologia istudioen arteko arazoa aztertu du gero. Euskaldunon artean Hizkuntzalaritzak errekesta eta itzal hobea izan badu ere, Filologiak zabalagoko eremua eta ekintza sakonagoa duela esan du. Azkenekoz, Oihenarteri hobeki omen dagozkio bere esanak, Etcheberriri baino.

Euskaltzainburuak bere izendamenaren agiria eman dio gero P. Altuna jaunari, eta Azpeitiko alkateak, beste alde, zilarrezko zorion oroigarria. Lehen aipatutako bi bertsolariek beste bertso banarekin agurtu dute euskaltzain berria.

Txistulariek “Agur Jaunak” jotzen hastean batzartuak zutituz amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua

Fr. Luis Villasante

Idazkaria

J. M.^a Satrustegi

1981-II-27

Donostiako Diputazio jauregian, 1981.eko Otsailaren 27an, arratsaldeko lauretan hasi du Euskaltzaindiak hilabeteko bere batzarra. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buru, P. Altuna, J. L. Davant, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, J. San Martin eta J. M.^a Satrustegi euskaltzain jaunak; N. Aizola, J. A. Arana, M. Atxaga, P. Charritton, J. Fdez. Setien, J. Goikoetxea Maiza, J. Intxausti, X. Kintana, J. L. Lizundia, X. Mendiguren, K. Rotaetxe, P. Uribarren, A. Zatarain eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazle jaunak; J. M.^a Satrustegi idazkari dela.

X. Diharce, J. Hiriart-Urruty eta P. Larzabal euskaltzain jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den ctoitzarekin eman zaio hasiera.

Urtarrileko batzar agiriak onartu dira.

Euskaltzainburuak Juan Thalamas Labandibar euskaltzain urgazlearen hil berria eman dio batzarrari.

GOIZEKO BATZARRAREN BERRI

Euskaltzain osoen goizeko bilkuran gai asko aipatu denez, honako hauek azpimarratu ditu idazkariak:

1. **Literatur batzorde** bat sortzea eskatu zuen Jagon Sailburuak Loiolako jardunetan. Berezkoa du Euskaltzaindiak Literatur sorketaren eremua zaintzea eta bultzatzea. Idazleen arteko harremanak ere nolabait kontuan eduki behar dira. F. Krutwig izendatu du batzordeburu, eta geroari buruz, dauden zereginen aurkezpen bat egiteko eskatu zaio, beste aldi baterako. Orduan izendatuko dira batzordekideak.

2. **Kazetaritza batzordea.** Euskal telebistarik noizbait izango badugu, egunkari eta irratiak euskalduntzen joango badira gure artean, hizkuntza arloan arazo asko sortuko du kazetaritzak. Euskara herriratzea helburu nagusia. Hori delata, kazetaritzak. Euskara herriratzea helburu nagusia. Hori delata, kazetaritza batzorde baten asmoa badu Euskaltzaindiak. Oraikoz asmo hutsa bada ere, arlo horretan lanean ari direnekin hitz egitea erabaki da eta zer helburu lukeen aztertzea.

3. **Itzultzaileen batzordea.** Hau ere aipatu zen Loiolan, Euskaltzaindiak gaurkoz bere gain hartua badu ere Itzultzaileen eskola, ez da zuzenean berari dagokion eginkizuna. Ez da beraz batzorde beharrik ikusten. Harreman ofizialearako Jagon Sailburua eta eskolako zuzendaria hor ditu.

Datorren Apirilean Frisian egiteko da "Erromantizismoak hizkuntza zabalkunde gutxikoen pizkundean izan zuen eraginaz" Nazioarteko Kongreso bat. Gomitari erantzunez, J. Haritschelhar eta F. Krutwig joango dira.

Ekainaren 28tik Uztailaren 3ra egingo da Israelen Oroimenari buruz Nazioarteko beste Kongreso bat. J. M.^a Satrustegi eta J. M. Lekuona joango dira herri jakintzak eta bertsoaritzak oroimenari buruz dituzten berezitasunak adierazteko.

Martxoan F. Ondarra euskaltzain berriaren sarrera hitzaldia delata Altsasun egiteko den batzarrean, ez da Atlasen aurrean egingo. Dialektologia eskuartearen duelarik Euskaltzaindiak, gerorako uzten da bestea. Euskaltzainburugoa bilduko da larunbat arratsaldean, eta igandean, 22an, goizetik izango da batzar irekia.

BATZORDEEN BILERAK

Irakasleena. J. J. Zearreta batzorde idazkaria, mintzatu da goizean egindako bileraz. D. Mailako programaren argitalpen berria aurkeztu du eta lehenengo etsaminak Maiatzaren 15 eta 16an izango direla esan du Durangon eta Donostian. Batzarkide asko dira eta atal eragile edo batzorde txiki bat izendatu dute, berauen arteko arazoak arinago eramateko. Bilera honen jarraipena Martxoaren 13an izango da.

Dialektologi batzordea ere bildu da goizean euskaltzain osoekin batera. Juan Jose Mogelen bigarren mendeurrena ospatuz batera, Deban, Apirilaren 23, 24, 25 eta 26an Ana M.^a Etxaidek prestatu duen Ikastaro programa, ikuturen batekin, zehaztu eta onartu da. Ikastaroaren kopurua, matrikula, hutsik eta ostatuarekin eta baita beste zenbait baldintza finkatu dira. Matrikula baiespena erabakitzeke, azpibatzer bat izendatu da: F. Ondarra, A. Irigoyen, J. A. Letamendia, K. Rotaetxe eta Ana M.^a Etxaidek osotua.

BATZAR TXOSTENAK

J. Haritschelhar jaunak euskararen bi latiboetaz egin du bere txostena. Noiz *-ra* eta noiz *-rat*. Dirudienaz, erabat han gelditzeke edo luzaz egoteko doalarik norbait, *-rat* (Pariserat) erabili ohi da; eta luzapenaren markarik ez delarik, *-ra*. Elkarriketa luzea sortu du txostenak, eta ohar jakingarriak jaso dira.

J. Garmendia Arruebarrena jaunak bialdu duen txostena, L. Villasantek irakurri du. Honako izenburu hau zuen: "F. I. Lardizabalen lan eta idazketaz ezagutzen ez diren berri eta gauza batzuk". Idazle honen zenbait lan, hain zuzen ere, galdutzat ematen dira.

Eta besterik gabe amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua
Fr. Luis Villante

Idazkaria
Jose M.^a Satrustegi

1981-III-22

Altsasun F. Ondarra euskaltzain berriaren sarrera ospatuz, 1981.eko martxoaren 22an, kaputxinoen aretoan egin du Euskaltzaindiak goizeko hamaika terdietan bere batzar irekia. Bildu dira, L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordea, P. Altuna, Damaso Inza, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Ondarra, J. San Martin, J. M. Satrustegi eta A. Zavalá euskaltzain jaunak. Jorje Erriezuko euskaltzin ohorezkoa. J. A. Arana, J. M. Aranalde, J. A. Etxebarria, J. Estornés Lasa, J. Goikoetxea, J. L. Lizundia eta J. J. Zearreta urgazle jaunak; J. M. Satrustegi idazkari dela. Jose Miguel Ondarra, Bakaikuko alkatea mahai buruan zegoen.

J. L. Davant, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, P. Lafitte, E. Larre eta P. Larzabal euskaltzain jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra:

Euskaltzainburuak Telesforo Monzon euskaltzain urgazle zenaren hil berria eman du. J. San Martin Jagon Sailburuak egin du Monzonen kultur eta hizkuntza mailako lanen aipamena.

I. BESTE BILEREN BERRI

1. **Langileak.** Martxoaren 21ean, bezperatik beraz, hasiak zituen Euskaltzaindiak Burundako bere bilerak eta hauen berri eman du lehenik idazkariak. Euskaltzaindiaren bulego guzietako langileak bildu ziren goizeko hamar terdietan Urdiainen, Satrustegiren etxean, lanen plangitza zehatza egiteko asmoa agertu eta denen iritziak entzuteko. Eguerdia arte iraun zuen batzarrak eta interesgarria izan zen elkarriketa. Beranduago beste bilera bat egin beharko da, plangintza orokorra aurrera eraman nahi baldin bada behintzat.

2. **Euskaltzainburugoa.** Arratsaldeko lau terdietan Zuzendaritza bildu zen Urdiainen bertan. Han erabilitako gaietatik honako hauek azpimarratu ditu idazkariak:

— **Debako Ikastaroa.** Apirilaren 23tik 26ra Deban egitekoa den Dialektologi azterketarako ikastaroa erdi gertaturik dago. Antolakizun lanetaz J. San Martin eta J. L. Lizundia arduratuko dira.

— **Haurren bertsolaritza.** Eskolako gaztetxoentzat bertsolaritza saio batzu egin nahi dira Gipuzkoako Diputazioaren babesean. Euskaltzaindiari dagokionez, jaun hauek izendatu ziren epai mahaian parte hartzeko: J. M. Aranalde, J. M. Lecuona eta Antxon Aranburu.

— **Arzū-ren mendeurrena.** Datorren ekainean Zuberoan egitekoa den Arzū-ren mendeurrena antolatzen joateko, J. L. Davant, P. Charritton eta J. L. Lizundia izendatu dira.

3. **Argitalpen batzordea.** Larunbatean bertan arratsaldeko sei terdietan Argitalpen batzordea bildu zen Urdiainen, Jardunaldietako liburuari buruz zenbait arazo bideratzeko. Hori delata, atzeramenduren bat izan lezake liburuak.

4. **Euskaltzain osoen batzarra.** Gaur goizeko hamar terdietan bildu dira euskaltzain osoak gai hauen berri eman eta birronesteko. Esandakoak ontzat eman dira.

II. BATZAR IREKIA

Euskaltzainburuaren agurrarekin hasi da batzar irekia. Euskararen alde kaputxinoek egindako lana eskertuz egin du bere txostena Villasante jaunak. Besteak beste, hiru euskaltzain oso izan dituzte koputxinoek Nafarroan: D. Inza, P. Iraizoz eta Ondarra.

E. Knörr eta J. Haritschelhar euskaltzainek lagundu dute euskaltzain berria aretoan sartzen.

F. Ondarrak Polikarpo Iraizozkoaren aipamena egin ondoan, beronek utzi duen euskal esku-izkribuen bilduma aztertu du: 76 prediku bizkaieraz, Gipuzkeraz hamasei eta Zegamako Dotrina. 49 Bidasoalde eta lapurdieraz, hala nola 55 Nafarroako Goñibarren jasoak. Erriezuko Jorje aitaren bilduma ere aipatzen du denbora berean, eta Lekarozko liburutegian dauden euskal izkribuak beste alde. Lekarozko zerrenda osoa eman du, beraz, F. Ondarrak bilduma hauen zenbaketa orokorrago bati hasiera emanez.

J. M. Satrustegik Burunda aipatu du lehenik bailara honen bereiztasunak azpimarratuz. Euskaltzain berriaren bizia eta idazlanak agertzeraz eman ditu gero, berak dituen euskal esku izkribu zerrendarekin bukatzeko. 323 sermoi, 1855 orrialdez osoturiko bost bildumetan.

Euskaltzainburuak izendapenaren agiria eman dio gero F. Ondarrari, eta besterik gabe amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua
Fr. Luis Villasante

Idazkaria
Jose M.^a Satrustegi

1981-IV-26

Deban, Juan Jose Mogelen bigarren mendeurrena ospatuz, 1981.eko Apirilaren 26an, Zubeltzu Zinematokian, Euskaltzaindiak, eguerdiko 12etan, bere batzar irekia egin du. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruorde, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, P. Lafitte, L. Mitxelena, F. Ondarra eta J. San Martin euskaltzain jaunak; L. Akesolo, J. Allières, J. A. Arkotxa, D. Landart, I. Laspiur, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, K. Rotaetxe, P. Uribarren eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazle jaunak; J. L. Lizundia, idazkari-ordeak idazkari bezala egiten duelarik.

J. L. Davant, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, E. Larre, P. Larzabal eta J. M.^a Satrustegi euskaltzain jaunak ezin etorria adierazi dute. E. Larre eta J. M.^a Satrustegi jaunak aurreko egunetan egon dira.

Mahaipuruan, Xabier Aizarna j., Gipuzkoako Diputatu Nagusia eta Rafael Rodriguez j., Debako Udal Kultur Batzordeburu eta Zinegotzia ere jarri dira.

Debako alkatearen orde, Rodriguez jaunak irekitzen du batzarra.

Ondoren, A. Jose Ignacio Lasa jaunak, Juan Jose Mogelen estudioez egindako txostena irakurtzen du. Bertan, sakonki, idazle honen biografia, Mogeldarren jatorria eta xehetasun anitz azaltzen ditu, dokumentazio ugari emanez.

Jarraian, A. Lino Akesolo euskaltzain urgazleak, Juan Jose Mogelen euskal lanak aztertzen ditu, batez ere, *baserritar nekezaleentzako eskolia* izeneko liburua. Hizkuntzaren eta gaien aldetik ere arakutzen ditu idazle honen lanak, beronen garai-ko beste zenbait euskal idazleren lekukotasunez osotuz.

J. L. Lizundia idazkari-ordeak, eskertzen ditu antolatzen lagundu duten erakunde eta taldeak, batez ere, Udala eta Patronato Ostolazako Kultur Elkarte. Aipatzen ditu parte hartu duten irakasleen izenak: Joan Veny i Clar, Joaquim Rafel i Fontanals eta Ramon Cerdà i Masso, Barcelonako Unibertsitatekoak; Jacques Allières, Toulouseko Unibertsitatekoa; Kilburn MacMurrough, amerikar irakaslea; Luis Mitxelena eta Karmele Rotaetxe, Euskal Herriko Unibertsitatekoak eta Ana M.^a Etxaide, Nafarroako Unibertsitatekoa.

Azkenik, L. Villasante jaunak, Dialektologi Ikastaroaren amaiera egiten du, adieraziaz nola ostegunetik iganderarte, hoguei eta hamabi ikasle Dialektologia ikerketarako prestatzen aritu diren aipaturiko irakasleen gidaritzapean. Euskaltzainburuak, azpimarratzen du nola Euskaltzaindia, euskalkiekin arduratzen den, horretarako, azterketa eta argitalpenak bultzatuz edo Ikastaro honetan bezala ikertzaileei bideak irakatsiz.

Eta besterik gabe mendeurren ospakizuneko batzarrari ere bukaera ematen dio Euskaltzainburuak.

Euskaltzainburua

Idazkariordea

L. Villasante

J. L. Lizundia

1981-V-29

Donostiako Diputazio jauregian, 1981.eko maiatzaren 29an, Euskaltzaindiak arratsaldeko lauretan hasi du hilabeteko batzarra. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruorde, P. Altuna, J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty, E. Knörr, F. Krutwig, P. Lafitte, E. Larra, L. Mitxelena, F. Ondarra, J. San Martin eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; N. Alzola, J. A. Arana, M. Atxaga, I. Berriatua, P. Charritton, J. Estornes, X. Garmendia, P. Goenaga, J. Goikoetxea Maiza, X. Kintana, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, X. Mendiguren, A. Zatarain eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazleak, J. M. Satrustegi idazkari dela. X. Diharce eta P. Larzabalelek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Ibon Sarasola euskaltzain urgazle jaunak, Bartzelonan doktoradutza eskuratu berria duela jakinerazi du idazkariak, eta T. Peillen jaunak Bordelen.

GOIZEKO BILKURAREN BERRI

Euskaltzain osoek goizean egindako bilkuran Euskaltzaindiko Barne Errelek aipatu dira. Zuzenketak zertan diren ikusi ondoren, Araudiarekin batera liburuska argitaratzea erabaki da.

Batzordeetan diren zenbait lagunen izendapenak egin dira. Lehenengo aldi honetako zerrenda hau da: J. M. Aleman, A. Aranburu, A. Ariznabarreta, G. Aurrekoetxea, M. Azkarate, R. Badiola, G. Elorza, A. M. Etxaide, J. M. Etxebarria, J. M. Etxezarreta, J. L. Goikoetxea, R. Iraola, M. P. Lasarte, A. Muniategi, I. Usabiaga eta Ch. Bidegain.

Batzordeetan lanean ari diren bitarterako epez mugaturik daude izendapen hauek.

Altsasuko aita kaputxinoen zuzendariari, Debako Udalari, bertako Ostolaza elkargoari, eta beren laguntza eskaini ziguten beste talde batzuei esker ona agertzea erabaki da.

BATZORDEEN AZALPENAK

Dialektologia batzordeak lanen egoera aztertu du. Debako ikastaroa aberatsa izan dela ikusi ondoren, asmoak aurrera eramateko itaunketa beharrezkoena da. Zerrendak lehenbailehen egiten arduratuko dira. Ekintza honetarako diru laguntza Eusko Jaurilaritzak emango duela esan zaie.

Gramatika batzordearen berri Patxi Goenagak eman du. J. Urangak bere txostena aurkeztu omen du eta orain artekoak zabaltzeko gertu dira. Datorren kongresorako gramatika oinarritzko bat gertatzerik balegokeen galdetu zaio. Zer eratako lana aurkeztu nahi den jakin beharko dela, erantzun du. Sintasia aztertu gabe dago.

Euskal Literatur batzorde bat gertatzeko oinarriak aurkeztu ditu F. Krutwig jaunak. Herri Literatura izan du Euskal Herriak, eta bestalde, Filologia. Bi bien arteko Literatur jantzia behar du; goi mailako sorketako literatura. Mezu zabal baten antzera egin duela oraiko agerpena, eta xehetasun gehiagorekin burutzeko asmoa agertu du.

BESTE BERRI BATZU

J. Haritschelhar jaunak erromantizismoa eta erakunde ttipiko hizkuntzen eragina gaitzat harturik, Frisian egin berri den kongresoaren aipamena egin du. Etxahun erromantiko mailan agertu zuen berak. Rene Laffon jaunarekin agertu zen gero mahai inguru batean, eta Iparragirre ere aipatu zuten han, olerkari nahiz abertzale mailan. Lokarriak sortu direla esan du.

F. Krutwig eta J. San Martin izan dira bestalde, Toledon egin den Ifar eta Iberietako erakunde ttipidun hizkuntzetako literatur jardunaldian. Harreman onak izan direla esan dute, Palman egitekoa den kongreso zabalago baten oinarri.

Israelen Oroimenari buruz egitekoa zen kongresoa atzeratu dela, dio idazkariak. Datorren ekainaren 28an hastekoa zen, bainan, hango giroa ez da egokia.

Datorren hilabeteko Euskaltzaindiaren batzarra Archu zenaren oroigarritz, Altzürükün egingo da, 'Su Azia' elkarteko laguntzarekin. Beraz, ekainaren 27 eta 28an egingo diren ospakizunen berri eman du J. L. Davant jaunak.

P. Altunak "Manual Debozionezkoa" argitaratu berria aurkeztu du.

Azkenekotz, EUSKERA aldizkariaren azken alea banatu da batzartuei.

Eta besterik gabe amaitu da gaurko batzarra.

Euskaltzainburua

L. Villasante

Idazkaria

J. M.^a Satrustegi

ARXUren mendeurrena ospatuz

Maulen Hiriko etxean, 1981.eko Ekainaren 27an, arratsaldeko bostetan hasi zen batzar idekia, bertako Jaun Meraren agurrezko hitzekin.

Han ziren: L. Villasante buru, P. Altuna, J. L. Davant, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, P. Lafitte, J. San Martin, J. Haritschelhar euskaltzain jaunak; J. A. Arana, J. Casenave, P. Charritton, P. Etcheandi, J. Goikoetxea Maiza, M. He-giaphal, M. Itzaina eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazle jaunak.

Ondotik “Sü Azia” deritzan batasunaren izenean Francois Dascon jauna mintzatu zen, “Zuberoaren beharrak euskararen zaintzeko” gaiaz bertako premia larriak agertu zituen. Zuberoa guzian hamazortzimila biztanle baizik ez dira gelditzen. Atharratzen, azken hamabost urteotan ehunetik hogeikoa gutitu da eta hustutze honek larritzen ditu “Sü Azia” batasunekoak. Elkarte hau duela hiru urte sortua da euskararen suztatzeko eta kultura jatorra gordetzeko: euskara eskoletara eroan, adinekoentzat alfabetatzeak eratu, horietarako behar diren tresnak gertatu, ahal den toki guzietara euskara eroanaz. Eta, honen inguruan, historia eta etnografia erakatsi, bertako kultura ezagutzeko eta maitatzeko. Esan duenez, Zuberoaren etorkizuna beltza ikusten da. Bizibidea neketsua baitu. Baina euskaldungoa pizten ari da. Gau eskolatan eta lantegietan gazte berriak agertzen ari dira. Ez dute Zuberoako izana uzteko-tan eta bertatik irten gabe jarraitu nahi dute.

Ondorean Euskaltzainburuak hartu du hitza, “Sü Azia” batasunekoei egiten ari diren lanagatik eskerrak emateko: “Sü Azia zuek zarete, su berria pizteko” eta zuengan jartzen da Zuberoaren itxaropena, agertuko zien Euskaltzainburuak.

Segidan, Jules Casenave jauna mintzo da: “Jusef Egiategiz”. Pariseko gordailu batean aurkitu dira esku-ezkribuzko bi idazki edo liburu, XVIII. mendearen erdialdian bizi zen Josep Egiategi euskaldunarenak gure mintzairan idatziak. Argien mende hartako gaiak erabiltzen ditu horietan, filosofia, kondaira, errefrauak eta abar. Beretan ageri denez, ezagunak zituen lehenagoko euskal idazleak, baina baita ere Europako filosofoak. Egiategi, sorlekuz, oraindik ez dakigu deusik, baina uste du Zuberoako Petarra partekoa zela eta ez Baxenabartarra.

Euskarari buruz zituen usteak agertzen ditu. Uste bai zuen ama-mintzoa zela eta aintzina Espainia guzian erabiltzen zela. Euskarari atxikia bizi zen gizona. Beretzat, gure hizkuntza, mintzaira bizia eta jakitia zen. Gainera, abertzale agertzen zuen bere burua eta uste zuen euskararik gabe ez zegoela euskaldungorik. Oihenartek bezala uste zuen Espainiako partetik joanak zirela ifarraldeko euskaldunak. Bukatzeko, Txomin Peillen eskertzen du Egiategiren lanak aurkitu eta horietaz egin zizkion oharrengatik.

Jean Louis Davant jaunak jarraitu dio ondotik, “Arxuz geroztikako idazleak Zuberoan” gaiari loturik. Bai hilak eta bai biziak aipatu ditu, nor nongoa zen eta zertaz idatzi zuen adieraziz, bakoitzaren lanen joerak ere agertuz.

Bukatzeko, Euskaltzaindiko buruorde den J. Haritschelhar jauna mintzo zen, “Euskaltzaindiak zer egin ahan duen Zuberoaren laguntzeko”. Zenbait ekintzaren artean, Zuberoako herriak eman euskal literaturari anitz eman dio, denboraren joanean Berreterretxe khantoria lekuko. Bestalde, gauza berezia dira Zuberoak sortu eta iraunaraziak: Pasturalak eta maskaradak. Pasturala, lehen erligio borrokakoa zena, orain Zuberoako historia du gaitzat, bere bizitza agererreraziaz. Beraz, pasturalak beritu dira, eta hori dute xuberotarrek beren literaturaren aberastasun bereziena.

Euskararen batasuna behar dugu, baina euskalkietatik hasiaz ahal delarik. Bata-suna beharrezkoa baita eskolak eta Unibertsitatea euskaraz axolaturik datorrenez, eta urte gutiren buruan gauzak seriozki ikusiko ditugu. Honegatik, euskararentzat itxaropena izan dezagun. Euskara bat da, euskaldunok anaiagotzen gaituena eta behar dugu elkarrekin lan egin. Muga batek ebakitzen gaitu, baina euskara bat da mugarik gabe.

Idea horiekin batean Ifar Euskal Herriko euskaltzainek zituzten asmoak agertu zituen eta horien barna “Sü Azia”koekin elkarren laguntzan ibiltzea. Bidea luzea da, baina etsipenik gabekoa.

Biharamunean, igandez, Altzürükü herrian, goizeko hamar t’erdietan hermeza, Mauleko bikario jauna buru zelarik.

Mezatik interan, hilerrian, Gregoire eta Guillaume Eppherre Euskaltzaindiko zirenei beren hilobiaurrean otoitza.

Gaztelu aintzineko plazan André Lechardoy erakaslea mintzatu zen Euskaltzaindikoak agurtuz eta herritarrei J. B. Arxu idazlea nor zen eta bere lanak zer ziren adieraziz. Bere alabattoak Arxuk euskaratutako alegietarik bat irakurri zuen.

Herriko eskolen ondoan, Arxu zenari oroitarria agertzean Queheille Jaun Mera mintzatu zen han ziren guziak eskertuz. Oroitarriak haxe dauka idatzirik:

*J. B. Archu
Altzuruku 1811-1881 la Reole
Aleghiak
kantu patriotikak
gramatika
Ruth*

Dantzariak Zuberoako dantzaz agertu ziren eta ondotik Sartantxü eta Mirande kantariak: “Urrütiko anderia”, “Agotaren khantoria” eta “Bortian Ahüzkia” kantatu zituzten.

Anaiarteko bazkari batekin bukatu zen Altzürükün jaialdia.

*Euskaltzainburua
L. Villasante*

*Idazkariordea
Juan San Martin*

Donostiako Diputazio Jauregian, 1981.eko Uztailaren 24ean, Euskaltzaindiak arratsaldeko 4etan hasi du bere hileroko batzarra. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordea, P. Altuna, J. L. Davant, A. Irigoyen, F. Krutwig, P. Lafitte, E. Larre eta P. Ondarra euskaltzain jaunak, goizeko bilkuran J. San Martin ere egon da, baina arratsalderako bere ezin etorria adierazi du; N. Alzola Gerediaga, J. A. Arana, M. Atxaga, P. Charritton, J. G. Etxebarria, E. Etxezarreta, J. Goikoetxea Maiza, J. Intxausti, J. M.^a Lekuona, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, J. A. Loidi, A. Zatarain eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazleak.

X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, P. Larzabal eta J. M.^a Satrustegi jaunak ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Maiatzeko eta Ekaineko batzar agiriak onartu dira.

Agustin Anabitarte eta Philippe Aranart euskaltzain urgazleen hil berriak eman dira.

GOIZEKO BILKURAREN BERRI

Euskaltzain osoek, goizean, egindako bilkuran erabilitako gaietatik, honako hauek azpimarratu dira arratsaldeko batzarrean:

1. *Euskararen Irakasle Titulua* dela eta Zuzendaritzak hartutako erabakia hobeto zehazten da eta beraz, ikasturtea hersteke azken egunetan, alegia, Irailaren ondarrean egingo dira azken etsaminak, Euskal Komunitate Autonomo eta Iparralderako. Irakaslego batzordea Irailaren lehenengoetan bilduko da eta bere esku uzten da non eta noiz egingo diren etsaminak erabakitzea eta iragartzea.

Irigoyen euskaltzainak, batzorde burua den aldetik, bere kexua agertu du arazo honi eman zaion prozeduraz, hain zuzen ere erabakiaren berri batzordeko idazkariak taldeko guztiei bidali dien Euskaltzaindiko idazkariaren karta batez izan baitu.

2. *Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeko* arduradunekin, Gasteizen Ekainean egindako bileraren ondotik, Zuzendaritzak hartutako erabakiaren berri izan du goizeko bilkurak. Beraz, birretsita gelditzen da A. E. K.ek bere gain hartzen dutela, hemendik aurrera, bere eginkizun guztien erantzunkizun osoa, Euskaltzaindiaren orain arteko babesik gabe.

3. *Itzultzaile Eskola*. J. San Martin Jagon Sailburuak, Itzultzaile Eskola, Jaur-laritzaren, Euskal Gobernuaren Kultur Kontseilaritzara pasatzen dela kontu eman du, datorren ikasturtetik hasita.

4. *Bibliotekako Erregela Bereziak*. Azkue Bibliotekaren batzordeak aurkeztu du Bere Erregela Berezien projektua. Irailaren 25erarte, beraz, batzar egunerarte irekitzen da ohar, gehigarri edo aldaketak egiteko zuzenketa epea. Batzar horretan onartzen bada, Arautegi eta Barne Erregelekin batera argitaratzea nahi da.

BATZORDEEN AZALPENA

“Euskera” eta Argitalpen batzordea bildu da, goizean, euskaltzainekin batera eta bere berri L. Villasante Batzorde buruak eta R. Badiola Batzorde eragileak eman dute. Hurrengo *“Euskera”*ren zenbakia nola tajutuko den erabaki da, banan-banan txosten eta beste lanak aztertu eta zehaztuaz. Nazioarteko Euskalarien Jardunaldieta liburuaren argitalpena nola dagoen ere ikusi da. Euskaltzaindiaren Arautegi eta Barne Erregelak, nola argitaratu zehaztu da. Sakeleko edizio formato bat aukeratu da eta 1.000 ale aterako dira.

Senza un tale orgoglio sarà difficile sviluppare un attività positiva che elevi socialmente ed economicamente l'insieme dell'etnia.

Questa situazione di popoli inferiorizzati nella cultura, ma senza complessi sociali, fa sì che tanto i piemontesi che i baschi abbiano conservato abbastanza bene ed unita all'insieme della propria etnia una certa élite (1) nazionale che, sebbene, a volte parli la lingua dello Stato, tuttavia *non nega mai la propria origine basca o piemontese*, mentre nel caso della "minorizzazione" si vede che le etnie minorizzate subito sono decapitate —com'è il caso degli occitani— poichè il "vertice sociale" dell'etnia è interamente integrato nell'etnia-nazione francese, la quale fornisce giustamente i propri dirigenti politici, come accade frequentemente in Italia con i napoletani od altri meridionali che forniscono una grande quantità di uomini politici italiani, sia di sinistra che di destra. La posizione dominante del "vertice della etnia" basca o piemontese, poichè nella sua azione sociale ed economica sviluppa un'attività espansiva, fa sì che frequentemente sono parimenti baschi o piemontesi gli uomini dirigenti questa attività. Queste persone, pur considerandosi "etnicamente" baschi o etnicamente "piemontesi" tuttavia finiscono per sviluppare oggi una politica culturale ostile all'etnia di cui sono figli.

Tuttavia, se tutte queste similitudini sociologiche possono spiegare molte cose, chissà se sono esse, a loro volta, più l'effetto che la causa, di qualcosa di più profondo.

E' sufficiente esaminare una serie di nomi antichi di luoghi nel Piemont per rendersi conto del fatto che esistono una quantità impressionante di popoli che hanno una denominazione basca, come ad esempio *Zumaglia, Orio, Lessona, Anzola, Alzate* che hanno un preciso equivalente nel Paese Basco

(1) "*Elite sociale*". In tutti gruppi umani (così come fra gli animali superiori) in cui i membri si sono riuniti in una quantità apprezzabile, nasce spontaneamente un "ordine sociale"... vale a dire una struttura. Poichè lo stesso concetto di struttura racchiude in sè il concetto di "gerarchia", in tutte le società socialmente strutturate esistono sempre, piaccia o no, alcuni individui che sono considerati formare il vertice ed altri la base. Questa differenziazione si organizza sempre in relazione ad un determinato fattore organizzativo. In certe società umane può essere il potere magico dei sacerdoti, in altre il fattore in oggetto sarà el danaro, la ricchezza; in altre l'intelligenza. Nei paesi "socialisti" l'appartenenza al Partito e anche all'interno del Partito la situazione burocratica crea una gerarchia sociale. I fattori possono essere differenti, ma l'esistenza di una società ORGANIZZATA esige una struttura, con un criterio gerarchico. In questo caso, il vertice della società, fino ad oggi, in tutte le parti del mondo ed in tutte le epoche della storia, si è distinto dalla base per il possesso di un particolare tipo de linguaggio, che la base considera come un fattore degno d'essere imparato... e la cui conoscenza indica l'appartenenza a questo gruppo di vertice. In questa situazione ci sembra che il criterio di considerare come simbolo esteriore di questa gerarchizzazione quell'idioma in cui si sono scritte le migliori opere letterarie e culturali è, fra tutti i fattori che si possono considerare, per questa determinazione esteriore, ancora il più importante. D'altra parte la lotta delle lingue e la crescita sociale di alcune (come potrebbe essere per il basco o il piemontese) è, a sua volta, un SINTOMO inequivocabile di un mutamento di struttura sociale, e della formazione di una nuova élite sociale. La perdita di prestigio della lingua oppressiva è il sintomo più chiaro della perdita di prestigio dell'etnia o della classe sociale oppressiva.

(*Zumaia, Orio, Lexona* —in basco: x è sci—, *Anzuola, Alzate*). Inoltre esiste un gran numero di popoli che senza avere un esatto equivalente nel Paese Basco, ha una spiegazione attraverso la lingua basca, come ad esempio *Vercelli*, da *Berkeli* e perciò *Berka, Iberka* che significa la *sponda* e *eli*, luogo, *Zubiena* e perciò *Zubi*, ponte.

Lo studioso tedesco Dr. Dominik Woelfer sosteneva la tesi che i primi abitanti dell'Europa Occidentale erano pre-indoeuropei imparentati con i baschi ed i guanci. In Val d'Aosta è pieno di nomi baschi, così come la zona alpina del Piemonte e della Lombardia, così come la Liguria abbondano di toponimi baschi. Tutto ciò sembra dar ragione alla tesi del prof. dr. Woelfel.

Una tesi simile ha mantenuto per gli occitani Pierre Bec, direttore dell'*Institut d'Etudes Occitans* di Tolosa, secondo il quale la personalità delle lingue provenzali viene determinata precisamente da questo substrato preindoeuropeo bascoide.

Molte particolarità della lingua neolatina piemontese attuale, potrebbero essere spiegate attenendosi all'ipotesi dell'esistenza di questo substrato preindoeuropeo, che continuerebbe a mantenersi vivo ancor oggi, anche se ricoperto da una superficie neolatina.

Questi elementi caratterizzanti che danno tanta personalità alla bella lingua piemontese sarebbero: (a) la reduplicazione del pronome personale, che appare prefissato al verbo, come in *mi i scrivo, ti it èscrives, chiel a scriv*,... etc. che potrebbe essere interpretato come una sopravvivenza di una tendenza basca, che consiste nel prefissare davanti alla radice verbale, il suffisso verbale che indica il passivo, come in *ni nathor* (io vengo), *hi hator* (tu vieni), *gu gathortza* (noi veniamo), *zu zathortza* (voi venite).

(b) alcune tendenze fonetiche, come quella di prefissare la *e* dinanzi alla *s* liquida o *a* davanti alle parole che iniziano per *r*.

Tutte queste similitudini, tutta questa parentela mi ha dato modo spesso di pensare che una collaborazione fra baschi e piemontesi potrebbe e dovrebbe essere fruttuosa nello ambito di una nuova Europa federata ed etnoocratica; baschi e piemontesi posseggono il dinamismo sufficiente per impiantare ogni tipo d'attività; quell'attività ben contenuta che è necessaria in ogni azione politica ed economia.

Più di una volta ho indicato ai miei amici baschi la necessità di uno stretto contatto fra baschi e piemontesi, in vista di questo destino comune che si sta profilando all'orizzonte... e nel quale, sono precisamente baschi e piemontesi, i due popoli più indicati per prendere l'iniziativa e dirigere una politica europea, eutenticamente europea e libera dall'oppressione.

E' più facile saper interpretare nel giusto modo l'aggressività positiva che possiedono baschi e piemontesi, piuttosto che farla rinascere fra quei popoli che l'hanno perduta, quantunque sia a causa dell'oppressione. E' più facile

saper conquistare e dirigere in una direzione etnico-nazionale una élite che possiede un popolo oppresso, piuttosto che cercare di crearla ex novo. La grande disgrazia dei popoli oppressi è consistita essenzialmente nel fatto che la sua "intelligentia", che i circoli da cui parte l'iniziativa nelle attività politiche, culturali ed economiche sono estati a tal punto de-nazionalizzati che l'etnia oppressa non è neppure in grado di esprimere un proprio strato dirigente. Nulla di ciò accadde fra baschi e piemontesi, e in entrambi i paesi esiste l'orgoglio di essere piemontesi o di essere baschi.

Ciò che oggi è necessario è saper interpretare questo giusto orgoglio nazionale da un punto di vista più ampio, com'è quello dell'Europa federata, in cui gli antichi "orgogli" statali stanno scomparendo, ma in cui sarebbe una disgrazia se gli orgogli etnici non aumentassero nella misura in cui diminuiscono i falsi orgogli degli antichi Stati oppressori. In questa strategia possono e debbono collaborare basqui e piemontesi.

Heiko Sarrailh de Ihartza

EUSKAL ANTZERKI ZAHARRENAK

*Txomin Peillen**

Egungo kritikaren ustekizunak

Huna zer dioten sartaldeko euskaldun kritikalariek:

“(El Acto para la Nochebuena en el siglo XVIII).. *es la primera composición teatral vasca de que hay noticia.*

(Luis Villasante: *Historia de la literatura vasca*, Ed. Sendo Bilbao, 1961, 121.orrialdean).

Eta bide hortatik doa Gabriel Aresti, dionean:

“*Esan dot lelengo teatruzko lana dala, euskeraz eskribidutakoa; eztaki-gu nos eskribidu zan, baña Azkueren testigantza ontzat artzen bardin badogu, konklusioñoe onetara allegau bear dogu nos emon zan inprentara... 1898.an, orduan ia berreun urte eukazala (...)*” (“Gabonetako ikuskizuna” *Euskera*, Bilbao 1959, IV. 139.orrialdean).

Beraz bi idazleen ustez, nonbait XVIII mendeko lehen urtetan idatzizuen Barrutiak bere antzerkia. Idatz eskola batek, alegia herrikoi eskola bilbotarrak hartu du antzerki hori eredutzat eta horregatik hain mespretxatua izan baita, orain mytu bihurtu dugu. Ez zaigu, ordea ahaztu behar antzerki hori, desertuan lorea bezala garatu dela. Julio de Urquijo-k RIEV-en bere “Del teatro Litúrgico en el País Vasco. La Passion Trobada de Diego de San Pedro”, Paris-Donostia 1931, 150. orr. eta beste, saio sakonean erakutsi digu nola XVI-XVII mendean erdal antzertia Euskal Herrian ematen zen, eta beharbada noizpeinka galdu ditugun euskarazko puxkak, hala nola Bergarako *auto*-bat 1631, Bilbokoa 1566ean, nahiz ez den esaten zer hizkuntzatan den, “Corpus Christi”-z emandako antzerkia.

Ez dugu uste Barrutiaren antzerkia Euskal Herriko lehena denik, ez aipamen aldetik, ez testu aldetik. Aipamenaren aldetik ihardoki genezake Aita Moret-en jakilegoa daukagula; harek baitio Nafarroa Garaian, Iruñean, Joanes Labriteko ta Nafarroako Katalinaren koroatzean antzerkiak eman zirela 1494.urtean eta euskaraz kantatu zela:

Oharra: 1981.eko Irailaren 25ean, Donostian, Euskaltzaindiko batzarrean, Piarres Xarritonek irakurria.

*Labrit eta errege
aita seme dirade;
Kondestable jauna
Ar bizate anaie.*

(In *Anales de Navarra*, tomo 5, libro XXXV, cap. 4, p. 74)

Beharbada Urquijo jaunak RIEV-en (op. cit. 152.orrialdean) duda bat sortzen du, ez ote ziren euskal intremesak, erdal antzerki batean aipatutako koplak. Huna hegoaldetik eta sartaldetik ditugun lekukotasunak.

Zuberotar antzerkiak: trajeria ta astolasterrak

Urte askotan Zuberoako pastoralak ez dute, euskal literaturazko liburuetan sartzerik izan, nahiz euskaraz idatziak izan, nahiz benetako teatrua izan, ehunka, milaka ikusleak biltzen dituztelarik aspaldidanik Antzerti hori, gure klasikua izatetik baztertzen duena, lehenik euskalkiaren berezitasuna da, bigarrenik gaiak ez-euskaldun izatetik. Azken akats hori Europako klasiku gehienei egoitz genezake, zeren frantses idazle gehienek gaiak Euripides, Aiskhulos ta Sophocles-en eta pagan mitologian hartzen zituzten, berenetik hizkuntzaren ederra dramatikatasunaren asmaketak emanaz. Nork ukatzen die Corneille ta Racine idazle izatea? Naski pastoralak bat irakurtzea, bereziki trajeria, ez da gustagarri, baina benetako antzerkia ez da irakurtzeko egina, ikusteko baizik.

Orainarte pastoralak aipatu zituen lehena Agosti Chaho (1836.an) atarraztarra izan zela uste zen ta hala dio Albert Leon-ek:

“Si après Augustin Chaho, à qui il faut laisser le mérite d’avoir le premier, à ce qu’il semble, fait connaître l’existence de ce genre de spectacles en dehors du cercle étroit de leurs acteurs et de leurs spectateurs; (op. cit. II.orrialdean).

Pariseko Bibliothèque Nationale-an orainarte lo egon den Jusef Egiategi-ren filosofia liburuan, *Filosofo hüskaldüna* delakoan hau hatzeman dut:

“Mündü güzia ari delarik txarlatanen gisala, pastoraletan mozorroa bethi begithartian nahi girade agertü”
(op. cit. 1780.urtean argitaratzekotan, *Esterratziaz*, kapituluan).

Beraz Egiategi da, dakigunez lehena zuberotar antzertia aipatzen, batere gauza berria bezala, baina xehetasun harrigarria ekartzen digularik, bere garaian, bere denboran pastoralak mozorrotuta, maskatuta ematen zirela. Beste leku batean ikusten dugu nola zerbait ez den aldatu jokulariak jende xehea dela, gure egunetan bezala:

“Gaiza hek dirade mündüko pastoralak: eztireia komediant halakoak errege ta trükader izanik, beren galtza mutxetara (oharra: artzain jantzi-tara) ta lürretara ethortzen (oharra: itzultzen) ta errege zena atzo herrestan egün (op. cit. *Herioaz* kapituluan).

Beste leku batean pastoralak ez direla bakan dio:

“Eta zü aita aspaldian ikhusten eztüzia zure semia dela auhertü? Lana diala hügünt, merkhatu, eliza besta ta pastoralak bakoitzari hütsik egiten eztiala (op. cit. Auherkeriaz (alperkeriaz) kapituluak).”

Pastoralen onharpen ta ezaguketa bidean, Gabriel Aresti-k egin du lehen urratsa, *Kaniko ta Belxitina*, “astolasterra” argitaraziz, liburuaren hitzau- rrean baitio:

“Pastoral honen argitarazioarekin Lur editorialeak beste zerbitzu bat errendatu nahi ukan dio Euskal Herri xehearen kultura propioari, ea nolabait kultura mespretxatu horrek, euskal edo pseudo-euskal oligar- kiak eta burjesiak hain zapaldu horrek, bere gauzatze eta bururatzeko osoari bide bat aurkitzen dion. (Kaniko ta Belxitina, Ed. Lur Kriselu 18, Donostia, 1971, 18.orrialdean.)”

Ez dugu uste, pastoralak osoki herri-xehearen antzerkia denik, gaiak goi mailakoak ditu, hizkuntza —zaharrenetan— ez da herrikoia, ikusleak eta jokua- laria bai herrikoak dira. Ikus dezagun antzerki hori noizkoa den, hona zer dion Arestik:

“..ezagutzen den pastoralik zaharrena, 1759.urtean eman zen estrai- aldiz Kamou-n (sic) eta Ediporen tragedia izan zen” (Op. cit. Ed. Lur Kriselu 18, Donostia 1971, 14.orrialdean.)

Gure iturri argiena Albert Leon dugu:

“Il est cependant un point que ces inscriptions (de dates de représenta- tions) nous permettent d'affirmer; la plus ancienne qui nous soit connue portant la date de 1759, nous apprenons dès lors l'âge minimum du théâ- tre tragique souletin. Il est vrai que Buchon dans un article du *Mémorial des Pyrénées* (2 novembre 1839) donne l'année 1500 comme la date cer- taine d'un manuscrit qu'il acheta à J. P. Saffores, nommément un manuscrit de la pastorale de Clovis, en même temps qu'il mentionne Bordet (d'Allos) comme étant un auteur de pastorales qui vivait vers la même époque.”

(A. Leon, *Hélène de Constantinople*, H. Champion, Ed. Paris, 1909, p. 69).

Ezin dezakegu duda Bouchon, eskuidazkiaren adina gatik engana zite- keala, Frantziako Zahartaro Ikerketen buruzagia baitzen. Zoritxarrez obra hori galdu egin da. Beste bidez pastoralei adin bat ipintzen ibili behar dugu. A. Leon-ek berak erakutsi digu (ip. cit. 90.orr.) nola *San Luis*, 1512.urteko frantses liburu batetik eta *Helena*, XV.mendeko beste batetik zuzenki molda- tu zirela. Halaz ere eskuen artean ditugun pastoralak XVIII. eta XIX.mende- koak dira gehienak. Naski, gure antzerki xumeek ez dute XX.menderarte argitaratzeko faborerik izan eta tintaren ahultzeak, paperaren txarrak, zizka ta pipien lanak, arratoien haginak lagun, batzu galdu dira, asko berriro

kopiatu. Testuen kopiatzea ulertzeko, jakin behar da Zuberoan pastoralek arrakasta handia izan dutela, *saltzen zirela, prestatzen zirela*. Ama gurearen aitona Beñat Goihen “Bentaberri” Larrainekoa, pastoral erakusle “errejent” zen. Ama gureak ikusi ditu haurtzaroan nunbait 1900.urte inguruan, bere aitaren logelan zintzilikan eta biribilkatuak, hogeiren bat pastoral. Zoritzarrez aitona alkilatzen baldin bazituen, amaren aita emaiten, bat zait gelditzen, eta Pariseko Bibliothèque Nationale-ra jo behar dut, besteen ikusteko.

Hunekin ekarri nahi ditudan proba berriak hizkuntzezkoak izanen dira. Adibidetako Jean Saroihandy-k aldatu *Errolanen tragedia*, “Bulletin des Lettres, Sciences, Arts et d’Etudes Regionales” delakoak Baionan 1927.an zbkI-2, emana, hartuko dugu:

“au verset 150 nos quatre mss sont d’accord pour dire *nourequi* au lieu de *enequi* et au vers 309 *neure doloria* se trouve à la fois dans L. et B. M. Azcué (sic) enregistre une forme *neure* qui a certainement existé en Soule comme en Biscaye, mais elle aurait passé à *noure* sous l’influence de *goure* et de *çoure*. Elle n’est pas employée aujourd’hui et nous ne le conservons pas dans le texte” (op. cit. 110.orr.).

Zer jakintza ikerbide da hau? Orain ez delakotz aditzen testu zahar batean hitz itxura bat, berriagoa jarri. Saroihandy-k jarraitzen du:

“La forme *heoure* (*heure*), répondant à *neoure* (*neure*) enregistrée par M. Azcué existe dans B. au v.183 “*heure phenez*”, nous avons suivi la leçon de L. “*hire phenez*”, qui est conforme à l’usage actuel mais A et C disent tous deux *ore phenez*. Ils sont d’accord pour employer la même forme au v.86 qui est exclusivement fourni(e) par eux: *ore espedientzia* au v.137, *orequi* (L et B disent *gourequi*) au v.155 *orequi* encore (L dit *hirequi*) et enfin au v.276 *ore tradicionie*, tandis que L et B écrivent *hire tradicionia*, comme nous l’avons fait (..) (op. cit. 110.orr.ialdean).

Frantses testu hontan ikusten denetz, L eta B. esku idazkiak XVIII. mende azkeneko ta XIX.hastapeneko izanikan ere, aldatzaileak ez dituzte *nureki* ta *oreki*, behar bezala ulertu, lehenak ordukotz “norekin” esan nahi baitzuen eta bigarrenia *gureki*(n) endelegatu baitute. XVII.mendean Oihenartek *neure* ta *heure* erabiltzen ditu baina ez du garaiko zuberoeraz idazten, Tartasek, ordea, bai ta azken horrek ez du *neure*, *heure*, *nore*, *nure*, *ore* itxurarik erabiltzen 1666.urtean, ez eta ere Martin Maister-ek 1756.urtean. *Ore*, *nure* XVII.mendean galdu badira ez da dudarik *heure*, *neure* lehenagotik, hamaseigarren mendean. Hala pentsatzen du Saroihandy-k dionean:

“quoi qu’il en soit des remarques que nous venons de faire, il est vraisemblable qu’entre la date des plus anciens manuscrits de la pastorale et la date inconnue où elle a été composée, il a pu s’écouler un temps fort long, pendant lequel des changements ont été peu à peu apportés au texte primitif” (...).

La langue *tout en conservant beaucoup d'archaïsmes*, n'a pas laissé de se moderniser et souvent les formes les plus anciennes sont employées à côté des formes les plus récentes. Ce qui montre que le travail d'adaptation ne s'est fait que d'une façon très lente et qu'il est loin d'être complètement achevé. Qui pourrait dire sur combien d'années il a pu s'échelonner? Personne, croyons-nous, ne songerait à s'étonner si le hasard permettait d'établir que la pastorale de *Roland* est l'une des plus anciennes du répertoire basque et qu'elle a été composée dans la première moitié du XVI^e siècle. (op. cit. 21.orr.).

Adibidea bezala gure ikerlariak ekartzen du ahapaldi bat zeinean protestantismua aipatzen duen:

*Guk kasatü tügü heresiak, heresiak Frantziatik
Eta nahi dütügü kasatü, Moruak Turkiatik,
Gük nahi dügü süstengatü, Jesü Kristen legia
Eta iñoranter erakats errelijioneko egia.* (op. cit. 21.orr.).

Albert Leon-en *Helena Konstantinoplakoa* liburuan, ikusten dira, hortan erabiltzen den aditz sintetikuaren forma batzuk XVII.mendean Zuberoan galdu direla hala nola *eraman* aditzarenak (ikus. *nola darramak thenpora* 126.orr.) baita XVIII.mendean galdu diren *egon*-en aditz itxurak (ikus *idekirik diaudetzü bethi*, 268.orr.) (*aspaldin so naukozü*, 270.orr. *Jinkoari bihotzez dagonena* 284.orr. *lotsaz ikharaz zaguela* 301.orr.) de mème pour *ebil* (*paseian gabiltzazü* 313.orr.). Aditz tankera horiek guziak, gaur, ez dira bate-re endelegatzen Zuberoan:

Eta huna zer dion A. Leon-ek (op. cit. 513.orr.)

“Ces formes témoignent dans la rédaction primitive d'un âge relativement ancien et antérieur au manuscrit où on lit la date de 1804, qui conserve des traces beaucoup moins nombreuses que les autres manuscrits des formes dont je parle” (...)

“...quelques exemples de la forme *ore*, inusitée en Soule depuis un siècle (...).

Albert Leon-ek dio XVIII.mendeko dela *Helena Konstantinoplakoa*, baina erakutsi dugu nola *ore*, XVII.mendeko zuberotar idazleen lumatik galdu zen. Beraz gaien arabera, uste dugu pastoralak sailka ditzakegula:

— XV(?)–XVI.mendeko lehen pastoralak; garaiko “üskara” erabiltzen dutenak lekuka, kopiaatzaileek batzuetan gaurkotuak, oraikotuak: *Clovis* (1500 ekoa), *Errolan*, *San Luis* erregeren bizitzak; Ordeñu Zaharreko, *Abraham ta Moisa*; sailnduen bizitzak *San Antoni*, *Santa Katalina*, *Santa Klara*, *Santa Grazi*, *Santa Margarita*, *San Aletsis*, eta *Jon Done Petiri*., beharbada.

— XVII–XVIII.mendean, Troyes-ko Bibliothèque Bleue delakotik hartu gaiak agertzen dira: *Joana d'Arc*, *Champania-ko Tibald*, *Aimunen lau*

seme, Alexandro handia, Kazmirako printzesa, Joanes Caillabit, Edipa, Celestine de Savoie, Robert le Diable, Santa Jenebiba. eta beste...

- XIX.mendean Frantziako Edestiaren gaiak, *François Ier, Napoleon Ier, le Consulat* eta beste. Mendearen bigarren erdian egin direnak.
- XX.mendean, “Etxahun” Iruri, ta “Harigile” Santa Grazi, pastoralak idazleekin Euskal Herriko Edestia, gure antzerkiaz buruzagitu da.

Horiekin guztiekin pastoralak ez da euskal literaturan osoki onhartua nahiz Gabriel Aresti-ren ondotik, Euskaltzaindiak gure tragedien merezimenduak ezagutu dituen Toribio Alzaga antzerki saria Joanes Casenave Harigile-ri emanaz, baita aspaldian Hegiapahal pastoral errejenta, Etxahun. Iruri zana ta Aita Casenave pastoral idazleak urgazle bezala hautatuz.

3. Zuberoatik kanpo, Iparraldean

Ez dut hainitz sinesten Zuberoan bakarrik izan dela XVI.mendeaz gozotik antzerkirik. Oihenartek idatzi du, *Artzain Gorria* izeneko antzerki ederra XVI.mendean Donibane Garazin eman zela; badakigu Nafarroa Beheran, Amikuzen bereziki zuberotar pastoralak eman zirela, eta idazlerik ez bada izan errejentak bazirela. Uste dut Lapurdin eta Nafarroa hortan antzerki bat izan dela eta osoki galdu dela; beharbada de Lancre sorginen persegitzen hasi zelarik jendeek euskal paperak, eta liburuak erre zituzten, beldurrez sorgin bezala erre zetzaten. Aita Piarres Lafitte-k, Jean Variot-en *Théâtre de tradition populaire* delakoan Marseille-n 1942.urtean emana ta 113.orrialdean holako antzerki baten frantses itzulpena aurkitu zuen 1890.an Elemir Bourges, frantses idazleak Donibane Lohitzunen entzuna. Antzerki hori komedia laburra da, entremesa, Napoleon-en euskal tragedia baten ondotik emana: (*Gonzalve* edo *Ostatu betea*, Gure Herria, Baiona, 1970).

Geronek, Pariseko Bibliothèque Nationale delakoan, César Duvoisin abadearen frantsesezko “Tableau des Mœurs des Basques” testua kopiatzen ari ginelarik, esku idazkiaren beste buruan ta alderantziz aldatu kantu bilduma batean, holako antzerki baten zati batekin topo egin dugu eta zatia euskaraz dago. Hain zuzen lapurtar euskaraz dago. Zatiak izenburutzat, frantsesez hau dakar, badirudi Duvoisin-en eskutik: *Chant tiré d'un drame inséré en partie dans l'Atheneum français par Francisque Michel*. Nere ustez aipatu lana “*Lettres à M. P. Mérimée sur les représentations dramatiques dans le Pays Basque*, Athenoeum français, 9 déc. 1854, pp. 1.133-1.134; 27 janv. 1855, pp. 86-88. iturria du eta hau da:

Nik ez dirot erran
nik ez dirot pentsa
bihotzean zer dudan.
Oi neure hatsa
doidoia badoha

airera
zeruetara;
neroni banoha
harekin batean
airean

Su handi batek
erretzen ari nau;
baditu hanbat gau,
ithoren nautela
hasgorapenak
nigarrek

Jaungoiko handia
zuri dautzut hela
zure esku ezta
heda
diezadazula
nik bezala
sofritzen duenik
ote da!

Leku beheerenetarik
gorenetara,
banabila
zure bila
zeruetara
altxatzen ditut
begiak
ixurtzen ditut
nigarrezko ithurriak
zure lehiaz.

Heien kariaz
othoizten zaitut
hel zakizkit.
Badakit
zu gabe
ez dela
Oi ene jabe
handien artean
handi zarena
zorionik munduan.

Oi zure gana
ereman nezazu
nik ez dut mundupean
aurkitzen ahal sosegurik
Banitu bi hegala
altxatzeko
leku hontarik
airatzeko.

banindoake
zure aldera
aingeru bake
dohatsura
oi Jinko handia
zeruko nausia
urrikal zaite
ene ahalgabeari,
hel zaite
zure haurrari!

Aingeruek

Sosegu harzazu,
arriba gaixoa
zure amodioa
heldu izan zaiku
lili eztiaren
usainaren pare
kontsola zaite
zure bila gare
etorriren.
Ortziriak karraskatzen dueno
Jinkoaren hatsak hura hil arteraino
Harzazu sosegu,
othoizten zaitugu,
ez duzu
gu baino
gehiago
elkar besarkatzeko
lehiarik.

Eramanen zaitugu
gurekin
zeruetarik
jausten garenean manuaarekin
arriba gaixoa
gure bozkarioa
orduan, ditake
handia!
Zeruko loria
izar argiaren pare
dirdiratu da
heltzen zarenean
gure erdira
parabisura
Jinkoaren aldarera.

Gehienez lapurdiko euskara da, baina sortaldeko euskalkien kutsuarekin: *dirot*, *dezaker*'en ordez, *Jinko*, *Jainko*'ren ordez. *Hel*, "sokorro" bezala erabiltzen da, baita "iritxi" bezala, ere.

Hil dei ederra, erromantikutasunez betea, euskara ederrean, baita olerkitasun egokian, kopla bakoitzean zerua, airea, begiak aipatzen dira, ta airearen irudiak hegalarrena ekartzen du, aingeruak ager arteraino; pertsu aski libreak, piko askeek ez dute bertsolari lanekin zer ikusirik. Holako ondar ederre ez gaituzte kontsolatzen galdu egin denaz, ez eta orain egiten ez dugunaz.

Ikerlan labur honekin errauts batzu harrotu nahi izan ditut; nere aldetik pentsatzen dut, Nafarroa Garaia, Beherean, Lapurdin, Zuberoan euskal antzertia izan dela, XVI.mendeadanik nahiz azken horrez baizik ez dugun, aipamenez kanpo, testurik. Baliman zoko batean edo bestean, antzerki ondarririk aurkituko da, euskalari ta euskalzaleri hori opa diet, zeren olerki ta kantuekin antzerkia gure literaturaren haserakoa izan baita.

ESAERAK-ETA, IZURTZALDEKO EUSKARAN

Donostia, 1981-VII-24

Nikolas Altzola Gerediaga

Beteak ditut koaderno batzuk, nire sorterraldeko euskaran hitz, esaera, kantuzahar, kontu kontari eta horrelakoak jarrita.

Etnologia eta Dialektologia gaiak, ugari.

Eta aurrerantzean ere lan honetan jarraitzeko asmoa dut.

Moltsoan daude jarriak, sailkatu gabe, eta hor geldituko dira. Beste batzuek sailketatze hori.

Zatika zatika emango ditut EUSKERA Aldizkari honetan, eta bi modutara: Esaten diren erara, laburpen eta fonetismoekin, lehenengo zerrendetan, eta hitzak osaturik bigarrenetan.

Horrela ematea erabaki dut, iritzi batzuk entzun ondoren. Beste batzuen iritziak ere eskerronez entzungo nituzke.

Izurtza da nire jaioterria, Durangaldean. “*Esaerak-eta Durangaldeko Euskaran*” jarri diogu txosten honi titulua, bilkurarako egin den deian, baina egokiagoa eta zuzenago dela uste dut “*Esaerak-eta, Izurtzaldeko euskaran*” izenburutzea.

Ba, bereiztasuntxoak nabaritu daitezke haranaldeko puntetakoan eta erdialdeko herrikoen artean. Durangon bertan, urikalekoak berak ere baditu ñabardurak, baserrikoen parean.

Ondo gorde dut gaztetako euskara. Bizkaiko literarioa edo baturantzakoa baino errazagoa da niretzat orain ere Izurtzakoa!

Izurtzakoak izan ziren nire gurasoak. Abadiño Traña-Andikoa amona bat. (Izurtzakoak besteak). Euskara berdina dugu Trañan eta Izurtzan.

Egunero idazten dut zerbait egunerokoan, labur edo luze, etxeko hizkuntzan. Etxekoei gutunak ere, berdin, etxekoan.

Ehun ale prestatu ditut, eredu bezala. Azalpen eta azterketarik gabe. Beste lanarlotu baterako hori.

1

a) Aitte San Antoniño (*)

Urkiolakue
Askoren bidxotzeko
Santu debotue.
Askok eïtt'utzo (**)
San Antoniñori (***)
Egun batien juen
Da bestien etorri.

b) Aitte San Antoniño (*)

Urkiolakue
Askoren bidxotzeko
Santu debotue.
Askok egitten dutzo (**)
San Antoniñori (***)
Egun batien juen
Da bestien etorri.

(*) *Antoniño / Andoniño; Antonidxo / Andonidxo.*

(**) *Eïtt'utzo / eitte'utzo; egitten dutzo / egitten dautzo.*

(***) *Antoniñori / Andoniñori; Antonidxori / Andonidxori.*

2

a) Santa Barbara

Santi Kurutz
Jaune, balidxo sakigus.
Iñusentien ogidxe
Jaune, mixerikordidxe.

b) (berdin, orobat).

3

a) Gabon, bonbon (*)

Natibittate', ase ta (**) bete
Da San Estebanes, bestetako beste.

b) Gabon, bonbon (*)

Natibittates, ase ta (**) bete
Da San Estebanes, bestetako beste.

(*) *Bonbon / bon bon (?)*

(**) *Ta / da.*

4

- a) Agintxen es'takidxenak esang'utzu ser eiñ.
- b) Agintxen es dakidxenak esango dutzu [*] ser egiñ.

(*) *Dutzu / dautzu.*

5

- a) San Frantziskuen gos'opill gosuek.
- b) San Frantziskuen goso-opill gosuek.

6

- a) Negarres eitten eidau berba umiek.
- b) Negarres egitten ei-dau berba umiek.

7

- a) Segoser (*) gureko dau umie', negarres badau.
- b) Ser edo ser gureko dau umiek, negarres badau.

(*) *Segoser / sedoser.*

8

- a) Aidien (*) erabilli dabiela manta ganien Bartolo.
- b) (Berdin, orobat).

(*) *Aidien / airien.*

9

- a) Ixillddu barik egun gustidxen, d'ixill'oteko bestiei.
- b) Ixillddu barik egun gustidxen, da ixillik egoteko bestiei.

10

- a) Ausike txakurre, gosie daukenien.
- b) (berdin, orobat).

11

- a) "Erpeik eseidek erakutzi", katuei txakurrek.
- b) "Erperik es ei-dek erakutzi", katueri txakurrek.

12

- a) Erromeridxa gitxi, diruik estauenien.
- b) Erromeridxa gitxi, dirurik es dauenien (*)

(*) *Dauenien / daguenien.*

13

- a) Jantzan eitteko gogue'pe kendu
Bartolon soñu jotiek.
- b) Jantzan egitteko goguek be kendu
Bartoloren soñu jotiek.

14

- a) Katus beteik etxie,
d'ausora katamum'eske amama.
- b) Katus beterik etxie, da ausora katakuma eske amama.

15

- a) Bierrien gurasuek d'erromeridxa semiek.
- b) Bierrien gurasuek da erromeridxa semiek.

16

- a) Putze ugeri arruen etxien.
- b) (Berdin).

17

- a) Dirus beteik etxie, d'erropa sarrakas beti.
- b) Dirus beterik etxie, da erropa sarrakas beti.

18

- a) Automobill elegantias
da gasoliñatako b'es gero.
- b) Automobill elegantiegas, da gasoliñatarako be es gero.

19

- a) "Lel'urriñenguok!"
esan eidxaban erriko lelui'lelueak.

- b) "Lelu urriñenguok!"
esan ei-dxaban erriko lelurik leluenak.

20

- a) Gorridxek ikusten dabillega
erriko alkate barridxe.
b) (Berdin).

21

- a) Piper miñik estabela gure, d'ostikaka gur'astue.
b) Piper miñik es dabela gure, da ostikadaka gure astue.

22

- a) Urriñ oba aixe-jendie (*) egoaix'egunetan.
b) Urriñ oba aixe-jendie (*) egoaixe egunetan.

(*) *Jendie / jentie.*

23

- a) Bandera barik jantzaïdxek aurteng'urtien Ixurtzan.
b) Bandera barik jantzaridxe aurtengo urtien Ixurtzan.

24

- a) Auririk es, da guardasol bigas Bartolo.
b) (Berdin).

25

- a) Lagun sintzue, benetakue, bat ixen da be, neikue.
b) (Berdin).

26

- a) Ser es'ok? da neu'panekik!
b) Ser esan dok? da neuk banekik!

27

- a) Ser daukosue? da jateko gogue.
b) (Berdin).

28

- a) Sesenen atzien aĩñeketan Andra Maidxako abadie.
- b) Sesenen atzien ariñeketan Andra Maridxako abadie.

29

- a) Santu sekulan estal'ikusi gausa motzaurik iñun be.
- b) Santa sekulan es dala ikusi gausa motzaurik iñun be.

30

- a) Geure denpora gustidxen b'estu entzun olakoik sekule.
- b) Geure denpora gustidxen be es dogu entzun olakorik sekule.

31

- a) Kantetan Bartolo, d'ague sabalik danok.
- b) Kantetan Bartolo, da ague sabalik danok.

32

- a) Prakak apurtu, d'aririk es josteko.
- b) Prakak apurtu, da aririk es josteko.

33

- a) Agatx ganien Bartolo da txori ederraurik nun.
- b) Agatx ganien Bartolo da txori ederragurik nun.

34

- a) Aspaldiko neska, selan sabix? da "Yo bien y usté'?"
- b) (Berdin).

35

- a) Praka lusiekas ikusi dabela neska bat Bartolok, d'olakorik, olakorik!
- b) Praka lusiekas ikusi dabela neska bat Bartolok, da olakorik, olakorik!

36

- a) Sera... sereko serien... sera!
- b) (Berdin).

37

- a) Sulo bako bandera txikidxe
Bartolon andrien atorra sarras.
- b) Sulo bako bandera txikidxe Bartoloren andrien atorra sarragas.

38

- a) Napar mutillek piñu ebaten estaukiela parekoik.
- b) Napar mutillek piñu ebaten es daukiela parekorik.

39

- a) Gusurrik beñ b'es gusurtidxe.
- b) Gusurrik beñ be es gusurtidxe.

40

- a) Guardasolas etorteko euskidxei euridxe.
- b) Guardasolagas etorteko eguskidxeri euridxe.

41

- a) Ankas gora etxe gustidxe, d'erromeridxara danak.
- b) Ankakas gora etxe gustidxe, da erromeridxara danak.

42

- a) Sorridx'ugeri Bartolon etxien.
- b) Sorridxe ugeri Bartoloren etxien.

43

- a) Dano'posik Bartolo eskontzen dala ta.
- b) Danok posik Bartolo eskontzen dala ta.

44

- a) Erri gustidxe kontixu berie
d'ese'be bakue dala bera.
- b) Erri gustidxe kontixu berie, da eser be bakue dala bera.

45

- a) Sorgiñe'tabixela esa'leike gur'etxien gaur.
- b) Sorgiñek dabixela esan leike gure etxien gaur.

46

- a) Miauke katue, da barreka gure amama.
- b) (Berdin).

47

- a) Barreka Bartolo da tanboliñ (*) joten ber'andrie.
- b) Barreka Bartolo da tanboliñ (*) joten bere andrie.

(*) *Tanboliñ / danboliñ; tanbolin / danbolin.*

48

- a) Atzamarra agora emo'idxok
agiñ ederrak dxaukosak da (*).
- b) Atzamarra agora emon egidxok
agiñ ederrak dxaukosak da (*).

(*) *Da / eta.*

49

- a) Bab'odolostie', gixena' kentzeko.
- b) Bada-odolostiek, gixenak kentzeko.

50

- a) Goxien goxeti' juen sala, arriguburdidxas Abañora.
- b) Goixien goixetik juen sala, arrigu burdidxegas Abañora.

51

- a) Abañoko abadie'pes olako erretolikaik.
- b) Abañoko abadiak be es orrelako erretolikarik.

52

- a) Erretolika utzien egun gustidxen, da se'san dabenip'es.
- b) Erretolika utzien egun gustidxen
da ser esan dabenik be es.

53

- a) Ori bada sur'erresoie, gixon batena gurau'ot.
- b) Ori bada sure erresoie, gixon batena gurau dot.

54

- a) Kartzelan aitte, d'ama gaxorik; gerran ill gero semie.
- b) Kartzelan aitte, da ama gaixorik; gerran ill gero semie.

55

- a) Amar egidxe entzun de be, bere lekuen Bartolo.
- b) (Berdin).

56

- a) Berb'onak aurreti', da burlie atzeti'.
- b) Berba onak aurretik, da burlie atzetik.

57

- a) Amatau die San Juan suek, da barriro nos ixetu?
- b) (Berdin).

58

- a) Keixpe gorridxe'p'emoten asi eide
Gernikako Arbola Sarra.
- b) Kerixpe gorridxe be emoten asi ei de,
Gernikako Arbola Sarra.

59

- a) Ori kalamittate santuori ainbati' ariñen eru'ixue.
- b) Ori kalamittate santu ori ainbatik ariñen eruen egixue.

60

- a) Egun gustikue be jango leukela berak goxien, Bartolok.
- b) (Berdin).

61

- a) Ago onekue jat'orduen, gure Bartolo.
- b) Ago onekue jateko orduen, gure Bartolo.

62

- a) Arduhalie ixenarren be, egun gustidxen tabernan.
- b) Ardau salie ixen arren be, egun gustidxen tabernan.

63

- a) Aste gustirako be neikue sala atzokue.
- b) (Berdin).

64

- a) Berba bako gixona.
- b) (Berdin).

65

- a) Berba gitxi oba, berba bako gixonas.
- b) Berba gitxi oba, berba bako gixonagas.

66

- a) Berbadun gixona ixen leike, mutue ixen arren.
- b) (Berdin).

67

- a) Sarat'andi bakue, baia seregiñek eïttekue.
- b) Sarata aundi bakue, baia seregiñek egittekue.

68

- a) Katue baseintxeke be olan miauke ibilltteko!
- b) (Berdin).

69

- a) Eskondute gero be, jantzan eïtten ikesi barik'ure Bartolo.
- b) Eskondute gero be, jantzan egitten ikesi barik gure Bartolo.

70

- a) Sentzune nos etorrik'ete dxako'
gure Bartolo gastelastu orri.
- b) Sentzune nos etorriko ete dxakok
gure Bartolo gastelastu orri!

71

- a) Bere lekukue, d'iñoĩ kalteĩk es eïttekue.
- b) Bere lekukue, da iñori kalterik es egittekue.

72

- a) Bakie ixen deittela gugas, da sermoi gitxigas.
- b) (Berdin).

73

- a) San Jose lorak Martidxen bidxotzien.
- b) (Berdin).

74

- a) Moskor andirik es kafesnias.
- b) Moskor aundirik es kafesniegas.

75

- a) Umore txarras b'es barreik gure Bartolok.
- b) Umore txarragas be es barrerik gure Bartolok.

76

- a) Tabernan ardaue ba'dditturridxen ure, guetzako.
- b) Tabernan ardaue, baia itturridxen ure, guretzako.

77

- a) Piperr'eñdxunat, da guriek eñdxon.
- b) Piperra egiñ dxunat, da guriek egiñ dxon.

78

- a) Etx'oneko alabie Eskoli joslie.
- b) Etxe oneko alabie Eskoli joslie.

79

- a) Beti limosn'ona etxek'andra sabalak.
- b) Beti limosna ona etxekoandra sabalak.

80

- a) Gaus'andidxe e'tzala ixen gixajue, baia inguruetako arruena bai.
- b) Gausa aundidxe es sala ixen gixajue, baia inguruetako arruena bai.

81

- a) Urregorri pilluek Sant'Aged'ostien.
- b) Urregorri pilluek Santa Ageda ostien.

82

- a) Ori be bauku?, d'ori tte geidxau.
- b) Ori be ba dauku?, da ori tte geidxau.

83

- a) Gitxi dala asko, besteik estauenien.
- b) Gitxi dala asko, besterik es dauenien.

84

- a) Asko daukiela, da keie bañ'es.
- b) Asko daukiela, da keie baiño es.

85

- a) Uste barik etorri dxakola kurutzie.
- b) (Berdin).

86

- a) Paparrien siderresko kurutzas gure Bartolo.
- b) Paparrien siderresko kurutziegas gure Bartolo.

87

- a) Paparrien kurutzedunek Durengoko Maristak.
- b) (Berdin).

88

- a) Kurutze bako prosesiñuek Durengon gaurko gure gasteidxe.
- b) Kurutze bako prosesiñuek Durengon gaurko gure gasteridxe.

89

- a) Kurutze-Santu inguruen, sorgiñen batzarra sapatuen.
- b) (Berdin).

90

- a) Kurutz'andi bat lepuenda, erromeridxara Bartolo.
- b) Kurutze aundi bat lepuen-da, erromeridxara Bartolo.

91

- a) SantiKurutze, da kurutzeik es.
- b) Santi-Kurutze, da kurutzerik es.

92

- a) Loteridxek urten, d'olako kurutzeik!
- b) Loteridxek urten, da olako kurutzerik.

93

- a) Kurutzeik kurutze, da tabernaik taberna.
- b) Kurutzerik kurutze, da tabernarik taberna.

94

- a) Etorri dxatzu suri be seure kurutzie.
- b) (Berdin).

95

- a) Astelena gaur Bartolok.
- b) (Berdin).

96

- a) Esate gitxiko ago sabala, Bartolo gurie.
- b) (Berdin).

97

- a) Señek'edxauk'soluen Bartolo t'astue (*).
- b) Seiñek geidxauke soluen, Bartolo ta astue.

(*) *T'astue / d'astue.*

98

- a) Bartolonien saltzen eidies axie' merke t'ugeri.
- b) Bartolonien saltzen ei dies aixiek merke da ugeri.

99

- a) Kanpuen itxi gusurre gur'etxien sartzeko.
- b) Kanpuen itxi gusurre gure etxien sartzeko.

100

- a) Gast'aruen ameset'asko; mantzotute sartzaruen.
- b) Gaste aruen ameseta asko; mantzotute sartzaruen.

DIALEKTOLOGI SAILA

LA MORFOFONOLOGIA COMO METODO DE ANALISIS DE UNA LENGUA AGLUTINANTE

*I. Dialektologi ikastaroa**

Deba, 1981-IV-23-26

Karmele Rotaetxe Amusategi

Parece necesario justificar la elección de este tema en un curso sobre Dialectología*. Este término, en efecto, se toma a menudo como sinónimo de geografía lingüística para designar la disciplina que se propone describir comparativamente los distintos sistemas o dialectos en los que una lengua se diversifica en el espacio, y establecer los límites de los mismos. Sin embargo, el término también se emplea para designar la descripción de hablas tomadas aisladamente, sin referencia a las hablas vecinas y/o de la misma familia. (1).

Es este segundo sentido el que puede justificar la inclusión del tema señalado. Porque la dialectología, vista así, intenta como la lingüística la descripción de hablas, es decir, la explicación de realizaciones orales de la lengua. Hay que destacar aquí dos ideas: *explicación y oral*. La primera supone que, para ser válida, la descripción tiene que ser lingüística, o sea, científica: no toda descripción es explicación. Por otra parte, la descripción a la que me refiero tiene que tomar su material del empleo oral. En nuestro caso, creo que esta precisión hay que entenderla correctamente. La mayoría de los trabajos actuales sobre el euskera son filológicos en el sentido de que se proponen analizar la lengua de escritores de siglos pasados, casi siempre, o toman sus ejemplos de esas fuentes. Siendo necesario un trabajo así, parece, con todo, que hay que tener en cuenta también que el euskera no ha muerto, por ahora al menos, y que debemos, como lingüistas, conocer las formas que emplean los hablantes en su comunicación diaria. El análisis de tales formas tiene forzosamente que ayudar a comprender el sistema de la lengua. Por consiguiente, la realidad oral —y no me estoy refiriendo ahora a registro en su sentido socio-

* El presente trabajo dio lugar a dos lecciones durante el 1.º Curso de Dialectología de la R. Academia de la Lengua Vasca; "EUSKALTZAINDIAREN I. Dialektologi Ikastaroa", tenido en Deva (Guipúzcoa) del 23 al 26 de abril de 1981.

(1) J. Dubois et al.: *Dictionnaire de linguistique*, "Dialectologie", Paris, 1973.

lingüístico—, porque es euskara, interesa a la gramática del euskara, y porque muestra formas distintas empleadas comúnmente en diferentes puntos de nuestro país, interesa a la dialectología.

Por fin, me queda por señalar en esta Introducción algo sobradamente conocido con respecto a la jerarquización que suele establecerse entre lengua normalizada y hablas locales. Para un lingüista no hay supervariación que tenga mayor prestigio que otras variedades, ya que en lingüística no intervienen juicios de valor. Por ello, al lingüista le ofrecen el mismo interés la lengua de Axular, de Leizarraga o de Lizardi que el euskara de Deba, de Ceánuri, de Azpeitia o de Ataun. Y, desde esta perspectiva, hay que decir algo con respecto a la normalización que estos años se está extendiendo: es necesario saber cómo enseñar el euskara unificado especialmente entre euskaldunes que siempre se han expresado y se expresan en esta lengua, y, sobre todo, cuando las formas de la norma que se les está presentando distan mucho de las que ellos usualmente emplean y con las que comunican y pueden perfectamente comunicar. Para esta tarea también, parece que un conocimiento del análisis de las formas de hablas locales es, en algunos casos, indispensable, siempre, beneficioso.

1. Principios teóricos y criterios de aplicación

1.1. Para entender la morfofonología, hay que recordar que lo que suele llamarse morfemas (unidades gramaticales menores que la palabra) son, en realidad, elementos de forma en el sentido saussureano, es decir, elementos subyacentes o abstractos que se realizan sustancialmente mediante morfos a menudo diferentes, en razón de condicionamientos fónicos, como iremos viendo (2). Recurriendo a ejemplos de “bound-forms” o formas ligadas como ondarrés /sememin/ “en el hijo” (en “tengo confianza en el hijo, por ej.”) se ve que está formada por una base nominal y uno o varios morfos que habrá que analizar, hasta llegar a unas formas de base ya invariables con respecto al contexto en que ocurren (3). La morfofonología exige que se tengan en cuenta y que se expliciten dos tipos de reglas: las de posición y las de representación.

Una regla de posición es una regla que da el orden de aparición de las clases de morfemas —o, eventualmente, de las categorías de temas y de las

(2) Cf., entre otros autores, J. LYON: “Morfema y morfo”, in *Introducción en la linguística teórica*, p. 189, traduc.: R. Cerdá, Barcelona, 1971.

H. A. GLEASON: “Identification des morphèmes”, in *Introduction à la linguistique*, trad.: F. Dubois-Charlier, cap. 6, Paris, 1969.

(3) Se emplean /.../ no para señalar una transcripción fonológica, sino para destacar la palabra vasca de su traducción castellana que figura entre comillas.

clases de morfemas— para un determinado tipo de sintagma. Así N-D significa que un nominal va seguido y no precedido de un determinante.

Una regla de representación supone que a cada unidad mínima significativa de la lengua se le ha atribuido, después de análisis de las variaciones fónicas debidas a los contactos que el discurso impone a los morfofonemas, una forma estructural, la única que puede llamarse morfema. Hecho este análisis, las reglas de representación o reglas de morfofonología no son sino las operaciones que permiten pasar de las secuencias estructurales de morfemas a las secuencias fonológicas de los morfos. Este paso del nivel estructural al nivel del discurso implica o no transformaciones fónicas; cuando no tiene lugar ninguna transformación, se habla de representación directa de los morfofonemas. Las transformaciones, por otra parte, pueden ser diversas: una morfofonema puede quedar representado por un fonema distinto, dos morfofonemas en contacto pueden quedar representados por un solo fonema, etc.

Hay que señalar además que, debiendo ser siempre las mismas en igual contexto fónico (que incluye pausas, junturas, etc.), las reglas señaladas no pueden ser nunca reglas ad hoc. Por ejemplo, si se da una regla mediante la cual el encuentro de morfofonemas *a-a* (-a, final de base nominal y -a, determinante, aglutinado) queda representado por /i/ en posición final absoluta (andra-a ... /andri/ond.), dándose las mismas condiciones fónicas (final temática, regla posicional y estructura silábica), el resultado tendrá que ser el mismo.

1.2. La morfofonología, puesta en práctica desde BLOOMFIELD principalmente en las Escuelas lingüísticas americanas y cuyo interés señaló ya N. S. TRUBETZKOY, ha sido integrada en la teoría generativo-transformacional en el tratamiento del componente fonético. Es método inductivo-deductivo, ya que se presuponen formas subyacentes y reglas que conducen y explicitan el paso de tales formas abstractas a sus realizaciones, pero parte de formas del discurso, es decir, de datos que se segmentan y se clasifican.

1.3. Poco aplicada a lenguas con tradición escrita y de las que existen abundantes estudios filológicos y gramaticales, la morfofonología se ha utilizado mucho más para el análisis de lenguas de transmisión principalmente orales (como es el caso, nos guste o no, del euskara hablado hoy). Por otra parte, parece que, por el dominio en que se aplica, tiene que ofrecer mejores resultados en lenguas de tipo aglutinante en las que cabe sospechar que los encuentros de los elementos en las formas ligadas constituyen un excelente caldo de cultivo para numerosos y variados fenómenos fónicos.

Esto es lo que queremos comprobar en la aplicación del método a la lengua vasca que, bien definida como lengua de sufijos, bien portadora en su metalenguaje del término declinación, pertenece, a mi parecer, dentro de la relatividad de la clasificación, al tipo aglutinante.

2. Aplicación

2.1. “Erizkizundi Irukoitza (Triple Cuestionario)”

Hace unos años Ana ECHAIDE nos ofreció la “Ordenación cartográfica de algunos datos del Erizkizundi Irukoitza (Triple Cuestionario)” (4); se trata, como es sabido, de un cuestionario preparado por D. Resurrección M.^a de AZKUE en 1921. Quisiera fijarme en algunas contestaciones a ciertas preguntas de la encuesta.

Los datos del MAPA N.º 1, donde se encuesta: *A+A*, tipo *Arreba+a*, muestran las siguientes variantes: *arrebea*, *arrabea*, *arrabe*, *arrebe*, *arrebee*, *arrebbei*, *arrebbea*, *arrabie*, *arreba*, *arrebbea*. Estos datos, aparte de mostrar dos variantes por la base /*arraba*/, /*arreba*/, parecen indicar que la vocal final de tal base muestra una tendencia general al cierre mayor o menor (-i, -e). Una variante parece mostrar una representación directa: *arrebbea*, interpretable como *arreba+a*, sin modificación. Pero esto que llamo tendencia general al cierre puede explicitarse mucho mejor dando una regla que, para cada variante local, conduzca del morfofonema de la base a los distintos fonemas que aparecen en las formas contestadas.

En la pregunta correspondiente al MAPA N.º 9 parece que lo que se busca son variantes lexicales, al preguntarse: *Argina ala Argiña*, para situar geográficamente el fenómeno de palatalización. Este no parece sentirse como morfofonológico puesto que, pese a ser la base *argin*, no se pregunta, como en el caso anteriormente citado, algo como *IN + A*, tipo *argin + a*, *argina ala argiña*. Sin embargo, por tratarse de la aglutinación del determinante a una base, sí es objeto de estudio morfofonológico y, como veremos, pueden darse reglas que lo expliquen y agrupen hechos puesto que la palatalización en numerosas hablas vascas se da cuando, estando precedida de -i, la consonante final del tema es otra además de la nasal dental.

Pero lo que ofrece mayor interés —porque es algo que aparentemente no se había buscado en la encuesta— es que, salvo una variante (*A₂ hargina*), las dos otras variantes —mucho más extendidas geográficamente— presentan las formas *A₁ argina, e* y *B argiña, e*. Es decir, que en todas las localidades del mapa incluidas bajo *A₁* y *B* la representación del determinante unido a la base se hace (o puede hacerse) mediante una vocal de timbre más cerrado -e. Parece que este fenómeno, demasiado extendido como para ser fortuito, tiene que ser recogido en una encuesta dialectal y necesita ser explicado (contexto fónico en el que se da, etc.); la morfofonología, tal como la entendemos, suministra al menos una explicación: hay que admitir que en muchas hablas vascas funciona una regla de armonización vocálica que podría explicitarse como sigue:

(4) ANA ECHAIDE: “Ordenación cartográfica de algunos datos del “Erizkizundi Irukoitza” (Triple Cuestionario)”, en *Anuario del Seminario de Filología vasca “Julio de Urquijo”*, VIII, 1974, pp. 113-148, con 38 mapas, San Sebastián, 1976.

Beraz, ondorio gisa, itzultzaileak nahiko baloratzen duela bere lana eta bertan aurkitzen duen zailtasuna eta era berean, prestakuntza sistematiko eta sakon baten premiaz jabeturik dagoela aitortu genezake. Hauxe da erantzunaren arrazoiak galdetzean erantzun dutena: kultur maila handia, sistematikotasuna, profesionaltasuna, seriotasuna etab. bezalako kontzeptuak erabiltzean.

15. Itzultzaile prestakuntzaren iraupena

Galdera nolabait mugatzeko egunero lau ordutako iharduna oinarritzat harturik, aukera batzu eskaintzen ziren prestakuntzaren iraupenaz. Argi dago erantzun erabat indikatiboa nahi zela, eta aurreko galderak bezala, prestakuntzaren garrantzia dagoen kontzientzia neurtze ahalegin bat baizik ez dela.

Hogei ta hamarretik 23-k erantzun dute:

Sei hilabete (3)
Urte bete (8)
Bi urte (6)
Hiru urte (5)
Gehiago (0)

Erantzunek beren laburrean adierazten dutenez, “erdi-karrera” baten statusa izan beharko luke prestakuntza horrek gure itzultzaile multzo dinamikoenaren esperientziaz eta eritiziz.

16. **Ikaslearen sarrerako prestakuntza maila**

Bi parametro ezartzen ziren neurketarako: kultura eta euskara.

Kulturaren sailean hiru aukera zeuden eta erantzunak honela banatu dira:

Unibertsitate ikasketak (4)

COU - BUP ikasketak (6)

Kultura orokor ona (azterketa baten arabera) (16)

Batek hiru aukera proposatzen ditu.

Euskararen sailean bi aukera zeuden:

Euskaltzaindiko "B" titulua (9)

Euskaltzaindiko "D" titulua (15)

Ikus daitekeenez, erantzunak agian ez dira oso adierazgarriak, baina beti ere *Kultura orokor on bat* eta euskarazko *"D" titulua* joera nagusia markatzen dutenak direlarik, orientagarri gerta daitezke.

17. **Itzultzaile profesioaren statusa**

Galdera honi 20-k erantzun diote eta bi aukera zeuden, eta honela formulaturik zegoen: itzultzaile profesioa nola nahiko zenuke:

— erabat arauturik (karneta, tarifak...) (17)

— orain arte bezala arautu gabe (3)

Ondorio gisa, itzultzailea ez dagoela ados espontaneismo edo anarkiarekin esan liteke, eta beste profesio batzuren pareko edo antzeko status baten bila joatea begi onez ikusten du.

Hau guztiau estuki loturik dago lehengo zenbait erantzunekin eta prestakuntzaz eta bere egitekoak duen aritziarekin.

18. **Euskal Itzultzaileen Lan Ihardunaldi baten premia**

— Bost aukera posible zituen galderak eta gutxira 29 erantzun dute.

Beharrezkoa dela 15 erantzun dute.

Komenigarri dela 10 erantzun dute.

Inork ez du erantzun *beharrezkoa ez denik* edo kaltegarria denik eta eritzirik gabe-koak 4 izan dira.

Positiboki erantzun dutenen eritziak 83 % inguru suposatzen du.

— Honelako Ihardunaldi batetan zer mailatako parte hartzea izango luketen galdetzean, 4-k antolatzaile gisa, 5-ek ponente bezala eta 14-k entzule erara erantzun dute. Zenbaitek maila bakarrean baino gehiagotan esku hartzeko gertutasuna adierazi du.

19. **Itzultzaileen arteko aldizkaria**

Euskal itzultzaileen artean aldizkari edo buletin gisako zerbait argitaratzeari buruz zer eritzi dagoen galdetzean, 29-k erantzun dute: 8-k *beharrezko* jotzen dute,

13-k *komenigarri*, bakarrak dio *ez dela beharrezko*, inork ez kaltegarri denik eta 7 dira eritzigabeak.

Honela, bada, *komenigarri* eta *beharrezkotzat* jotzen dutenen kopuruak 72,4 % suposatzen du, eta beraz, aurreko gaietan profesionaltasunari buruz agertzen zen interesaren ildotik doa erantzuna.

Ondoren, aldizkari edo buletin honen helburu eta eginkizunaz galdetzean: itzultzaileak aurkitzen dituen zailtasunetan laguntzea, itzultzaileen profesionaltasuna eta koordinazioa indartzea eta itzulpenen kritika eta teorizazioa egitea aipatu dira jomuga posibletzat.

Laburpen gisa: Inkesta honen bidez bildu ditugun emaitzak larriki laburtuz gero, hau esan daiteke: gure itzultzaile talde dinamikoena gazte samarra dela, 25-40 urte bitartekoa, eta gehienbat gipuzkoarrek osotzen dutela. Kultur-prestakuntza maila ona duela eta portzentaia nabarmen batetan profesionalizazio bidean sarturik dagoela, eta ia euskara batuaz soilik baliatzen direla.

Itzultzaileak bere itzulpenak neurri handi batetan gaztelaniatik egiten badituzte ere, nabarmena da beste hizkuntza batzutatik egiteko duten gaitasuna ere eta ia erabat autodidaktak izan dira beren prestakuntza prozesuari dagokionez, eta hizkuntzaren egoera ez finkatuak kezkatzen du gehienbat (lexikalak eta sintaktikoak), beraz oinarritzko premietan dauka burruka. Itzulpen teoriarik ez du ezagutzen.

Ereduei dagokienez, ez dago iraganari begira, gaurkoei baizik. Itzultzaile eta Interpretarien Eskola, Itzultzaileen Lan Ihardunaldiak, eta Itzultzaileen Aldizkari bat oso positiboki baloratzen ditu, eta bere egitekoa eta etorkizuneko lanbidea serioски profesionalizatzearen aldeko agertzen da.

EUSKAL ITZULTZAILEEN LAN IHARDUNALDIA (EILI)

Sarrera

Euskararen eta Euskal Literatur Historian zehar itzulpenak sarrera garrantzitsua izan du; beraz, hizkuntzaren baitan eragin handia izan duela aitor daiteke *a priori*. Bestalde, kultura moderno baten eskakizunen mailan jarri nahi duen edozein hizkuntza, derriorturik dago inguruko erdaretatik itzulpenak eurrez burutzer, garapen batetara iritsi nahi badu eta gizarte elebidun batetan konkurrentzian aritu nahi badu.

Gure artean, azken aldi honetan, itzultzailearen egitekoak bultzada handi bat hartu du: testugintzan, administrazio bizitzan, hizkuntz normalizapen prozesuan etab. itzulpenak ugalduz doaz.

Gure itzulpen ekintzak badu kontutan hartu beharreko berezitasunik: alde batekin, bere burua oraindik finkatu ez duen hizkuntza bat du xede hizkuntza (target language), beraz itzultzailea hizkuntza *aldatzaile* adina *sortzaile* ere bada alor gehienetan.

Literatur testuei dagokienean, gure artean itzulpen gutxi egiten da eta itzulpen literarioak zailtasun estilistiko bereziak planteatzen dizkigu hizkuntza garatuetan aur-

kitzen diren "*niveaux de langage*" direlakoek ordain egokirik aurkitzen ez dutelako euskararen baitan.

Bestalde badirudi, hizkuntzalarien eta literaturgileen artean ez dagoela harreman handiegirik: arauemaileak iraganari begiratzen diotela gehienbat, eta alde berean, eguneroko praxis mintzatuaren eta idatzian joera desberdin batzu gorpuzten ari direla anarkian eta energi erreketak batetan galtzeko arrisku handiarekin. Beraz, interesgarri ezezik nahitaezko deritzagu *hizkuntzalari - literaturgile - itzultzaile* zirkuitu hiru-koitz hau estutzeari eta indartzeari, bakoitzaren egitekoaren eta euskararen onetan.

Gainera, munduan zehar, azken urteotako linguistikaren ereginez eta itzulpenari buruz egin diren teorizazio eta sistematizazioei esker, esperientzia eta ezagupen multzo aberats bat metatu da eta euskaratzaileon eginkizunerako argibide ugari eskaini liezaguke informazio bat izateak, gero eta zentzu kritiko handiagoz gure lanak burutzeko.

Azkenik, euskal telebista baten atarian gaudelarik, erdi epe batetara Euskal Herrian eragin sakona —erabakitzailea esango nuke— izango duen komunikabide honetan ere itzulpenak garrantzi handia izango du. Beste alorretan bezalaxe, honetan ere koordinazio orokor bat lortzea behar-beharrezkoa da euskararen finkapen prozesua desbidera ez dadin eta indarrak bateraturik joka dezagun.

Ondorio gisa, zera esan genezake, pixkanaka euskal itzultzaileen artean kontzientzia profesionala, zentzu kritiko bateratua, eta bere eginkizunarekiko ikuspegi solidario bat sortertzatza garrantzi handikoa izan daitekeela aurkitzen gareneko euskararen ibilpidean eta momentuan.

Lan Ihardunaldiaren helburua

Aurre gogoeta hauek kontutan harturik, agian Udako Euskal Unibertsitate aldian zehar, antola ditezkeen lan bilera batzuren helburu nagusia *euskal itzultzaileen arteko talde kontzientzia profesional* bat lortzen hastea izan daiteke, lotura eta harreman iraunkor batzu ezarriz, UZEI eta Itzultzaile Eskolaren inguruan koordinatuz, informazio bideren bat sortuz, eta agian, elkarte moetairen bat sortuz.

Guzti honi buruz, eritziak eskatuz inkesta bat zabaldu delarik, epe labur baten buruan itzultzaile gehiengo baten ikuspuntua ezagutzeko moduan izango gara eta bilera hauei eman beharko litzaiekeen norabidea argiago ikusiko dugu.

Behin-behineko programa baten edukinak (iradokizun gisa)

Itzultzaileen artean talde berezi edo kualifikatu bat dagoelarik, administrazio mailako itzultzaileena, eta beronek bere helburu jakinen arabera antola lezakeen programakuntzari kalterik egin gabe, orokorki ihardunaldi honetan bi eratako gaiak uki litezke:

- a) Itzultzailearen antolaketa profesionalari dagozkionak.
- b) Itzulpenaren alderdi linguistikoari dagozkionak.

Itzultzailearen antolaketa profesionala

Biltzen ari garen eritzien arabera, eta *a priori* ikusten diren zenbait arazo kontutuan izanik, puntu minimo batzu proposatzea komenigarri izan daitekeela aitortzen genezake.

- Euskal Itzultzaileen Elkarte edo Antolaketa gisako zerbait beharrezkoa edo interesgarri izan liteke.
- Itzultzaile profesioaren edo eginkizunaren garantizapenerako.
- Tarifak berdintzeko.
- Gero eta handiagoa den demanda bat kanalizatzeko.
- Gero eta itzultzaile profesional gehiago sor dadin, eta arlo desberdinetan espezializa dadin.
- Nonbait informazioa zentraliza dadin, era guztietako informazioa eta iniziatibak bizkortasunez zabaltzeko.
- Prestakuntza eta “*recyclage*” erako ikastaldiak antolatzeko.
- Itzultzaile Eskolak (oinarrizkoak - espezializaziozkoak) esperientzidun ingurune bat izan deza, irakasleak biltzeko eta beste zenbait lanetarako.
- Buletin edo argitalpenen bat aldizka argitara dadin.
- Karnet, agiri edo antzeko zerbaiten premia eztabaidatzeko.

(Kontutuan har bedi itzultzaileen elkarte nazional ugari dagoela munduan zehar eta Nazioarteko Federakunde bat ere bai).

Itzulpenaren alderdi linguistikoak

Ikus daitekeenez gai eta arazo asko legoke aipaturiko Ihardunaldi batetan ukitzeko, aztertzeko eta ondorio praktikotara eramateko. Hemen orientabide gisa eskaintzen direnez aparte, beste puntu osagarri eta desberdin gehiago ere agian proposa liteke. Ihardunaldi horretarako premien hierarkia bat egin beharko da eta aktiboki partaide izateko prest dauden pertsonen artean antolaketa eta txastengintza lanak dagoeneko banatzen hasi beharko genuke nork zertarako hitza ematen duen ikusiz gero soilik muga baikenezale lan bilera horien nondik norakoa eta nortasuna finka.

Bi atal nagusietan aipatzen diren gaiak asko direlarik, agian hiruzpalau txosten nagusitan bildu beharko lirateke funtsezko eztabaida-gaiak, ondoren partaide edo entzuleek beren eritziak ager ditzaten erabakiak hartzera zuzendurik dauden puntuetan.

Udako Euskal Unibertsitatea eta Itzultzaileen Lan Ihardunaldia

Martxoaren leian, UZEI-k Udal Itzultzaileentzat antolatu zuen bileran aurkeztu zen gaian proposaturiko asmoa eta, orohar, ontzat eman zelarik hurrengo beste bilera bat antolatzea erabaki zen gai hau aztergai bakartzat harturik.

Hain zuzen, hil honen 28an ospatuko da UZEI-ren galetan aipaturiko bilera honako programaketa orokorraren arabera Ihardunaldia prestatzeko eta txostengileak hautatzeko, UEU-n Ihardunaldiak ospa daitezen.

1. **Itzulpenaren munduari buruzko informazioa:** Historia, bibliografia, linguistika eta itzulpena, itzulpen teknika eta literarioa, euskal itzulpena, euskal linguistika eta itzulpena, itzulpenaren alderdi soziolinguistikoak.
2. **Euskal Itzultzaileen Antolaketa Profesionala:** Erakundea, aldizkaria, ikastaldiak.
3. **Ihardun praktikoak:** Textu itzulien konparaketa eta kritika, erizpide bate-ratzaileak.

ITZULTZAILE ESKOLAREN ZUINAK

ITZULTZAILE ESKOLA BATEN PREMIAZ

Aurreko sailetan, laburki eta gaingiroki bederen, ukituak ditugu itzulpenaren inguruan aurki daitezkeen zenbait zailtasun eta eztabaida; baita gure historian zehar itzulpenak zenbaterainoko garrantzia izan duen, eta egungo egunean zer eratako egoeraren aurrez-aurre aurkitzen garen ere. Hainbeste eragozpen, zailtasun eta baldintza dituen zeregin honetan ihardun behar duen pertsonari esperientzia bildua eta prestakuntza sistematizatua eskuratzeak zer mesede ekarriko liokeen berari ez ezik hizkuntzaren hazkundera eta normalizapenari erraz uler daitekeena da.

Bestalde munduan zehar hedaturik dauden hainbat eta hainbat Itzultzaile eta Interprete Eskola dira premia hori nabarmen agertu eta soluziobidean jarri delako lekukorik onenak. Gure kasuan, bestalde, premia hau askozaz bizikiago somatzen da hizkuntza guztiz garatu eta finkatuaren artean itzulpenak egin behar dituzten itzultzaileen artean baino ere, zeren eta inguruko hizkuntza nagusiek jadanik lortua duten *“average standard European”* prosa horren gabeziarengatik, hainbat alorretan sortzeke eta finkatzeke dugun lexikoarengatik, eta iragan hurbileko aurreritzi eta ereduaren zama astunarengatik, erizpide desberdin, kontraesankor eta zatikatzailetan gal baitaiteke itzultzailea, energia piloak alferrik erre ondoren.

Gure arazoa, Itzultzaile Eskola baten premiaz argudioak aurkitzea baino areago da Itzultzaile Eskola horren nolakotasuna mugatzea, prestakuntza eta edukien maila zehaztea eta finkatzea, eta gaurko egoeran eginkor eta fruitukorrenak izan daitezkeen ildoak urratzea. Eremu zabalegi baten aurrez-aurre gaudelarik, ez da hain erraza gertatzen mundu zehar dagoen esperientzi guzti hori gure egoerara egokitzen, bi tentazio moetatzen erori gabe.

Alde batetik, gaizki ulerturiko efikazia edo eginkortasun berehalakoaren ize-nean, presakako prestakuntza lardoskatu, asistematiko eta teorizapen eskasekoa emateaz nahikotzearen tentazioa dago: edozer egiten dugularik ere orain artekoaren aldean beste ahalbide eta ikuspegi batzu izango dituela itzultzaileak pentsatuz.

Bestetik, ordea, teorizapen abstraktoegitan, bitxekeria formaletan, eta zehazke-ria estilistikotan galtzearen arriskua dago: prestakuntzaren helburua ez dela “errezetaxoak” eta “teknikatxoak” ematea, baizik eta itzultzailearen mentalizapen bat sakon eta teoriatzko hornizio on bat eskuratzea dela uste izanez.

Eta azkenik, besterik ere bada, Itzultzaile Eskola batetatik pasa izanak arazo guztiak lautuko dizkiola itzultzaileari, eta "panazea" gisako prestakuntza bat bertan lor daitekeelako uste ustelari heltzea. Honelako eskola baten ondorioak ezin daitezke espektakularrak izan; oso luzera eta faktore asko korapilotu eta sinkronizatuko diren heinean soilik ikusiko da eragina eta efikazia. Seguraski, lortutakoaren distirak baino, garrantzi handiagoa izan lezake nahasmenduari eta zatikamenduari ateak itxeak, eta itzultzailearen baitan indar ekonomizapen bat segurtatzeak.

Itzultzaile Eskola baten premiaz ari garelarik, ez dut uste gogoeta guztiok lekuz kanpokoak direnik, aurretiaz baitakit begi kritiko ugariegi zorrozituko direla Eskola-rantz, eta Orixek noizbait zioen bezala, "Aldeaurretik ba-dakit, guzien gustorik ez dutala egingo. Ez neronenik ere, jakina. Ontatik asi naiz; nere eta iñoren atsegiña baño geienen etekiña edo protxua lenago baita" (Urte guziko meza-bezperak, Bi Itz, VII.or.).

Euskal Itzultzaileei zuzenduriko Inkestetan ikusi ahal izan dugunez, euskara-tzaileak guztiz kontzientzia argia du bere egitekoaren zailtasunari buruz eta aho batez aitortzen du berak prozesu luze eta neketsu baten ondorioz lortu duena, bide errazago eta laburragoz eskuratzea posible izan daitekeela Eskola batetako irakas-kuntza sistematikoari esker.

Gurean Itzultzaile Eskola baten premia bi arrazoi moztaren gainean errotzen dela esan genezake.

a) Egunero eta urtero bere burua egiten eta finkatzen ari den hizkuntzaren ezagupidea lortzearen gainean.

b) Munduan zehar itzulpenaren inguruan bildu den teoria eta esperientzia modu arautu batez eskuratzearen gainean.

Eta azkenik, gerora aski garrantzizkoa gerta daitekeen arrazoirik ere bada: kontzientzia profesional baten katalizatzaile izateaz gainera, pixkanaka itzultzaileen erakundetze eta antolatzeari eragitea, beste herrialdeetan eman diren urratsen bidetik.

ITZULTZAILE ESKOLAREN ANTOLAKETA FASEAK

Europar eta Amerikan zehar bildutako datuen arabera, Itzulpen Eskolaren arazoa batez ere *interpretari* eginkizunetarako jendea prestatzearen premiak bultzaturik planteatu dela gehienbat ikus daiteke. "*Conference interpreter*" eta "*sworn interpreter*" deitzen beharizana nabarmenki igarri da azken hamarkadetan nazioarteko eta mundu mailako batzarreak, symposiumak, kongresoak etab. ugaltu direlarik, eta nazioarteko hauzi eta erlazio-juridiko-ekonomikoak gero eta estuagoak bilakatzen ari diren heinean, eta zehaztasun handiko hizkuntza eskatzen duten neurrian.

Gure egoera, berriz, gizarte elebidun desorekatuan eta euskararen erabilpena diglosikoa den una historiko batetan kokatzen da. Interpretari trebatuen eskabidea gure artean oraindik aski eskasa da, baina zenbait kasutan ikusi da berauen premia eta erabili ere erabili da interpreterik zenbait ikastalditxo eta kultur ihardunetan.

Hala ere, interpretariaren prestakuntzak hizkuntza biren arteko desoreka nabi-riarekin topo egiten du gurean. Beraz, badirudi zientzi sail eta alor desberdinetako hizkuntza aurretiaz finkatzea beharrezkoa dela interpretearen mintzabidezko presta-

kuntza maila duinki lortu eta ohizkoa den itzulpen maila perifrastikoa eta erredukzionistaren gurpil zorua hautsi nahi bada. Beraz, maila honetako prestakuntza zehatza lortzeko hizkuntza espezializatuaren guttienezko finkapena eta idatzizko itzulpen trebakuntzaren fasea aldeztu aurretik erre beharra argi ikusten da.

Hau da U.Z.E.I.-k “*Euskara Administrazio publikoan*” (proiektua eta aurrekontua) idatzian aurrez ikasten duena honako hau diotenean:

“...Euskaltzaindia Itzultzaile-Eskola bat martxan jartzekotan dela aipatu behar da. Eskola honek emango litzuke *itzulpen arruntetarako ikastaroak*; eta horien ondoren —eta ez lehenago— egin beharko lirateke, UZEIn nahiz egokia den tokitan, Administrazio-itzulpenetarako ikastaro berezituak. Hau da, ikastaro berezituak ezin liteke etor, alde aurretik Itzultzaile-Eskola hortatik pasa gabe” (63.or.).

Beraz, hasteko lehen helburu gisa, Itzultzaile Eskolaren ihardun eremua *itzulpen arruntetarako*, hots, itzulpen espezializatuak auresuposatuko lukeen kultura orokor mailako itzultzaile prestakuntza batetara mugatu beharko litzateke. Arazo praktikoa honetan dago: maila arrunt horren eta espezializatuaren arteko mugak lausoak direlarik, prestakuntzaren edukiak zehazten eta lehen aldi batetan maila honetako interprete prestakuntza bat ere diseinatzea beharrezkoa den ala ez erabakitzen.

Gure itzultzaile prestakuntza modulu hauen arabera aurkeztu daiteke:

Oinarrizko Itzultzaile Prestakuntza (urte bete)

Espezializaziozko Itzultzaile Prestakuntza
A - Itzultzaile tekniko
B - Itzultzaile literario

} Bi urte eta erdi

Interpretari prestakuntza
(sei hilabete)

Euskaratzailearen oinarrizko prestakuntzaz zenbait gogoeta

Itzulpena definizioz bi hizkuntzaren arteko eragiketa denez gero, hau da, *sorburu hizkuntzaz* (source language) adieraziaren dekodapena eta *xede hizkuntzaz* (target language) adierazi horren enkodapena, bi hizkuntza hauen eta berauek duten kulturazko testuinguruaren ezagupen ahalik eta sakonena beharrezkoak dira itzultzailearentzat.

Gure kasuan, SHak gaztelania eta frantsesa izango dira gehienbat eta euskara XHa. Alderantzizko kasuak, ugalduz joango diren arren, oraindik ez dira sarriegi gertatuko.

Lehendabizi, eragiketa honetan partaide diren bi hizkuntzei bagagozkie, bien arteko desoreka nabarmentzen zaigu. SHak ongi garatuak eta munduko hizkuntza

landuenekin homologagarriak diren bitartean, euskara bere burua finkatzen eta bes-teen mailan jartzeko prozesu aski luze baten premia duen hizkuntza da; beraz, ez da menbaldeko kultur premia mailan aski egina dagoen hizkuntza, azken aldi honetan urrats handirik eman bada ere.

Bestalde gure itzultzailegai gehienen hezkuntza (ikastoletatik pixkanaka datoze-nean salbu) erdarazkoa izan da, eta teoriak itzulpen eragiketako bi hizkuntzek trata-mendu berdintsu behar badute ere, gure kasuan euskararen ezagupenak eta euskaraz burutuko den enkodapen prozesuak planteatzen dizkigute arazo larrienak.

Itzultzailegai hauen haserako prestakuntza maila, euskarari dagokionez, oro har eta onenean, euskararen ezagupen diplomak segurtatzen duen mailakoa dateke, eta B mailakoa zenbait kasutan. Euskararen ezagupen hau errebortxatzea izango da oina-rrizko baldintza: morfosintaxia eta lexikoaren mailan. Honetarako, azalpen teoriko, eta ariketa sistematikoez gainera Euskal Literaturaren zuzeneko ezagupen sakona segurtatu beharko da, gero itzulpen lanetarako ere behar-beharrezkoa izango den Estilistikazko ezagupen garrantzizko batekin.

Prestakuntzaren beste zutabe sendoa itzulpen teoriaren eta euskal itzulpenaren historiaren inguruan ardazturiko ezagupenak osatuko dute. XHaren ezagupen teoriko-praktiko sakonaz gainera, beharrezkoa du itzultzaileak gaurregun itzulpen teoriak sistematizatu duen ezagupen multzo trinko batez jabeturik egotea. Esan beha-rrik ez dago, morfosintaxiaren ikasketan ezezik itzulpen teoriaren sarreran ere, teoria linguistiko orokorrari buruzko ezagupen funtsezkoenak ere hartu beharko lituzkeela ikasleak.

Agian, Itzultzaile Eskolaren planteaketaz zehatzago aritzean hobeki ikusiko denez, oinarritzko kultur hizkuntza batez itzultzailegaia jabearaztea ere arras kome-nigarri gerta daiteke, prestatu beharreko itzultzaile hauek guztiok beren ikasketak gaztelaniaz soilik burutu dituztela kontutan hartzen badugu. O.H.O. mailan lantzen diren natur eta gizarte zientziatzko eta matematikazko hasi-masiak euskaraz ezagutu beharko lituzkete, azken aldiotan irakaskuntzarako argitaratu diren testu liburuak irakurritz eta aztertuz.

EUSKAL ITZULTZAILEEN OINARRIZKO PRESTAKUNTZARAKO ESKOLA (EIOPE)

Helburu Nagusia

Euskara eta gaztelaniazko hizkuntz ezagupenak eta literatur historiak eta auto-reen obrak sakonduz, testu faktual eta literarioak idatziz eta bi zentzutan itzultzeko gaitasun orokorra eskuratuko zaie ikasleei, eduki teorikoen eta ariketa praktikoen bitartez.

Hasiera batetan EIOPE-ren mugatasun praktikoengatik, erdal hizkuntza baka-rra (gaztelania), erabiliko da ikasgai bezala, baina gerora hurbileneko beste erdarak pixkanaka programataratuko ditu, irakasleagoaren gaitasunaren eta ikasleagoaren eskabide eta ezagupidearen arabera.

Ihardun eta gaitasun mailari dagokionez, aipaturiko testu faktualak kultura orokorraren dibulgazio mailakoak eta kazetaritza ezespezializatukoak izango dira. Testu literarioak, berriz, prosazkoak eta narratiba generokoak gehienbat, erdi-mailako zailtasun estilistikoa dutenak izango dira.

Helburu bereziak

Aipaturiko helburu nagusia lortzea, beste azpi helburu hauen lorpenari hertsiki loturik gertatuko da:

- Euskararen baliakizun bereziez jabearaziko da ikaslea.
- Euskararen gaurkomugatasunen kontzientzia zehatza harreraziko zaio.
- Itzulpena burutzerakoan sortzen diren zailtasun morfosintaktiko, lexikal, kultural eta estilistiko arruntenez jabearaziko da ikaslea, eta berauek gainditzeko teknikez.
- Euskal itzulpenaren historia kritikoki aztertzea eta baliotzera bultzatuko da ikaslea.
- Azken urteotako euskal itzulpen dinamiko eta aurrerakoenaren ezagupidea eskainiko zaio, Euskaltzaindiaren aldia aldiko erabakiak onartuz, zentzu kritiko eta solidario batez bere lana burutu dezan.

Honako gai zerrenda honetan proposatzen diren edukiak izan daitezke Itzul-tzailearen Oinarrizko Prestakuntza batetan landu beharrekoak:

1. Euskal Morfosintaxia eta Lexikologia
2. Euskal Literaturaren Historia
3. Teoria linguistiko Orokorra
4. Itzulpenaren teoria eta testu mailakatuen itzulpen ariketa
5. Euskal itzulpenaren historia kritikoa
6. Gaztelaniazko gramatika, lexikologia eta Literatur historia.

Euskal Morfosintaxia eta Lexikologia

Sarrerako gogoetan aditzera eman denaren ildotik, itultzailegaiak Eskolara sartzean dakarren euskararen ezagupena sakontzea, finkatzea eta aberastea luke helburutzat gai honek. Euskarari buruzko gogoeta teorikoa ezezik, ariketa ugari eragin-goo litzaiokie deklinabidearen, aditzaren, hitzen elkarketa eta erakarketaren baliakizunak jabetasun osoz erabil ditzan.

Bestalde, lexikologiak tratamendu berezi bat hartuko luke gure historian zehar burutu diren lau lexikografikoak ongi ezagut ditzan, eta aldian aldiko erizpideak kontrastatu eta baloratzen jakin dezan. Hau guztian azken urteotan Semantika eta Lexikologia alorrean orokorki lortu denaren argitan ikusi eta aztertu beharko litzateke.

Sintaxiaren alorrean, berriz, euskal literaturan zehar izan ditugun joera desberdinak (klasikoen, iparraldekoen, hegoaldekoen) kritikoki aztertzea, eta azken aldi honetan gure hizkuntzalariak ematen ari diren urratsak ezaguteraztea eta gaurregu-neko prosan bereziki nabari den joera integratzaileaz jabearaztea izango litzateke helburua.

Eskolak sentiberatasun berezia behar du Euskaltzaindiak euskara bateratzearen bidetik eman eta emango dituen pauso guztiekiko, gure itzultzaileen sormena ito gabe, euskararen finkapen prozesuan abenturismo anarkikoak eta alferrikako barreaketak nagusi ez daitezen.

Itzultzaileak behar-beharrezkoa du euskararen berezko baliabideez ongi jabeturik egotea, itzulpenak suposatzen duen hizkuntza biren arteko gataskan, sorburu-hizkuntzaren molde eta jitearen azpian menderaturik gera ez dadin, eta hizkuntza hartzailea zabarkeriaz gehiegi bortxa eta desitxura ez dezan.

Euskal Literaturaren Historia

Itzultzaileak beharrezkoa du Euskal Literaturaren Historian zehar eman diren eredu bizien zuzeneko ezagupena. Beraz, Literatur Historia hau ez da mugatuko soilik aro, eskola eta autore desberdinen informazio soil ematera, baizik eta euskara batuz eta euskalki literarioz sortu diren obra garrantzitsu eta adierazgarri guztiak zehazki aztertu eta sakonduko dira prestakuntzan zehar.

Honetarako Estilistika eta Dialektologiaren laguntzaz baliatuko da ikaslea. Aurreko gaiarekikoan esan bezala, gure literaturaren ezagutze sakonak, oinarri trinkoak eman behar dizkio itzultzaileari gaztelaniarekiko gataskan hizkuntz altxor ahul eta desorekatuegi batekin sar ez dadin.

Teoria linguistiko Orokorra

Beste zenbait lekutan esan denaren arabera, eta itzulpen teoriari arduratu direnen ildotik (*any theory of translation must draw upon a theory of language - a general linguistic theory (Catford)*) azken aldi honetako linguistikak erabat aldatu du hizkuntzari buruzko ikuspegia, itzultzailearen egitekoaren posibilitatea bera ere zalantzan jartzearaino. Mounin, Buzzetti eta beste zenbaiten bidetik, itzultzailearen behinola "ingenuitatea" inarrosi egin du linguistikak, baina bestaldetik itzultzea, erlatiboki itzultzea posible dela uste dugu. Tirandurazko dialektika honetaz itzultzailea jabe dadin, beharrezko zaio azken ekarri linguistikoak ezagutzea.

F. de Saussuregandik datorren lengoaiari buruzko ikuspegi berria, Bloomfielden erizpide "behaviorista", Hjelmslev-en linguistika distribuzional eta deskriptiboa, Whorf eta Sapirengan gorputzu diren teoria neo-humboldtarrak, James Barrek hizkuntza biblikoen inguruan azaldutako eritziak, eta esperantzagarriagoak diren Maurice Leroy eta Stephen Ullmann, hizkuntzazko "unibertsalen" atzetik dabilzanenak, Chomsky eta abar bezalakoena; Bibliaren itzulpen munduan esperientzia apartekoa bildu duen E. Nidaren ikuspuntuak etab., oinarritzkoak dira itzultzaile baten prestakuntzan.

Lexikoa eta itzulpenari dagokionean, unitate semantiko minimoen mailan, Martinet, Prieto eta Gardinek burututako ikasketak, konnotapen-denotapen kontzeptuak, "Weltanschauung" eta itzulpena, etnografia eta itzulpena, filologia eta itzulpena, sintaxia eta itzulpena bezalako gai orokor hauetan linguistikoki burutu diren aurkikundeak ezin ditzake alde batetara utz itzultzaileak. Linguistak ez dira, beraz, itzultzailearen adar-jotzaile batzu, baizik eta, agian, ume ikuspegi batetatik ikuspuntu helduago batetara pausoak ematen lagunduko diotenak baizik.

Itzulpen teoria eta textuen itzulketa

Lehenagoari hurbiletik loturiko gai hau asko berria delarik ere, Catford, Feodorov, Mounin, Vinay-Darbelnet, Störig, Nida eta abarren lanetan oinarri daitekeena da eta itzultzaileari ezagupen eta teknika sistematizatuzko gorputz, ahalik eta zehatz eta lotuena, eskaintzea litzateke beronen helburua.

Itzulpen definizioa, moeta orokorrak, itzulpen baliokidetza, korrespondentzia dinamikoa eta formala, adierazia eta itzulpen osoa, transferentzia, itzulpen baliokidetza baldintzak, itzulpen fonologiko eta grafologikoa, transliterazioa, gramatikazko eta lexikozko itzulpena, itzulpenezko desplazamenduak, itzulpena eta lengoia moeta desberdinak, itzulgarritasunaren mugak eta abar bezalako interesguneen inguruan ardaztu daiteke ikasgai hau. Itzultzaileari burutzen duen lanari buruzko ikuspegi erreflexu eta jakinaren gainekoa eskuratzea luke helburutzat.

Bistan dago, hau guztian parez-parezko textu mailakatu batzuen itzulpen ariketa gidatu batez hornitu eta finkatu behar dela, lengoia denotatiboa eta konnotatiboa-aren artean nabarmentzen diren desberdintasunak azpimarkatuz eta bakoitzaren berezitasunak nolabait agerian jarri.

Euskal itzulpenaren historia kritikoa

Aurreproiektu honetan jadanik ezagutzera eman den euskal itzulpen zerrendaren arabera, joera desberdinetako textu itzuli adierazgarrienez antologia ahalik eta zabalena burutuko litzateke jatorrizko hizkuntzazko (edo hurbileneko erdarazko) textua eta itzulpen parez-pare jarri. Itzultzaile bakoitzak egin duen itzulpena kritikoki aztertzea, erabili dituen teknikez jabetzea, beste itzulpen ahalbide batzuei aurkitzen ahalegintzea etab. izango litzateke helburu praktikoa. Honetarako, beti itzulpen bakoitza bere testuinguru historiko-linguistikoko kokatuko da, gure itzulpenaren diakronia baten argitan gaurreguneko itzulpenaren unea bere baldintza, muga eta ahalbide guztiekin ager dadin.

Gaztelaniazko Hizkuntza eta Literatur Historia

Lehenago esan dugunez, itzulpena definizioz bi hizkuntzaren arteko eragiketa denez gero, herren geratuko litzateke itzulpenaren prestakuntza gehienbat erabiliko den **sorburu hizkuntza** (SH), gure kasuan eta oraingoz behintzat gaztelania, modu sistematiko batez eta ahalik eta ñabardura gehienekin ezagutuko ez balitz.

Teoria eta praktikaren arteko oreka bat lortu beharko da honetan ere eta Euskal morfosintaxia eta lexikologian bezala, linguistika kontrastibo baten bidetik, hizkuntza bien arteko konparaketa bat ahalik eta zehazkien egiten ahalegindu beharko luke irakasleak, interferentzi iturri izan daitezkeen elementu morfosintaktiko eta lexikalen nortasun desberdina kontrajarri eta azpimarkatuz.

Halaber, euskararen baitan baino askozaz ñabarragoak diren hizkuntz erregistro desberdinen azterketa eta zehazpena ere ardura handiz burutu beharko luke, hiz-

kuntza modernoak beharrezkoa duen adierazmen guztia gure hizkuntzan ere pixkaka lor dadin.

Literatur Historiari dagokionean, nola euskarazkoari hala gaztelaniazkori, eredu klasiko, agian zaharkituak, aztertzeari adinako edo gehiagoko balioa eman behar zaio, gure ustez, azken urteotakoak aztertzeari eta bereziki kazetaritzaren munduan egunero sortzen ari den hizkuntzari, nahiz eta beronen zati handi bat aski suntsikorra izan.

IRAKASLEGOAREN BEREZITASUNAK

Aurreko sailean proposatu den ikasgaien zerrenda kontutan hartuz gero, berehala ikusten da egiturapen maila desberdinetako edukiak eskaintzen direla Itzultzailearen Oinarrizko Prestakuntzan. Hirugarren eta seigarren gaiak, hots, *Teoria Linguistiko Orokorra* eta *Gaztelaniazko gramatika, lexikologia eta Literatur historia* dirateke orain arteko unibertsital ikasketen arabera gairik arautuenak edo standarizatuak.

Lehen gaiak soilik izango luke zailtasun pixkaren bat, Teoria Linguistiko Orokorrean ohizkoa den terminologia euskaraz emateak suposa lezakeen heinean.

Bigarrenak, gisa denez, gaztelaniaz emango litzatekeelarik, espezialitate honetako filologi ikasketak burutu dituenarentzat ez luke neke handiegirik. Hala ere, gramatika eta lexikologiari dagokionean, itzultzailegaiaren prestakuntzaz ari garelarik, linguistika kontrastiboaren ildotik zuzendu beharko litzateke gaiaren aurkezpena, beraz euskara eta gaztelaniaren arteko konparaketa bat eginez. Honela bada, euskararen ezagupen sakon samarra beharko luke irakasle honek ere, gaztelaniaren azpisistemak beren baitatik azaltzera soilik mugatu nahi ez badu bere eginkizuna.

— Lehen eta bigarren gaiak, hots, *Euskal Morfosintaxia, lexikologia eta Euskal literaturaren Historia*, euskal filologiazko ikasketetan zehar nolabait egituratuz badoaz ere, maila desberdinetako finkapen-gabezia aurkitzen dira, sintaxia eta lexikologia bereziki. Arrasateko Ihardunaldietan eman diren lehen urratsak gora behera, ausia oraindik oso urrun dago erabakitzetik. Duela hamar urte eta gehiago K. Mitxelenak zioenaren arabera, “herri gaietan izan ezik, ez dugu kultura berezirik... Ezin izan dezakegu azkatzazunik hizkuntzaren aldetik... Latinaren, eta erabat sortaldeko hizkuntzen kutsua geure bekokian daramagu. Aitor dezagun, onar dezagun, eta goazen aurrera bide horretarik”.

Euskal itzultzailearentzat neurri batetan lasaigarri eta eskergarri dira hizkuntzariaren hitz hauek, bai eta B. L. Whorf-ek “standard average European” deiturikoa- ren ildotik jo beharko lukeela gure prosak nolabait iradokitzea ere, “hitz ordenaz eta aurkitu diren legeak ez direla idazlea estekatzeko gateak, honen kemenak gehi ditza- keten lanabesak baizik”, gogoraziz. Puntu honetan, beste zenbaitetan bezala, arau- emaileek eta betetzailleek elkarrekiko akordio bat lortzea erraza ez badute ere, gutxi- nez elkarri begiratzu eta gehiegi ez urruntzea helburu dela jokatu beharko da.

Gai honetan arituko den irakasleari, euskal prosak historian zehar urratu duen ildo ongi ezagutzea, arautzaileegia ez izatea, eta itzultzaileak bere eginkizunean aur- kitzen dituen zailtasunez jabeturik egotea eskatu beharko litzaioke, beste era batetara konpon ezin daitekeena “sen hoberenaz” osa dezan, “euskal usain eta kutsuaz” baino prosaren neutrotasunaz areago arduratuz.

Lexikologiari dagokionean, orientabide gisa, “*Euskal Hiztegi Arauemailea*”, burutzean I. Sarasolak darabiltzan erizpideetan oinarritu beharko litzateke, Hizkuntza Orokorrari dagokionean, eta UZEI-k bere hiztegegintzan darabiltzanetan hizkuntza teknikoaz denaz bezanbatean.

Euskal Literaturari dagokionean, berriz, ohizko eskuliburuetan eskaintzen den informazioaz gainera, autore adierazgarri guztien obrak zuzenik ezagutzea eta balorapen estilistiko bat egiten eta eragiten jakitea nahitaezko baldintza luke irakasleak, azken aldi honetan gure artean nabarmentzen ari den literatur kritika estrukturalistaren bidetik, baina formalismo ontzuegi batetan erori gabe. Esan beharrik ez dago, guzti honetarako mendealdeko literaturaren ezagupen on bat beharrezkoa duela irakasleak, gure betiko “ghetto” giroan ez itotzeko.

Ezin ahantzizkoa dugu, gure artean aski eskasa dena eta etorkizunean ugaltu beharko dugun itzulpen literarioak, zailtasun bereziak ezezik ia gainditu ezinezko eragozpenak dituela, lehenago aipaturiko “*niveaux de langage*” direlakoengatik eta alor honetan estilistika benetan sakontzea eta sentiberatasun berri bat lortzea nahitaezkoa dugula. Arazo hau ez da epe laburrean ebatz daitekeena, eta literaturgintzan serioski ari diren idazleen eskutik soilik lor dezakegu hizkuntza konnotatiboak dituen nabardura guztiak isladatzeko heldutasuna. Gure tradiziozko eta gaurko baliabideak ezagutzen eta neurtzen, iraganbideko plangintza bat egiten eta nahikundeetan ez erortzen ikasi beharko dugu oraingoz, irakurlearen hizkuntz ezagupen maila hobetuz, eta komunikabideen bitartez kultur espazio berriak eskuratuz goazen bitartean. Kezka funtzionalégitan murgildurik gabiltza, estilistika mailari aurrera egiteko, zoritxarrez.

— Laugarren eta boskarren gaiak, *itzulpenaren teoria*, *oinarrizko testu literario eta faktualen itzulpen mailakatuak*, eta *Euskal itzulpenaren historia kritikoa* dira zailtasun handienekoak, irudimen eta sistematizazio lan handiena eskatzen baitute.

Itzulpenaren teoriari dagokionean, ingelesa, frantsesa, eta agian alemana eta errusiera ezagutzea beharrezkotzat jo behar dira, hizkuntza hauetan aurkitzen baita itzulpen teoriari buruzko bibliografia.

Prestakuntza linguistiko egoki samar bat izanik, aipaturiko hizkuntzetan aurkitzen den sistematizazio hori euskaratu eta euskarazko eta gaztelaniazko adibidez edo ereduz hornitu beharko litzateke, gure helburuen arabera.

Itzulpen mailakatuak, berriz aurreko teoriari loturik, bai hizkuntza faktualaren eta bai literarioaren mailan, egin beharreko ariketez osatuko lirateke. Gai hau emateko aurreko irakasle bera beharko litzateke, agian, eta edozein kasutan itzulpen lanetan esperientzia luzea duena. Behar bada, gehiegizkoa gerta liteke pertsona bakarrentzat aipaturiko bi moztatuko itzulpenen ardura hartzea eta euskal literaturaz eta estilistikaz arduratzen denak berak har lezake testu literarioak itzultzearen gidaritza, edota.

Euskal Itzulpenaren Historia Kritikoa eman behar duenak berak. Ariketa mailakatu hauetarako xede hizkuntza (target language) gehienbat euskara izango bada ere, hizkuntza bien arteko berdin-desberdintasunez hobeki jabearazteko bi zentzutan ere egingo direlarik, Gaztelaniazko gramatika, lexikologia eta Literatur Historiaren irakasleak izan beharko luke xede hizkuntzatzat erdara harturik egingo diren itzulpen saioen gidari eta kontrolatzaile.

Gai honetaz aurreko sailean esan den guztia gogoan izanik, helburu bikoitza luke Euskal Itzulpenaren Historia eman duen irakasleak: alde batetik, jatorrizko tex-

tuak eta itzulpenak bere testuinguruan kokatuz baloratze kritiko bat egiten lagundu beharko lieke ikasleei, eta bestetik berauek egingo dituzten azterketa eta balorapen pertsonalak gidatu eta neurtu beharko lituzke.

Ondorio gisa

Eskaini diren oharren arabera, eta Eskolako irakasleak neurritz kanpo ugaltu nahi ez baldin badira, ekonomi aitzinkontuak nabarmenki astunduz, teoriatzko agerpenak egingo dituzten irakasle gehienek gai izan beharko lukete itzulpen praxian neurri batetan nahiz bestetan esku hartzeko. Bestalde, esperientzia eta ikuspuntu desberdinen arteko kontrastapen hau aberasgarri gerta lekioko ikasleari, koordinazio edo komuntadura eginkor baten barruan burutzen bada.

Bistan da irakaslegoaren lanak, benetan fruitukorra eta eginkorra izan nahi baldin badu, beharrezko duela elkarren artean bilerak ugari egitea erizpideak eta ikuspegiak bateratzeko, eta guztien ekintzari lotura emateko.

Edozein irakaskuntz moetak komenigarria duen hau, are komenigarriago, eta ezinbesteko du Itzultzaile Eskola batetako irakaskuntzak bere nortasun bereziarengatik, eta zenbait gaik duen izakera ez-komentzionalarengatik. Beraz, sakabanakuntza eta barreiakuntza jo behar da irakaslego honen arrisku edo gaitzik kaltegarrientzat, eta sorreratik beretik kontu handiz ahalegindu beharko da akats honi hesiak jartzen.

IKASLEGOAREN BEREZITASUNAK

Euskal Itzultzaileen Oinarrizko Prestakuntzarako Eskolan sartuko liratekeen ikasleen berezitasunak ongi aztertzea eta ondorioz baldintzak zehazki mugatzea garrantzi handikoa dela uste dugu, zeren eta eskolaren eta beronek eskainiko lukeen prestakuntzaren arrakasta auzi hau ongi ebazteari loturik baitago hein handi batetan.

Oro har, zaila da hasera batetan eta orain-oraingoz ikaslegai potentzialen artean dagoen eskabide osoari erantzun ahal izatea, baldintza eta antolaketa desberdinak beharko bailirateke guztien gurariei erantzun ahal izateko.

Ikaslego potentzial garrantzitsu bat udal itzultzaileek osatzen dute, inkesten bidez jaso ditugun eritzien arabera; baina multzo honek dituen berezitasunengatik (goizetan burutzen duten profesionala, barreiakuntza geografikoa, helburu funtzional eta konkretuegia etab.) oso zail ikusten da irakaskuntza formal gisako baten planteaketa eta honelako Eskola batek eskatzen duen orube zabalago bat ezartzearen interesak nola uztar litezkeen. EIOPE ezin liteke sorreratik bertatik hain interes konkretu eta mugatu batzuren baldintzapean abiaraz, gerorako ikuspegi zabalago bati erantzun nahi izanez gero. Oraingoz UZEI-ren koordinazio linguistikoaren bitartez, eman beharko zaio irtenbidea multzo honen prestakuntza arazoari eta gerora Administrazio Kontseilaritzaren edo Kultur Kontseilaritzaren azpian sor litekeen Institutu edo erakundeen baten bidez, agian. Halere, honek ez du esan nahi, EIOPE-k bere ahalbideten arabera noiz behinka ikastaldi bereziren batzu antola ezin ditzakeenik, UZEIrekiko koordinaziopean, eta behin-behineko, erantzun bat ematen hasteko, eta gerora agian arratseko eta asteburutako klaseak ere antola ezin ditzakeenik. Baina hasera

batetan, EIOPE-k ezin lezake bere sorrera multzo honi erantzuteak ezarriko lizkiokeen baldintzen pean muga.

Itzultzaile Eskolek munduan zehar duten *status* hori gogoan izanik, programen trinkotasuna, irakaslegoaren berezitasun eta esperientzi beharrezana, eta ikaslearen prestakuntzaren konplexutasuna, gure artean hizkuntzaren beraren normalizazio gabeziak areagotzen dena gainera, etab. derriorezko deritzagu *irakaskuntza formalaren ereduari* harik eta hurbilen jarraikitzeari, eta ondorioz Eskolan parte hartuko duen ikaslegoaren berezitasunak muga horren barruan egokituko direnak izateari.

Beraz, irakaskuntza formalaz ari garenean, larriki zer ulertzen dugun aditzera emateko zera esango guke: irakaskuntza hau aste osoz (astelehenetik ostiralera) eta goizeko orduetan klaseak emanez burutuko litzatekeela, eta eguneko lan pertsonalerako denboraldi nabarmen bat beharko lukeela ikasleak klaseko ezagupenak beretzeko, aberasteko eta sakontzeko, notak, ariketak eta bibliografia eurrez erabiliz. Eta bestalde, gutxienez ikasturte batetako iraupena izango lukeela bere froga eta guzti eta azkean, agiri edo diplomaren bat lortuko lukeela oinarritzko eta espezializazioko prestakuntzaren bukaeran.

Aipaturiko aurrebaldintza hauen barruan ikasketak burutzeko gogoia aditzera eman lezaten itzultzailegaien multzoa Eskolaren erantzun ahalbideak berak mugatuko du, ezinbestez eta haseran aski kopuru urriari soilik prestakuntza eman ahal izango zaiolako. Baina honezaz aparte, bi parametroren arabera ere mugatu beharko da ikaslegoaren sarrera:

- a) Ikasketa Orokorren mailaren arabera.
- b) Euskararen ezagupen mailaren arabera.

Arazoi nabariengatik, gutxienezko homogenotasun bat lortzea behar-beharrezkoa da ikaslegoaren baitan irakaskuntzaren maila ahalik eta zehazkien mugatzeko eta finkatzeko.

Ikasketa Orokorrei dagokienez, badirudi sarrera baldintza hestuegia izango litzatekeela ikasketa unibertsitario moetaren bat bukatua izatea; bestalde, unibertsitate mailako edozein karrerak ere ez baitu suposatzen hizkuntz alorreko prestakuntza handiegirik. Halere, kultura orokor on bat beharrezkoa delarik. C.O.U. mailako ikasketak eskatu beharko genituzkeela uste dugu eta antzinagoko ikasketak burutu dituztenengan ere antzeko maila. Ikasle kopuru handiegia gerta baledi, froga baten bitartez egin beharko litzateke taldearen mugaketa.

Euskarari dagokionean, berriz, gutxienez orain arteko Euskaltzaindiaren “D” tituluaren jabe izatea eskatuko litzateke, eta “B” dutenek beti ere lehentasuna izango lukete hautaketa egiterakoan, kultur maila berdintsukoak izanez gero. Honetan ere beste froga bat ezarri beharko litzateke aipaturiko tituluak ere bere historian zehar eduki aldaketak izan dituela kontutan hartuz gero.

Beraz, C.O.U. maila edo antzeko Prestakuntza Orokorrak eta Euskarazko “D” mailak mugatuko lukete ikaslearen sarrera eta ondoren burutuko liratekeen aipaturiko bi frogan bitartez hautatuko lirateke ikasturtean zehar Eskolan partaide izango liratekeenak, beronen erantzun ahalbidearen arabera.

ITZULTZAILE ESKOLAREN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO ZENBAIT ZEHAZTAPEN

Sail honetan sartuko ditugu, laburki trataturik, Euskal Itzultzaileentzako Eskolaren funtzionamenduak hurbiletik zehaztu eta, hurrengo proiektu erabat finkatu beharko dituen zenbait alderdi, hala nola: ikasturtearen zertzeladak, erakundetzea, egoitza, ikasturteaz kanpoko ekintzak, hedapen plangintza etab.

a) IKASTURTEAREN ZERTZELADAK

Inkestetan zehar bildu diren eritzien arabera, eta gure gaurko egoeran partaide diren faktore desberdinak kontutan harturik, badirudi Itzultzailearen Oinarrizko Prestakuntzak aski lukeela *urte beteko iraupena izatea*, zeren eta Espezializaziozko bigarren urte batez osatuko bailitzateke ondoren Itzultzailearen prestakuntza hizkuntza teknikoaren, nahiz literarioaren mailan.

Eskolaren esperientziarik eza eta bere bideak pixkanaka urratu beharra, gure itzultzaile eskabidearen definizio lausoa, ahalbide ekonomikoak, geografikoki zerbitzu hauek hedatu beharra, ikastaldi laburrak eratu beharra, eskolaz kanpoko ekintzaren batzu bultzatu beharra etab. bezalako arrazoiek bultzatzen gaituzte honela pentsatzera. Halere, honek ez du esan nahi erdi epe batetara eta zenbait alderdi zehaztu ahal, iraupen handiagoko prestakuntza bilaka ezin daitekeenik oraingoz urte betekoa izango den hau.

— Irailaren lehen hamabostaldian irekiko litzateke matrikula epea eta beronen ondoren, sarrerako froga bat ezarriko litzateke baldintzak betez eskabidea egin dutenen kopurua Eskolaren funtzionamenduak bere baitan har lezakeena baino handiago izango balitz.

— Ikasturtea Unibertsitateak daukan egutegi eta ordutegiari jarraikiko litzaioke, beraz urrian hasi eta ekainera bitartean banatu litzateke irakaskuntza bi froga eginez eta azkenean ebaluapen orokor bat burutuz. Ikasturtea probetxuz gainditu duenari Euskaltzaindiak Eskolaren izenean agiri edo diplomaren bat eskuratuko lioke, honela Espezializazio mailako bigarren ikasturtean sartzeko presturik dagoela adieraziz. Ikaslea bere eskuko litzateke Oinarrizko Maila honetan geratzeko, edota Espezializazio mailako ikasketak burutzeko.

b) ESKOLAREN ERAKUNDETZEA

Euskaltzaindiak Batzorde bat izendatu beharko luke Jagon Saileko Burua Lehendakari dela, Eskolaren Zuzendaria, ikasleren batzu, eta beste zenbait batzordekide partaide direla, Eskolaren funtzionamendua gainbegiratzeko eta beroni buruz hartu behar diren erabaki nagusiak hartzeko, beronen ihardunari hurbiletik jarraikitze, finantziabidezko eta bestelako arazoak konpontzeko. Eskolaren Zuzendariak hiru hilabetero txosten bat aurkeztuko lioke Batzorde honi Eskolaren funtzionamenduari buruzko zehaztasunak emanaz, arautiko egingo liratekeen bileretan. Ustegabe

ko edo ohizkoa ez den arazoren bat gertatzean ere Batzorde honetara joko luke, aldiari aldiko beharrian eta auziak planteatuz.

— Eskolaren barne-funtzionamenduari dagokionez, zuzendariak, irakasleek eta ikasleen ordezkarien artean kontseilu bat eratuko litzateke eta beroni legokioko urtean zehar Arautegi eta Barne-erregelamendu baten aurreproiektua prestatzea, gero Euskaltzaindiko Batzordearen eskutan jartzeko eta onartua izateko, behar diren zuzenketa eta osaketak eginik.

c) ESKOLAREN EGOITZA

Euskal Itzultzaileen Oinarrizko Prestakuntzarako Lehen Eskola hau Donostian eraikiko delarik, eta Euskaltzaindia oraingoz agian honelako zerbitzu batetarako beharrezko den egoitza baten jabe ez denez gero, jadanik ekinen diharduen unibertsital zentru edo antzeko erakunderen batez baliatu beharko litzateke bere Eskola honi azpiegitura egokia eskuratu ahal izateko.

Eskolak bere funtzionamendurako beharrezkoak dituen gelez gainera (Ikasgela, Zuzendaritza, Sekretaritza, Batzar gela edo Irakasle gela) Liburutegi Zerbitzu egoki bat beharko luke, ondoren aipatuko diren gaiet buruz:

- Linguistika Orokorra (zenbait aldirikari barne)
- Euskal Linguistika eta Lexikologia
- Euskal Literatura (historiak, obrak, lan kritikoak)
- Gaztelaniatzko linguistika eta Lexikologia
- Gaztelaniatzko Literatura (historia, obrak, lan kritikoak)
- Mundu literaturako oinarrizko obrak
- Estilistika
- Hizkuntza moderno eta klasikoetako hiztegiak
- Azken urteotako euskal itzulpenak sorturiko obra nabarmenenak (UZEI, Elhuyar, Ikastolako testuak, Liturgi itzulpenak, Entziklopedia etab.)
- Euskal aldirikariak eta egunkariak.

Oharra: Eskola bere aldetik arduratuko litzateke itzulpenari buruzko bibliografia (obrak eta aldirikariak) eskuratzen eta bere hondo berezi bat sortzen aitzin-kontu baten arabera.

d) IKASTURTEAZ KANPOKO EKINTZAK

Eskolaren helburu lehena eta garrantzitsuena goian aipatu den ikasturte arautu horretan zehar banatuko den prestakuntza ematea bada ere, badira zenbait ekintza oso hurbiletik lotzen zaizkionak eta bere ahalbideen arabera burutu beharko litzuzkeenak:

Ikastaldi laburrak

Ikaslegoari buruz hitz egiten, esanaren arabera, bada gaurregun Udal Itzultzaile multzo bat, profesionalki lan horretan ari dena, eta prestakuntza bat lortzeko interes handia erakutsi duena. Aipatu diren arrazoiengatik, ikasturte arautu batetan ezinez-

koa gertatzen da era honetako eskabideari erantzutea, eta urtean zehar, Eguberri eta Bazko oporretan, eta batez ere Udakoetan ikastaldi laburrak prestatzeari ekin beharko dio Eskolak, ikasturtean zehar erabili dituen gaiak laburtuz eta irakasleak erabiliz, UZEIko udal itzultzaileen koordinatzailearekin lankidetzat estuan.

Euskal Itzultzaileen Lan Ihardunaldiak

Dossier-Aurreproiektu honetan bertan iradokitzen denaren ildotik, aurtengo udatik hasi eta Udako Euskal Unibertsitatearekin eta UZEI-ko Udal Itzultzaileen Koordinatzailearekiko lankidetzan, urtero gutxienez gisa honetako Ihardunaldi batzutan antolatzaile eta eragile izan beharko du EIOPE-k euskal itzultzaileen kontzientzia profesionala azkartzeko eta itzulpenaren inguruan egin daitezkeen sakonketa teoriko eta praktikoak bultzatzeko.

Euskal Itzultzaileen Buletina

Euskal Itzultzaileek inkestetan aho batez diotenaren arabera, eta Lan Ihardunaldietan erabaki litekeenaren bidetik, EIOPE-k agian bere gain hartu beharko luke Buletin hau egitea eta beronen bitartez itzultzaileen arteko lotura bat sendotzea egokiak izan litezkeen gaiak, artikulua etab. erabiliz, bibliografiako iruzkinak eginez eta maila guztietako informazioa banatuz.

Itzulpenari buruzko Oinarrizko Textu eta Bibliografiaren argitalpena

Euskaraz ezezik gaztelaniaz ere itzulpenari buruzko bibliografia handirik ez dagoenez gero, klaseetan zehar irakasleek banatuko dituzten notak eta zenbait liburu eta artikuluren itzulpenak moldatuz, funtsezkoa izan daitekeen liburu sorta bat argitaratzen hastea ere EIOPE-k egin beharko litzukeen lanen artean sartzen da. Munduan zehar dagoen esperientzia gure arteratzeaz gainera, gure euskal itzulpena kritikoki aztertzeaz ikertzeaz ere arduratuko litzateke sorta hau, bai eta Lan Ihardunaldietan eman diran ponentziak etab. eskaintzeaz ere.

Ikerketa lanak

Alde batetik, euskara finkatu gabe dagoela ikusirik, eta bestetik maila guztietako itzulpenen bidez, egunero, hitz eta esaunda berriak eurrez sortzen ari direla eta sarritan erizpide desberdin eta anarkikoz, 1976.eko urtarrilaren 2an, "*Euskarazko Neologismo eta Terminologiaren inguruan*" izeneko txostenean Euskaltzaindiari eskaini nizekion iradokizunen bidetik, agian Eskola honek orduan proposamen gisa aurkeztutakoa bere gain hartzea ere garrantzi handiko gerta liteke Itzultzaileen prestakuntzarako ezezik, Euskararen finkapenerako ere.

Hona hemen hitzez-hitz txosten hartako proposamenak:

a) Euskal editorialetxe edo euskal liburu bildumen arduradunekin, euskal txogintzako talde teknikoekin, aldizkari zuzendariekin, e.a. harremanetan jarri eta terminologi bilketa eredu bat proposatu beharko luke.

b) Pertsona egokiren bat hautatu beharko luke Euskaltzaindiak lan honetako eragile izan dadin, eta eginkizun hau burutzeko beharrezkoak diren bitarteko eta laguntasuna bilatzen ahalegindu beharko luke.

Agian, hizkuntzalariz eta zientzi alor desberdinetako jende adituz osoturiko kontseiluren bat beharko luke inguruan, linguistikazko garrantia ez ezik zientziatzkoa ere izan dezan lan horrek.

c) Oraindainoko terminologiaren eta neologismoen biltze sistematiko bat egin ondoren, galbahetu eta forma egokien edo gomendagarrien proposamena egin beharko litzateke.

d) Hitz zerrenda horik textuinguru egokitan eta oharrez horniturik, argitara ematearen ardura hartu beharko luke Euskaltzaindiak bere gain; horretara idazle, textugile, euskaratzaile, irakasle eta editorialetako zuzentzaileen eskuetara hel dai-tezen.

e) Hitz berriak sortzea guztion zeregina —idazleona batipat— bada ere, lehen aipatutako eragileak eta beronen kontseiluak eginkizun garrantzitsu bat dute hone-tan: informazio zehatz eta iraunkor bat eskuratzearena eta bide bat gomendatzea-rena.

e) HEDAPEN PLANGINTZA

Zer eratako eskabidea dagoen ikusirik, eta Donostian honelako Eskola bat kokatzeak Bizkai alde guztia aukerarik gabe uzten duela kontutan harturik, urte betez esperientzia positiboki burutu bezain laster Bilbon beste antzeko Eskola bati hasera ematea egoki izan liteke.

Lehenago esan dugunaren arabera, Eskola honen helburua ez da berehalako premia batzuei behin-behineko eta nolabaiteko erantzuna ematea, baina leku bakar batetan soilik esperientzia metatzera ere ezin daiteke muga. Beraz, ekonomiazko bal-dintzek posiblezta dezaten neurrian, egokia izango litzateke behar bada, probintzia hartan, eta bereziki Bilbo aldean, honelako ekintza bat aurrera eraman lezaketen pertsonekin harremanetan jartzea, eta beste Eskola batetarako heltze eta prestatze prozesu bat irekitzea Donostian emango diren urratsen gain.

Erdi epe batetara bi Eskola hauek funtzionamenduan ari izateak, elkarri langu-tza handia eskuratuko liokete programaketa, ikerketa eta eskolaz kanpoko ekintzen eremuan, bai eta ikastaldiak antolatzerakoan ere.

HILBERRIAK

AGUSTIN ANABITARTE IRAZU

(1891-1981)

1981.eko Ekainaren 4ean hil zen Donostian Agustin Anabitarte Irazu euskal idazle jator eta Euskaltzaindiko urgazlea. Hiri berean sortua zen 1891.eko Azaroaren 20an. Aspaldi idazteari utzia zen, baina garai batean egin zituen lanak gogoangarriak dira.

Argia-ren sortzailekide eta aldizkari horrez gainera *Euskal-Esnalea*, *Euzkadi*, *RIEV*, *Gipuzkoarra* eta *Euskera* aldizkarietan idatzi zuen, inoiz “Anabi” izenordez. Baina, idazle bezala, liburuak izan ziren haren emaitzarik ederrena.

Erdaraz idatzi zuen liburu bakarra *Patrones y capitanes de yate* deritzana da, 1958an argitaratua eta geroztik beste zenbait argitalpen izan dituena. Beste zenbait liburutan utzi zigun ordea beraren sorketazko lana, euskara jatorrez idatzia eta kale-tar girozkoa gainera.

Lehen lehenik *Neska-mutileri dirua aurreratzen erakusteko* liburuxka bat atera zuen Aurrezki Kutxaren eskariz, 1923. urtean. Gero, *Antziñako Olinpiar Jolasak* 1925-ean, urte bete geroago Euskal Esnalea elkartearen “Itzaldiak” sailean berriz argitaratuko zena, berauen eskariz eman zuen hitzaldi bat bai zen Olinpiadak kirol bezala zer ziren agertuz idatzi zuen hura. Baina lan mamitsuagoak horien ondotik etorriko ziren.

Euskaltzaindiak “Schuchardt Saria” eratu zuen literatura bizkortzeko asmoz. Bi urtez egin ziren deiak eta bietan Agustin Anabitarte izan zen irabazle, 1929an eta 1932an: “Usauri”, eleberri eraz egindako irakurgaia, 1930ean *Euskera* aldizkarian zatika argitaratua lehenik eta liburu aparteko gero; *Donostia* deritzana ordea, egileak ber-berak zioen bezala, “Usauri-ren anai laztana” da. “Usauri” itsas-giroz egina eta “Donostia” hiri barneko gora-beheraz. Bigarren hau ere *Euskera*-n agertu zen lehenik eta liburu apartean gero.

Aldizkarietan idatzi zituenetan, besteak beste, “Don Kijote”-ren atal euskaratua ere bada, 1926koa.

Gerrak, Agustin Anabitarteri ere, hogetakak urtetako isilaldia ekarri zion. 1958. urtean Itxaropenako Kuliska sortan *Poli* zeritzan eleberria argitaratu zuen, umezurtz baten ibileretan oinarritua. 1961.ean argitaldari berean *Aprika-ko basamortuan* zeritzana, Afrika iparraldean oporraldietan egin zuen bidaia kontatuaz. Azken liburu honen hitzaurrean erakutsi zigun Agustin zenak bere urduritasuna edo ibiltari gogoak, bere idaz-lan guzietan somatzen dena: “Nik lurralde guztietarako gogoak izan det beti, gauza berri asko ikusteko egarria. Itsastarrenganako naia ere bai. Izan ere, oriek ikusten dituzte erri ta bazterrak?”

Ikuspegi hori nabarmen agertzen da haren literaturan. Orain, azken bidaian, har dezala betiko atsedena (G. B.).

J. S. M.

TELESFORO MONZON

(1904-1981)

Olasoneko Telesforo Monzon euskaltzain urgazle jauna 1981.eko Martxoaren 9an hil zen Baionan. Bergarako Olaso jauregian sortua zen 1904. urteko Apirilaren lehenean. Ortiz de Urruela zen bigarren deituraz.

Lege-gizon estudioetan ibilia zen, baina barrera bukatu gabe utzi zuen. Gazterik heldu zion politika bideari eta zenbait kargu izan zituen. 1936.eko gerrateak hartu zuen eta Eusko Jaurlaritzako Gobernamentuko kontseilaria izan zen. Ondorioz, gudu hura galtzeaz, deserritze luzea ezagutu zuen. Orduan eman zion euskarazko literaturgintzari. Eta, politikan ospe handia hartzera heldu bazen ere, haintzat hartu beharrezko literatura eskaini zigun eta arrazoi hauengatik izendatu zuen Euskaltzaindiak 1966an bere urgazle.

Lehen frutua *Urrundik* (México, 1945) olerki liburua izan zen eta bigarrena *Gudarien eginak* (Donibane-Lohizune, 1947) zeritzana, genero berean.

Zaitegi zenak *Euzko-gogoa* Miarritzera ekarri zuenetik (1956), Olaso izenordez bertan idazteari eman zion, baina baita ere *Gure Herria* zeritzanean ere. Gainera, olerki eta zenbait artikuluz aparte, antzerkiak idazteari eman zion eta hara hemen beretariko batzun izenburuak: *Lau kantari eta xori bat* (1957), *Gure behia hila da*, *Menditarrak* (1958), *Hazparneko anderea* (1966), *Hazparneko bozkarioa*, *Ur garbi*, *Behorren ostikoa* eta *Eneko bizkai eta Maria Lorka* (1966). Zortzi horiez gainera besteren bat ere izan behar du. Denak, gehien bat, nekazari munduari lotuak gaiaren aldetik. *Menditarrak* zeritzana Ifar Euskal Herrian aurkeztu zenetik gainerako guziak ere harrera ona izan zuten. Une hartako berotasunagatik edo, E. K. A. (Eusko Kulturaren Alde) zeritzan erakundekoek Monzonentzat Literatur Nobel Sari eskaria egin zuten. Orduan, idazkari sartu berri nintzen Euskaltzaindian eta ondo oroitzen naiz nola bultzatu zuten euskaltzainburua Sueziaiko Enbaxadara gomendiozko gutun bat idaztera.

Baina, beraren ekintza literarioan, aipagarrienetakoak, batez ere ideia eta sentipenen aldetik, kantak dira. Eta, kantok, beraren lehen bi liburuetarko olerkiei loturik jarriko nituzke. Haiek ere kantatzeko eginak bai ziren. Orduko zabaldunkerik ezak eta geroko neurritz gainerakoak, neurriok eten ditu. Egia esan, azkenaldikoak zerbait biziagoak eta burrukalaria goak dira. Guziak dira aberkoiak. Gaur egun euskal literaturan poesiak hartu dituen goi mailetan jartzekoak ez badira ere, doinu arinez ondo hornituak daudenez, herrikoitasunaren jabe dira eta horregatik izan dute hain harrera ona. Besteak beste, oroi, “Bai euskarari” kanta ere berak egina zela.

Azken urteetan, zenbait kanta egitez aparte, berriz ere politika ekintzei lotu zen eta literaturgintzatik urrundu.

Martxoaren 12an ehortzi zuten Bergaran abertzale suhar eta euskaltzale zinzoaren gorpua. Zenbait euskaltzainek han erakutsi genuen dolumina berriz agertuz, bijoia gure egurra (G. B.).

J. S. M.

FAUSTO AROZENA

(1896-1980)

Bizitzan zehar izan zuen apaltasun berean joan zitzaigun Fausto Arozena Arregi jauna 1980.eko Abenduaren 16an, Donostian. Gure historiari zerbait arduratu direnak ohartuko dira gizon apal eta jakitun honen galeraz...

Fausto, Donostian bertan sortua zen 1896.eko Uztailaren 15ean. Gaztarotik historia ikerketari emana zen. Euskaraz ere zerbait idatzi zuen. Ez askorik. 1920. urtearen inguruan hasi eta *Junior*-en zenbait kolaborazio, batez ere poesiaz; baina, baita ere, Eusko-Ikaskuntzaren *deia* eta *Egan*-en argitara eman zituen euskarazko zenbait lan: Urte berri poema eta "Universidade edo irakaskuntza orokorra" eta abar. Hala ere, haren lan nagusiak erdarazkoak dira, bereziki historia gaiak zenbait liburu eta aldizkaritan barreiatuak.

Idaztez aparte, Gipuzkoako Diputazioko artxiboaren arduradun izan zen eta beraren herrienganako maitasunez, urterik larrienetan ere, lanik anitz egin zuen erarik isilenean. Hala ere, ekintzarik aipagarrien artekoak ditugu Julio Urkiko hil zenean hark utzitako biblioteka aberatsa Gipuzkoako Diputazioak erostea, Protokolo artxiboa antolatzea, eta abar. Baina, gizaldi berrientzat harrigarria bada ere, gerraondoan Diputazioko Bibliotekan "garbiketa" bat egin nahi zutenean, gorrienak edo abertzaleenak ziren guziak erreaz, F. Arozena gogor jarri zen holakorik egin ez zezaten, Bibliotekak liburu gordailu izan behar dutela eta ez erretzeko leku.

Eusko Ikaskuntza sortzean, 1919. urtean, bertako idazkaritza lanetan sartu zen. Berak aitortzen zuenez, maisurik hoberena Serapio Mujika izan zuen. Hura hiltzeaz haren kargura pasatu zen, Gipuzkoako Diputazioaren gordailu arduradun.

Historia ikerketaz aldizkari askotan idatzi zuen, bereziki *RIEV* eta *Bol. de la R. S. V. de los Amigos del País*-en. Hala ere, lanik garrantzitsuenak haren liburuetan biltzen dira: *Narraciones Folkloricas* (1924), *Doña Blanca Garcés* (1925), *Reseña histórica de Renteria* (1930) S. Mujikarekin elkarlanean egina, *Guía de Guipuzcoa* (1930) S. Mujikaren laguntzaz, *Guipuzcoa por San Ignacio* (1950), Bachiller Zaldibiaren *Suma de las cosas Cantábricas y Guipuzcoanas* edizio kritikoa (1944), *La casa de Zumalacárregui* (1948) J. Yrizarrekin elkarlanean, *Protocolos guipuzcoanos*, Índice (1948), *El País Vasco visto desde fuera* (1949), *Brumas de nuestra historia* (1950), *Problemas históricos guipuzcoanos en la vida de San Ignacio* (1946), *Gari-bay* (1960), *Nuestra pequeña historia* (1961), *Diccionario biográfico vasco. Guipúzcoa* (1963), *Guipúzcoa en la historia* (1964).

Borondate oneko gizona zen eta ikerketarako galdezka joatzen zitzaizkiotenei beti laguntzeko prest. Historia kontuko edozein galderari erantzuten liburu idekia bezala zen, xehetasunik tipiena adieraziz eta parterik korapilotsuenak ere argi ta garbi agertuz. Haren burua, gordailu aberatsa zen eta beti nornahirentzat idekirik.

Geroko urteetan ere, Gipuzkoako historia aztertu nahi dutenek, haren lanetara jo beharko dute iturririk gardenen bila. Eta, zordun garenok, inoiz ez gara ahaztuko.

J. S. M.

**MATTIN TREKU,
"Mattin pertsularia"**

(1916-1981)

Lapurdiko Ahetze herrian, laborari seme sortu zen Mattin Treku 1916 an. 17 urtetako hasia zen ostatu eta plazetan pertsu jokoan. Ez zuen etxetik urrun denbora hartan Mattin Irabola Sempereko pertsulari ezaguna. Baina 1940-1945.eko gerla ondoan, hasi zen oroz gainetik, T. Hernandorenak sustatutrik, bere burua bazter orotan ezagutarazten. Etxetik urrun, Ameriketaraino zabaldu zen beraren eta, beronen adiskide Xalbador Urepeldarraren omena. Mugaren Hegoaldean ere badute Iparraldeko bi pertsulari lagunek zenbait itzuli eginik eta zenbait irripar gozo edo gogoeta sakon ezpain bihotzetan jauzarazirik.



Mattin Treku
(1916-1981)

Aita Zavalak, *Auspoa* liburu sailean argitaratu zuen *Ahal dena*, Mattinen lehen liburua (1971). Bigarrena agertzen digun unean, *Ene xokotik kantari* (1981) Mattin bera, zorigaitzez itzalia zaigu bere Ahetzeko sorterrian, joan den udaminean uztailaren betean.

P. Xarritton

MATTINEN OMENEZ

Ahetzen zaigu zendu Mattin txoria,
txori kantari bizkor adoretsua,
irriparrez beterik barrenge sua,
euskaldun jende orok dugun zoria.

Gorpuari dario alai bertsua
—Nigarrik ez atera, erranik zinez,
alegera zaitezte irri eginez,
goibeltasuna date arrunt antzua.

Herria du beteko bere irrintzinez
urretxindorrak ere iratzarririk,
oihartzuna edonon indar berdinez.

Erneko du ostera gogo berririk
haizeak oro hatsez txertaturikan.
Ezin guk ur onari galdu egarririk.

Aulestin, 1981-VII-24

Alfonso Irigoien

ETIENNE SALABERRY kalonjea

(1903-11-18-1981-VII-26)

Heleta Garrako seme zen Etienne Salaberry, joan beri zaigun *Euskaltzain Ohorezkoa*. Beloken eta Baionan eskolaturik. Baionan apeztu zen 1929.ean, eta Tolosan, filosofia ikasketak egin ondoan, Uztaritzeko apezgaitegira, 1931 an, irakasle etorri. 1958.etik hona, Baionako Villa-Pia ikastegian bete zuen gero bere irakasle ofizioa, adina iragan arte.

Bestalde Alemanian preso egon zen urte luzeetan, Etienne Salaberry-k aitortzen zuen, orduan zitzaiola bakarrik ohartu bere euskalduntasunari. Gerla ondoan beraz, Piarres Lafitte adiskideak eskaturik, hasi zen gogotik euskarazko artikulua idazten astero *Herria* astekari sortu berrian (1944). Geroztik *so egilearen* sinadura agertu da beti euskaldun kaseta horretan, aurtengo uztail arte. *Jakin* aldizkarian ere argitaratu zuen E. Salaberry-k filosofiako artikulua bat edo beste. Erdaraz ere, egia erran, bazuen artikulua frango agerturik, baina euskarara itzuliz geroz, euskaraz zitzaizkon bai *Eusko-Gogoa*, bai *Gure Herria*, bai *Gernika* aldizkarietako bere olerkietan bere bihotzeko sentipen minenak ateratzen.

Azkenik, prosaz idatzitako bi liburu aberatsetan eman digu E. Salaberry-k bere barne aberats eta kezkatiairen berri: *Ene Sinestea* (1979) eta *Benat Adixkidea, Agur!* (1981). Zorigaitzez idazlea bera joana zitzaigun azken idazti hau argitaratzean.

Arrasateko Biltzar Nagusian 1979.eko Abenduan, Euskaltzaindiak, Etienne Salaberry jaun kalonjea, Euskaltzain Ohorezko izendatua zuen.

P. Xarritton

JUAN THALAMAS LABANDIBAR

(1906-1981)

1981.eko Otsailaren azkenaldian hil zitzaigun Kanbon, Juan Thalamas Labandibar, Euskaltzaindiko urgazle jauna. Berakin, gure kurtur jakintzak, gizon handi bat galdu du. Egin zituen idazlanek erakusten digutenez, ikus besterik ez dugu Jon Bilbaoren *Eusko Bibliographia*-ren VII. tomoko 590-591 orrialdeetan.

J. Thalamas Labandibar Irungo Behobian sortua zen 1906.eko apirilaren 6an. Muga mugako haurrik gehienak bezala, hiru hizkuntza zekizkien. Apaiz egin zen eta Tolosako (Toulouse) katolikoen Unibertsitatean egin zituen Filosofia ikasketak, eta Pariseko San Sulpicio Mintegian, Teologiazkoak. Gero, Soziologia eta frantses hizkuntzaren irakasle izan zen Gasteizko Seminarioan. Garai honetan hasi zen etnologiaz eta gizarte arazoaz idazten. *Idearium* eta *Yakintza* kultur aldizkarietan eta *El Día* egunkarian. Garai hartako beraren lanik mamitsuenak ditugu: 4 *contribución al estudio etnografico del País Vasco continental* (1931ko *Anuario de Eusko-Folklore*-n argitaratua, 1-120 orr.); “Laicismo y Cristianismo” (1933); eta “Aspectos de la vida profesional vasca” (1935).

Gudak herbesterratu zuen. Gero, munduko gudatea bukatzeaz, apez deserrituek Parisen ateratzen zuten *Anayak* zeritzan aldizkarian idazten zuen. 1945ean, Rafael Pikabea eta Isidoro Fagoagarekin batean, *Gernika* kultur aldizkariaren sortzaile izan zen, eta lanik anitz agertu zuen bertan, inoiz izenordepean, lehen lehenagotik erabiltzen zituenez. Besteak beste, lanori beren jabetasuna ematean, honako izenordeak erabili zituela jakitea komeni da: Basaburu, Juan de Emparan, Juan de Labandibar, Pagogaña, J. P. Yoldi, M. Astiz Dorrea, Pierre Andizabal eta abar.

1954an herriratu zen, Donostian bizitzeko. Lehenbizi *El Bidasoa* aldizkarian idazten hasi zen eta gero *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*-en, bereziki euskaldunon mentalitateaz. Lanok, liburu batean biltzea merezi dute, zeren bere iker-saioak jakingarriak bai dira guk geure nortasuna hobeto ezagutzen laguntzeko.

Azkue zenaren mendeurrenean, 1965ean, Lekeition bi lehiaketa eratu ziren, Linguistikazkoa eta Etnologiazkoa; bata Mitxelenak irabazi zuen, eta bestea, Thalamasek. Beraren lan saritu hori handik hamar urteren buruan argitaratu zen “La mentalidad popular vasca, según Resurrección M.^a de Azkue” izenburuz. Bertan, Azkue zenak *Euskalerraren Yakintza* deritzan lanean bildutakoaren azterketa egin zuen, jentilen kontuak, etxeak, jaialdiak, sorginkeriak, sineskerak eta abar. Liburu abertsatsa da euskal etnologia ezagutzeko eta azterketak aurrera erateko.

Bol. R. S. V. de los Amigos del País-en bere bizitzaren azkenaldian agertu zituen lanak euskal mitologia erlijio zaharrekin konparaketazkoak izan ziren, nonbait, libururen bat osatzeko asmoz. Eta, hortarako, herri literaturan ez ezik Lizardi eta beste zenbait euskal autoreren lanez ere baliatu zen, batez ere gure psikologia aztertu nahirik.

Migel Pelay Orozkori ez zitzaion arrazoirik falta, kale izen berriak jartzean holako gizonekin oroitzea eskatzen zuenean (ikus zer zion J. Thalamas-en heriotzaz idatzi zuen artikuluan, 1981.eko Martxoaren 5eko *El Diario Vasco* egunkarian).

Baren euskarazko lan bakarra, "Euskaldun ospetsu batzuen erakaspenak" deritzaiona, Gernikan 1966an hiri sorketaren mendeurrena ospatzeaz eratu ziren lehiaketetan saritua izan zen. Baina oraindik inon argitaratu gabe jarraitzen du.

J. S. M.

IMANOL BERRIATUA IBIETA (1914-1981)

Zarrasta itzela Irail honen 15eko berri saminak ekarri diguna: Aita Imanol Berriatua hil dela buruko atake baten ondorioz Jerusalem. Gure artean utzi duen zuloa ez da betetzen erraza izango. Euskaltzaindiak bere langile finenetako bat galdu du. Goian bego!

Bizi-xehetasunak.—Aita Imanol Elantxobe-n jaio zen, baina haurtzaroan Gernikara etorri zen bere etxekoekin. Meza-laguntzaile omen zen Santa Klarako moja komentuan —Gernikako Arbolaren ondo-ondoan dagoen komentuan—. Han ezagutu zituen frantziskanoak, Forutik maiz joaten ziren eta. Hortik piztu zitzaion frantziskano izateko gogoia. Arantzazurako eskatu zuenean, urte hartan joaterik ez zuela esan zioten (kolejioa betea zegoen nonbait edo Imanol gazteegia zen oraindik).

Orduan bera bere buruz joan zen Foruko fraideetara eta eskatu zuen lehen urtea han egitea. Lehenago, bai, bazen Foruan “preceptoría” horietako bat, baina ordurako kendua zegoen. Gezurra badirudi ere, 10 urteko haur haren eskea aintzat hartu eta berriz jarri zuten. Egia da fraideek bazekitela kurtso hura jartzen bazen, beste mutiko batzuk ere joango zirela.

Eta han zihoan egunoro gure Imanol Gernikatik Forura, denbora ona egin, txarra egin, bidean txoriei harriak boteaz eta. Nahiko trastoia omen zen.

Hurrengo urtean Arantzazuko kolejoan hartzen dute. Cantabria Probintziako frantziskanoen etxeetan egin zuen karrera guztia, hots, Arantzazu, Zarautz, Aguilera (Burgos) eta Nafarroako Erriberri edo Olite-n.

1936.ean soldadu zen. Loiolako kuartelak erreboltatu zirenean han zegoen Imanol. Txinara mixiolari joateko asmoa zuen, baina Espainiako gerrakin gauzak okertu ziren.

Gure Probintziak bazituen (eta baditu orain ere) etxe batzuk Cuba-ko islan. Nagusiek hara bidaltzen dute Imanol. Habana-n apaiztu eta mezaberria ematen du (1938). 13 urte egin zituen Cuba-n. Gero Penintsulara dator. Hemen Bizkaiko gure komentuetan biziko da: Foruan lehenik, Bermeon gero, eta, azkenik, Bilbon.

Euskal arrangura.—Euskararen kezka noiz piztu zitzaion ez dakit zuzen, baina, inolaz ere, oso goiz.

Foruko “preceptoría” hartan ba omen zen eraztunaren legea. Euskaraz hitz egin zuenari eraztuna pasatzen zioten. Beste ikas lagunek bazekiten zer egin astearen buruan eraztuna Imanoli pasa arazteko. Eta hala, astelehen guztietan, gure Imanol zen zorioneko eraztunaren jabe. Ez da hau irudi makala Imanolek izango duen zorte edo etorkizunarena. Nahi-ta-ez euskararekin izango du betirako lotura.

Teologia estudiantzen ari zen urte haietan, Arantzazuko teologo ikasleek bazuten aldizkari bat, pixka bat etxe barnerako zena, *Ensayo* deitua. Bertan badira Imanol-en lan batzuk euskaraz edo euskal gramatikari buruz. Baita olerki bat ere, itxuren arabera, harena dena: "O Eskoterri!" (A Escocia)" (1935) (1).

Cuba-n zegoen denboran aldizkari bat sortu zuen, bertako fraideen artean banatzeko; *Inter nos* zuen izena. Han ere badatoz Imanol-en artikuluak euskarari buruz.

Cuba-tik etorberri zelarik, Krutwig jaunarekin har-emanetan sartzen da. Jaun honek bilera batzuk antolatzen zituen Bilbon, eta bilera horietara etortzen zen Forutik. Bilera horietan biltzen, baita ere, Erkiaga, Gorostiaga, Otxolua (Garro), Ake-solo etab.

Foruko Colegioko Irakasle eta baita Erretore ere izandu zen. Euskara grekoa eta frantsesa irakasten zituen. Ordurako azterketa sakonak eginak zituen euskal gramatikaren alorrean, eta batez ere aditzean. Urte batzuk geroago (1960an), Intxausti *Euskal Aditza* liburua aterako du, eta hara hitzaurrean zer dioen:

"Para terminar, no me resta sino agradecer de todo corazón a los señores Seber Altube, L. Mitxelena, Txillardegi y de modo especialísimo a mi antiguo profesor P. Imanol de Berriatua, a quien debo inapreciables observaciones y gran parte de los paradigmas desarrollados, toda su valiosa ayuda" (2).

Foruko urte horietan, eta, zehazkiago, 1953an, *Anaitasuna* aldizkaria sortzen du. Hasieran eliz orri umil bat zen. Jakina denez, Berriatuaren bizitza urte luzeetan aldizkari honi lotua egongo da. Aldizkaria euskara batuaren bidetik sartu zenean, Imanol, idazle baino gehiago, lanen zuzentzaile izaten zen, hots, lan guztiak gramatika aldetik eta batasun aldetik zuzentzen zituen. Hitz zerrendak ere jartzen zituen zenbaki bakoitzean, hitz berri edo guti ezagunen esanahiaz. Aitortzen du Kintanak bere hiztegirako iturri bat hor izan duela:

"Ni qué decir tiene que nos han sido de gran utilidad los neologismos no registrados en diccionarios y que numerosos autores vienen empleando en sus trabajos, de los cuales buena parte, gracias a la labor de Imanol Berriatua, han aparecido en las páginas de *Anaitasuna*" (3).

Bermeon egon zen garaian esperientzia berri bat egingo du: arrantzaleen kapeilau gisa Afrika aldera itsasoz osterak egitea. Eta horrek bere euskal lanetan oihartzuna utziko du.


Bilbon bizi izan den urteetan, *Anaitasuna*-n, Euskaltzaindiko aditz batzordean eta Oinarrizko euskararen batzordean egingo du batez ere lan.

Guztiok dakigunez, Oinarrizko Euskararen obra honi eskeini dizkio bere azken urteetako lanak.

(1) Olerki hau bizkaieraz dago eta sinadura honela dakar: B. I. A. (Berriatua-tar Imanol Anaia?). Eskoto-ren egunean ospakizun bat egiten zen haren omenez. Segur aski orduan irakurtzeko egina da.

(2) Fr. Joseba Intxausti, F. M.: *Euskal-Aditza*. Gipuzko-bizkaierak. Paradigmas verbales y método racional para su estudio; Zarauz 1960; p. 7.

(3) *Hiztegia* 80. Vasco-español, Español-vasco; p. XXII.



Imanol Berriatua (1914-1981)

Gure Imanol hebraieraren berpizteaz erasana gelditu zen. Beraz, gertakari horren xehetasunak hurbildik jakin nahi zituen. Esan behar da aspaldidanik zuela hebraieraren zaletasuna eta hori Biblia Sainduko estudioetarik zetorkiola. Baina hizkuntza honen berpiztea euskararentzat etsenplo izan zitekeela uste zuen. Horregatik egotaldi batzuk egingo ditu Israel-en, eta, azkenean, hiltzea ere han gertatu zaio (4).

Erbestetik datozen judu adinekoei nola irakasten dieten hebraiera —hebraiera bat murriztua eta erraza— nahiko du ikasi. Euskal Herria euskaldunduko bada, horrelako tresna baten beharra izango dugula pentsatzen zuen, eta tresna hori moldatzera jarri zen. Ez bera bakarrik, noski. Batzorde bat dago Euskaltzaindian asmo hau mamitzeko jarria, baina denek dakite Imanol zela batzorde horren buru eta bihotz. Euskaltzaindiko gelarik bakartienean sartu eta han egongo zen, egunoro, goiz eta arratsalde, beti lanean.

Idazlanak.—*Anaitasuna*-n agertu dituen guztiak ez dago hemen aipatzerik, bistan da.

Cuba-tik etorri eta, lehen urte haietan atera zuen *Lagunarteko Mezea* (libruska bat) eta *Kristiñau Katezismoa* (beste libruska bat, hau alemanetik itzulia eta lan handiago baten atala dena). Hagiografiako lan batzuk ere uste dut itzuli zituela gipuzkeratik bizkaierara (*Santa Maria Goretti eta Teresalina Zubiri*), A. Sorarrainek

(4) Israelen hebraiera ikasteagatik bezala, Canada, Irlanda eta Alemanian ere egona zen frantsesa, ingelesa eta alemana ikasteko.

gipuzkeraz egin zituenetik itzuliak. Beste lan batzuk bide bazterrean gelditu zitzaizkiola uste dut, nola atera ikusten ez zuelako.

Obrarik handiena *Hitz Egin* metodoa izan da, dudarik gabe, Oinarrizko Euskararen batzordeak egina eta Iberdueroren laguntzaz argitaratua. Hiru maila ditu metodo honek eta maila bakoitzak hiru liburu: Irakaslearena, Ikaslearena eta Ariketa idatziak. Guztitara, bederatzi liburu. Gainera, sei liburuska irakurgaiekin, hiru lehen mailan eta beste hiru bigarren mailan idatziak. Ez dut esan nahi dena Imanolek egina denik. Batzorde batek burutu du obra handi hau.

Berrikitan *Itsasoa eta ni* liburua atera du arrantzaleekin egiten zituen itsas txangoak kontatuz.

Euskera-n agertu dituen artikuluak hauek dira:

“Bermeoko arraintzaleen leksikua”, E (1963), 385.

“Herri mailako hizkuntza (Israelgo esperientzia)”, E (1977), 899.

“Oinarrizko euskara. *Hitz Egin* metodoa”, E (1978), 363.

“Oinarrizko euskararako batzordearen azalpena”, E (1981), 481.

Lehen urteetan gure Imanol garbizaletasunaren bidetik zebilen; baina gero, eta aski goiz, beste aldera pasatu zen, hori euskararentzat komenigarriago zela usterik. Horregatik zirtoak irentsi behar izan zituen, baina ez zen gehiegi kantitzen.

Dohainak eta beste.—Imanol ezagutu duten guztiek badakite nolakoa zen. Bihotz ederraren jabe, fede handikoa, zuzena, zintzoa, umila, lan-gosea, etekin edo interes propioaz axolatzen ez zena, haurra bezain xalo eta lainoa, kemen handikoa, suharra, bizi-bizia, urduria. Baina ez zen bat ere zurruna, malgua eta etorkorra bai-zik. Goraldiak eta bai beheraldiak ere izango zituen, baina aurki zetorkion eguraldi argia.

Hizkuntza biziak irakasteko aparteko dohainez hornitua zegoen. Iberdueroko enplegatuekin frogatzen zuen *Hitz Egin* metodoa. Hauek asko maite zuten. Jolasera bezala joaten omen ziren haren klasera, eta asko ikasten zutela aitortzen dute.

Hori bera, eta areago gertatu zela esan behar da Foruko kolejoan fraidegaiei emandako klaseetan. Bazekien gazteengan euskararen zoramena pizten. Eta halakoa izan da jaso duen uzta ere. Intxausti, Azurmendi, Zurutuza, Fernando Mendizabal eta gaur euskal kulturaren munduan zerbait diren beste asko haren eskuetatik iragana dira eta berari zor diote, neurri handi batean, euskal zaletasuna eta euskal jakintza.

Euskaltzain urgazle zen, 1961.ean izendatua. Ikus *Euskera* (1971), 253.

Egun haundira arte, Imanol!

Donostia, 1981-IX-25
Fr. Luis Villasante,
Euskaltzainburua

ROBUSTIANA MUJICA EGAÑA, "TENE"

(1888-1981)

Irailaren 16an hil zen Deban Tene Mujika, euskaltzain ohorezkoa. Robustiana Mujika Egaña, "Tene", Deban bertan munduratu zen 1888.eko maiatzaren 24.ean

Idazle bezala ospea hartzera heldu zen gerra aurreko garaian. Antzerkia, olerkia eta kontagintza zituen berak erabilitako gai nagusiak. *Euzkadi*, *Argia*, *Gure Herria*, *Jaungoiko-zale* eta beste zenbait aldizkaritan sakabanaturik aurkitzen dira beraren lanak. Baina, liburuak ere idatzi zituen eta zenbait literatur sari jaso ere bai. Hara hemen hauen berri:

Miren Itziar'i idazkiak eta olerkiak (Zornotza, 1923). Euzkaltzale Bazkuna zeritzan elkartean saritutako lana. Idazki aberkoiak dira eta hortik zetorkion garai hartako goresmena. Hemeretzi gutunek eta hogeitahiru olerkik osatzen dute liburua. Gutunen bidez, emakume abertzaleen eginkizunak zer ziren adierazteko zuen. Bertako XIV, XV eta XVI. idazkiak, emakumezkoek euskararen alde kontseiluzkoak dira. Olerkiak berriz, naturaren eta gure herriaren edertasunari eskainiak dira gehienak. Bertako "Udazken-ala" deritzanetik zazpi lerroko bertso bat jaso zuen Watson Kirkconnell-ek *European Elegies* (Ottawa, 1928) olerki bildumarako hautatu eta ingelesera itzulia bertan argitaratu zuen.

Gogo-õñazeak (Tolosa, 1934). Hiru ekitaldidun antzerkia, *Antzerti* aldizkariak antolatutako II. antzerki sariketan lehen saria eraman zuen lana. *Antzerti*-ren 34-35-36 zenbakietan argitaratua.

Gabon (Tolosa, 1935). Haurrentzako bakirrizketazko antzerkia. Hau ere, *Gogo-õñazeak* bezala, 1934an Tolosan ospatu zen II. antzerki sariketan saritua. Garai haietan, zein bata eta zein bestea errepresentatuak izan ziren.

Joan Joxe (1936). Hiru ataldun antzerkia, Oñatin egin zen "Asamblea Mariana Diocesana"ko literatur lehiaketan saritua. Handik lasterrera etorri zen Espainiako gerra eta Gasteizko apezpikutegian galdu zen lan hau. Egilea bera, herbesteratua izan zen eta urte asko kanpoan egin ondorean itzuli zen. Euskal lanetan aritzeko ez zuen aurkitu giro egokirik, baina hala ere zerbait egin zuen.

Esan beharra dago garai hartako beste zenbait idazlek bezala, lehendik euskarazko literaturarik ez bagenu bezala idazten zuela, lehengo euskarazko hitzen erabilera ezagutu gabe, hitz asko lehendik diren ala ez begiratu gabe hitz berriak asmatuz, neologismoz beterik. Eta, Tene ez zen haien artean joera hori gehiengoan erabiltzen zuenetakoa. Eskerrak horri, bere lanak irakurgaiago dira, nahiz eta ideia aldetik atzerakoak izan.

Gerraostean zenbait artikulua eta ipuin idatzi zituen Debako jaien programetan. Oso gutti bestelako kultur aldizkarietan. Tenek, bere zahartzaroko ajeen artean bizialdiak ere izaten zituen eta hala adierazi zigun 1964.ean Ondarroan Txomin Agirrerren

mendeurrena ospatzeko eratu ziren literatur lehiaketetan, nekazari bizitzari buruzko gaian lehen saria irabaziaz.

Oraindik geroxeago, beste liburuxka bat ere idatzi zuen, *Cuadernos de vascuence hablado* (Zarautz, 1968) deritzana, euskararik gutti edo bat ere jakin ez eta beren haurrak ikastoletara bidaltzen zituzten gurasoei laguntzeko egina. Era hartako gehiago argitaratzekotan zen, baina nik dakidanez hura besterik ez zen agertu.

1975. urtean, Emakumearen Nazioarteko Urtea ospatzean, Euskaltzaindiak bere ohorezko izendatu zituen Julene Azpeitia, Madeleine Jaureguiberry eta Tene Mujika, hirurak joan zen mendean sortuak, euskararen irakaskintzan eta idazle bezala hainbeste lan egindako emakume ohoragarriak zirelako. Lehenengo Madaleine eta gero Julene joan zitzaizkigun (beren bizitzaz ikus *Euskera*, XXIII, 1978, 397 orr. eta XXVI, 1981, 509 orr.).

Aurtengo apirilean, Deban Joan Jose Mogelen mendeurrena ospatuz eratu genuen dialektologia ikastaroaren bukaeran, Tenen gogozkoa zen han agertzea, baina ordurako itsutua eta ibili ezinik zegoen. Egutenik egunera beherako zetorren haren osasuna eta beraren sorterrian eman du azken arnasa. G. B.

J. S. M.

PHILIPPE ARANART kalonjea

(1901-IX-9 - 1981-VIII-13)

Baigorriin sortu zen Philippe Aranart, mende horien hastapenean. Burasoak ziberotarrak zituen. Aita jandarme aintzindari. Apezteko eskolak Beloken egin zituen eta gero Baionan. 1927 an apezturik Tolosara bidali zuten letretako lizentziatura pres-tatzera, baina, bizi guzia iraunen dion hezurretako gaitza lotu zitzaion eta herrira itzuli zenean Uztaritzeko apezgaitegira izendatu zuten. Hor zen hasi euskal lanetan Piarres Lafitte adiskide eta irakasle lagunarekin. *Euskalduna* kazetan eta gero *Aintzi-nan* argitaratu artikulu bakan batzuetaz bestalde, bururatu zuten oroz gainetik, aita Lhande-k, *F* letra arte eremana zuen bere hiztegia, *Vocabulaire français-basque* argi-taratu zuten gero lafitte-k eta biek eta ere Julien Heguy zenaren *Maiatza*.

1936an, Baionako lizeora izendatu zuten omonier, Aranart apeza eta geroztik, bere osagarriaren gora beheren arabera, maiz lekuz eta karguz aldatu beharko da, sekula bere omere ona galdu gabe. Horra nola Baionatik lekora, erretor egon ondoan Hendaian (1948); Hazparnen (1952); Maulen (1955); apez lagun jarriko da, 1958 ez goroz Bidarten, Kanbon, Miarritzen eta azkenik Maulen. Hor itzali zaigu gure adiski-dea uztailaren 13an.

P. Xarritton

AURKIBIDEA

PATXI ALTUNA JAUNAREN EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

<i>Luziano Lazkano, Azpeitiko Alkate Jauna, PATXI ALTUNA JAUNAREN EUSKALTZAINDIAN SARTZEA</i>	599
<i>Fr. L. Villasante, PATXI ALTUNA AITAREN EUSKALTZAINDIAN SARTZEA</i>	601
<i>Patxi Altuna, ZIBURUKO IOANNES ETXEBERRIZ</i>	605
<i>Koldo Mitxelena, PATXI ALTUNARI ERANTZUNEZ</i>	617

FRANCISCO ONDARRA JAUNAREN EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

<i>Fr. Luis Villasante, FRANCISCO ONDARRAREN EUSKALTZAINDIAN SARTZEA</i>	629
<i>Francisco Ondarra, POLIKARPO AITAK ZITUEN EUSKAL ESKU-IDATZI ZAHARREN AURKEZPENA</i>	663
<i>Jose Mari Satrustegi, F. ONDARRA EUSKALTZAIN BERRIARI ERANTZUNA</i>	651

JUAN JOSE MOGEL IDAZLEAREN II. MENDEURRENA (1781-1981)

<i>Aita Jose Ignacio Lasa, JUAN JOSE MOGEL IDAZLEAREN II. MENDEURREN (1781-1981).....</i>	663
<i>Tene Mujika, AMA OLERKIA</i>	669
<i>Lino Akesolo, JUAN JOSE MOGELEN EUSKAL LANAK</i>	671
<i>Fr. Luis Villasante, JUAN JOSE MOGELEN OMENALDIA</i>	683

JEAN BAPTISTE ARXU IDAZLEAREN MENDEURRENA

<i>Lougarot jaun auzapeza, MAULEKO AUZAPEZAREN AGU-</i>	
<i>RRA</i>	689
<i>Frantxua Daskon, SU-AZIAK HUNKI JIN EUSKALTZAIN-</i>	
<i>DIARI</i>	691
<i>Fr. Luis Villasante, J. B. ARXUREN MENDEURRENA</i>	695
<i>Junes Casenave-Harigile, JUSEF EGUIATEGUI</i>	699
<i>Jean Louis Davant, EGIATEGIZ GEROZTIKO ZIBEROTAR</i>	
<i>IDAZLEAK</i>	707
<i>Jean Haritschelhar, JEAN BAPTISTE ARXU IDAZLEAREN</i>	
<i>MENDEURRENA</i>	715
<i>Etchebarne Dominika, Altzürükiko errejenta, J. B. ARCHU</i>	717
<i>Christiane Etchebarne, BELIA ETA AXERIA</i>	720
<i>Jean Pierre eta Michel Eppherre anaiek, HARTZAREN KAN-</i>	
<i>TORIA</i>	725

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

<i>Fr. L. Villasante, LOIOLAKO JARDUNAK</i>	729
<i>BARNE ERREGELEN ALDAKETA ETA GEHIGARRIAK</i>	733
<i>CAMBIOS Y ANEXOS DEL REGLAMENTO INTERIOR DE</i>	
<i>LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA</i>	737
<i>AMENDEMENTS AU REGLEMENT INTERIEUR DE L'ACA-</i>	
<i>DEMIE DE LA LANGUE BASQUE</i>	741
<i>Fr. Luis Villasante, ARAUTEGIA ETA BARNE ERREGELAK</i>	
<i>ARGITARATZEAZ ETA EUSKALTZAINDIAREN LAGU-</i>	
<i>NAK IZENDATZEAZ</i>	745
<i>AZKUE BIBLIOTEKA, ERREGELA BEREZIAK</i>	749
<i>AZKUE BIBLIOTEKA, REGLAMENTO ESPECIAL</i>	753
<i>BIBLIOTHEQUE AZKUE, REGLEMENT SPECIAL</i>	757
<i>ALFABETATZE EUSKALDUNTZE KOORDINAKUNDEARI</i>	
<i>BURUZ ONARTURIKO ERABAKIA</i>	761
<i>EUSKALTZAINDIKO BATZORDEEN ORGANIGRAMA</i>	763
<i>EUSKALTZAINDIAREN BATZAR AGIRIAK</i>	771

BATZAR TXOSTENAK

LITERATUR SAILA

<i>Jose Garmendia Arruebarrena</i> , FRANCISCO INAZIO LARDIZABALEN LAN ETA IDAZKIEZ EZAGUTZEN EZTIREN BERRI ETA GAUZA BATZUK	795
<i>Federico Krutwig</i> , EUSKAL AKADEMIAREN LITERATUR BATZORDEAREN, KULTUR DEMIURGOEN SAILA	799
<i>Txomin Peillen</i> , EUSKAL ANTZERKI ZAHARRENAK	837
<i>Nikolas Altzola Gerediaga</i> , ESAERAK-ETA, IZURTZALDEKO EUSKARAN	845
<i>Karmele Rotaetxe Amusategi</i> , LA MORFOFONOLOGIA COMO METODO DE ANALISIS DE UNA LENGUA AGLUTINANTE	861
<i>Luis Michelena</i> , SOBRE LAS NECESIDADES DE UNA EXPLORACION LINGUISTICA DE EUSKAL HERRIA	873

IZENDEGIA

<i>Justo Garate</i> , MIGUEL UNAMUNO: INDICE DE PERSONAS Y CONCEPTOS DE LA RAZA Y LA LENGUA	885
---	-----

BERRIAK

<i>Fr. L. Villasante</i> , LA H EN LA ORTOGRAFIA VASCA	909
<i>Fr. L. Villasante</i> , ESPAÑAKO ERREGE-ETORTZEA	915
EUSKALTZAINDIAREN I. DIALEKTOLOGI IKASTAROA...	917
<i>Fr. Luis Villasante</i> , DIALEKTOLOGI IKASTAROA	919
<i>Josemari Vélez de Mendizábal</i> , IOKIN ZAITEGIREN GAINEKO MAHAI BOROBILAK ARRASATEN	925
<i>José Antonio Arana Martija</i> , EL FONDO BONAPARTE DE EUSKALTZAINDIA	929
<i>Xabier Mendiguren</i> , ITZULPENAREN MUNDUA ETA EUSKAL ITZULTZAILEEN OINARRIZKO PRESTAKUNTZARAKO ESKOLA	933

HILBERRIAK

AGUSTIN ANABITARTE IRAZU	1007
TELESFORO MONZON	1009
FAUSTO AROZENA	1011
MATTIN TREKU	1013
ETIENNE SALABERRY KALONJEA	1015
JUAN THALAMAS LABANDIBAR	1017
IMANOL BERRIATUA IBIETA	1019
ROBUSTIANA MUJICA EGAÑA, "TENE"	1023
PHILIPPE ARANART KALONJEA	1025